

+



Kiroleko entrenatzaile pertsonalak
Amaia Arrieta diseinatzaileari elkarrizketa



HASI DITUZTE ESKOLAK

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 5.400 ikasle ariko dira ikasturte honetan Debagoieneko eskola publikoetan, ikastoletan eta kristau eskoletan; gehienak asteon hasi dira / 4

Neska-mutikoak eta gurasoak ikastetxe aurrean, Bergarako Aranzadi ikastolan, atzo, eguena.

NEKANE MUÑOZ

Hamabost ekoizle eta 33 barietate Aretxabaletako Tomate Astearen lehiaketan / 3



Ikazkin Trail mendiko lasterketa jokatu da zapatuan Kurtzebarriko maldetan / 32



SAN MARTIN JAIK / 20

Bergaratik Elosu gainerainoko errepidea berritu egingo dute; urtarrilerako erabilgarri / 18

SINADURAK



Progresiboen hilabetea

2x189€

mó betaurreko progresibo



batzuk eguzkitakoak izan daitezke



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA



eskatu hitzordua



MULTIOPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

Pentsiodunen astelehenetako elkarretaratzeak bueltan dira

Abuztuko etenaren ostean, astelehenean berrekin zieten asteroko mobilizazioei eta aldarrikapenei


Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak astelehenean berrekin zien asteroko mobilizazioei abuztuko etenaren ostean eta Debagoieneko zenbait pentsiodun ere bildu ziren orain

arteko aldarrikapenei jarraipena emateko. Arrasateko plazan 40 lagun elkartu ziren eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, erosmen-ahalmena berrezartzea, genero arrakalarekin amaitzea nahiz erretiro-adina atzeratzeko

azken erreforma indargabetzea eskatu zituzten, besteak beste.

Urtarrilean bete ziren bost urte Euskal Herriko 80 puntutan asteroko elkarretaratzeak egiten hasi zirenetik eta mobilizazioekin jarraituko dutela eta gobernu-programan euren aldarrikapenak jasotzeko eskaera egingo dutela azaldu zuten: "Badakigu mobilizazioak jarraitzen duela izaten gure helburuak lortzeko bermea eta horrela egingo dugu. Berdin dio nork gobernatu, guk pentsioak defendatu!".

Debagoieneko langabezia datuak



Langabeziak gora egin du abuztuan Debagoienean

Uztailean baino 90 langabe gehiago zenbatu dira ia, bailarako herri guztietan; Elgeta izan da salbuespena

I.A.A. ARRASATE

Gipuzkoako Lan Behategiak asteen eman dituen datuen arabera, abuztuan 2.373 langabe zeuden Debagoienean; uztailean baino 90 gehiago. 2022ko abuztuko datuekin konparatuta 141 langabe gutxiago egon dira.

Datuei erreparatuz, iazko abuztuan pasa zuen azkenengoz langabeziak %8ko langa, eta jaitziera handia izan ez bada ere, ordutik nahiko egonkor mantendu da: %7 eta %8 bitartean. Azken hilabeteetan, esaterako, %7,73an kokatuta –urtarrileko

datuarekin alderatuta, 2023ko altuena–.

Elgetan, langabezia behera

Ibarrean, Elgetan egin du behera bakarrik langabeziak –34tik 33ra pasatu da–. Beste herrietako datuak hauek dira: Antzuolan hiru gehiago; Aretxabaletan, 12; Arrasaten, 34; Bergaran, 11; Eskoriatzan, 9, eta Oñatin 19. Halaber, langabe kopurua bost baino gutxiago denean Lan Behategiak ez du datu zehatzik ematen; hori da, hain justu, Gatzagaren eta Aramaioren kasua.



JOSU ZURUTUZA

Behorra haitz artetik irten ezinik

Kurtzebarri menditik Elorretako Haitzetara bidean –gurutzetik 50 bat metrora– dauden haitzetan harrapatuta igaro zuen astelehenetik martitzenera bitarterako gaua Eskoriatzako Mazmela auzoko Josu Zurutuza bizilagunaren behorrak. Ez daki zergatik eta zelan sartu zen han, baina martitzen goizean ateratzea lortu zuten soken laguntzarekin.

Udal Euskaltegiak. Publikoak, irekiak, guztiontzat.

EUSKARA, bidaia harrigarria

#euskarharrigarria

2023 - 2024 **MATRIKULA** epea zabalik



UDAL EUSKALTEGIAK
Euskara ikasleak

HABE! - Hiri Ingulak



BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta 18
Oñati.
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

ARRASATEKO
UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 70 77
Whatsapp 688 78 09 31
euskaltegia@arrasate.eus

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea 33
(Irizar jauregia).
Tel.: 943 76 44 53
euskaltegia@bergara.eus

LEINTZ
UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - Aretxabaleta
Inbaurbueta 9 - Eskoriatza
943 79 21 68
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus

33 tomate barietate domekako txapelketan

Aretxabaletako Tomatearen Astearen barruan jokatu da Euskal Herri mailako lehen tomate txapelketa domekan. Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Arabako hemezortzi lagunek eman dute izena. Pozik agertu dira antolatzaileak

L. Zeberio Lekuona ARETXABALETA

Ikusteko zegoen Euskal Herri mailako lehen tomate txapelketa zer nolako erantzuna izango zuen eta "sorpresa atsegina" izan dela adierazi dute antolatzaileek. "Une honetan bakarrik Nafarroan egiten da antzinako tomate lehiaketa. Joan zen zapatuan egin zuten eta hamabost ekoizle eta 32 barietate izan zituzten, baina zazpigarren edizioa zuten", azaldu du Deba Garaia Landa Garapena elkarteko teknikari Agurtzane Diazek. "Hemen, Euskal Herri mailakoa deitu genuen eta lehen edizioan hemezortzi ekoizle eta 33 barietate izango ditugu. Pozik egoteko



Tomatearen Asteko hainbat antolatzaile eta parte-hartzaile eguaztenean. L.Z.L.

moduan gaudela uste dut. Lehen urterako erantzun polita da. Espero dugu egonkortzen joatea".

Txapelketa domekan jokatu da Aretxabaletan egitekoa den tomatearen azokaren barruan. Ekoizleen jatorriari dagokionean hamabi dira gipuzkoarrak –Debagoienekoak zazpi–, hiru bizkaitarrak, bi nafarrak eta bat arabarra. Epaimahaia sei lagunek osatuko dute: Josema Azpeitiak, Carlos Larreak, Urkidi Salaberriak, Aitzol Zugastik, Fede Pachak eta Mikel Zeberio.

Domekako azokak bestelako osagaiak ere izango ditu, ordea. Azoka 10:00etan zabalduko dute eta hogeit bat ekoizleek osatuko dute, gehienak eskualdekoak. Gazta, ezti eta barazkiak eskainiko dituzte, besteak beste.

Antzinako tomate barietateen erakusketa ere izango da. Erakusleetako bat Koldo Zubizarreta aretxabaletarra izango da. "Bi barietate izango ditut; batak ehun urtetik gora ditu eta besteak 50 bat urte", azaldu du. Aurten go uztari buruz galdetuta esan du: "Nik produkzio ona atera dut eta oso arraroa da baina oso azkar heldu zait. Aretxabaleta-

ko tomateak badu ezaugarri hori; beste batzuk baino lehenago heltzen dela". Beste ekoizle batzuek zailtasun handiagoak izan dituzte aurten. Tomatearendako "hezetasun handia eta argi gutxi" izan direla esan dute.

Haziak erauzteko tailerra eta sukaldaritza tailerra ere egingo dituzte domekako azokan. Tomate deigarrienaren lehiaketa ere jokatu da. Herri bozketaz aukeratuko da saritua eta Debagoieneko edonork izango du parte hartzeko aukera. Nahikoa da tomateak egunean bertan aurkeztuta.

Pintxoak eta erakusketa

Domekako azoka eguna heldu bitartean zabalik da Arkupen Aretxabaletako tomatearen sorreraren eta ibilbidearen inguruan Marta Barba Gossek sinatzen duen erakusketa. Iraila osoan egongo da ikusgai. Bestetik, eguaztetenetik pintxo ibilbidea egiteko aukera eskaintzen dute herriko sei ostaturik. Taberna Berri, Iosu, Aretz, Gurea, Akategi-Expres eta Hirusta dira. Tomatea oinarri duten pintxoak eskaintzen dituzte.





**Etorkizuna
hobetzeko
lanean**

FAGOR
Herrigintza

Fagor Taldearen lankidetzeta programa, gizarte egitasmoak babesteko

Hiru laguntza banatuko dira: 60.000 €, 40.000 € eta 20.000 €.

Izen ematea zabalik irailaren 1etik 30era. AURKEZTU ZURE PROIEKTUAI

Informazio gehiago, www.fagor.eus webgunean.





Debagoieneko ikasleak itzuli dira ikasgeletara

Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleak kontuan hartuta 5.425 ume dira eskualdean ikasturteari hasiera eman diotenak. Hezkuntza Lege berriaren ikasturtea izan daitekeen honetan ikas materialen garestitzea ibili da denen ahotan



Ikasturte hasiera, atzo, Bergarako Aranzadi ikastolan. NEKANE MUÑOZ

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE Iratzargailuarekin esnatu, motxila egin eta aspaldiko partez txirrinaren hotsa berriz entzuteko egunak izan dira honakoak eskualdeko ikasle eta irakasle askorendako. Pozik, triste, lasai edo urduri guztiak bueltatu dira ikasgeletara eta martxan da 2023-2024 ikasturtea. Eskola jardunaldi murriztuak izango dituzte zentro gehienetan lehen egunotan. Urrian ezarriko dira ohiko ordutegiak.

"Erronkaz beteriko ikasturtea" dela esan zuen Iñigo Urkullu lehendakariak atzo Leioako Txomin Aresti Eskolan egindako ikasturte irekiera ekitaldian. Eskola garraioa zerbitzuekin Bizkaian eta Araban sortutako arazoak izan ziren albistearen berean. Lasaitasun mezua helarazi zuen Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak.

Irekiera ekitaldian Urkulluk azaldu zuen "estrategia komuna lideratzea, baliabideak bermatzea eta etengabeko hobekuntza

bultzatzea" direla ikasturteko helburu nagusiak. Hobetu beharrekoak ere aipatu zituen. Irakasleak egonkortzea, norbakoan zentratuagoa dagoen hezkuntza eskaintzea eta Hezkuntza Lege berria onartzea azpimarratu zituen. Baliabideak "mugatuak" direla ere ohartarazi zuen. "Oreka mantendu behar dugu gure lehenetasun

guztien artean. Gure gastuen eta inbertsioen artean".

Inflazioak markatutako itzulera Ikas materialen prezio igoera izan da hizpide ikasturte hasiera honetan familia gehien artean. Inoizko eskolara itzulera garestiena dela ohartarazi dute hainbat kontsumitzaile elkartetik. Testuliburuak eta koa-

Debagoiengan 5.425 ikasle

HHko eta LHko ikasleak kontuan hartuta Debagoiengan 5.425 umek hasi dute ikasturtea.

Ikasle kopurua herrika

Arrasate: 1.704

Bergara: 1.231

Oñati: 1.119

Eskoriatza: 521

Aretxabaleta: 454

Antzuola: 188

Elgeta: 122

Aramaio: 86

Oharra: Datuak behin behinekoak dira.

dermoak dira gehien garestitu direnak. Eskola itzulera duela bi urte baino %30 gehiago ordaindu beharko dela aurreikusitako OCU elkartetik. "Europa osoko kopururik handiena" dela ohartarazi dute. Hezkuntza Sailak uztailen jakinarazi zuen 68 milioi euro bideratu dituela unibertsitatez kanpoko ikasleen beketarako. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 30era bitartean egongo da zabalik.

MUren irekiera ekitaldia gaur

Mondragon Unibertsitateak gaur egingo du irekiera ekitaldia. Oñatiko enpresagintza fakultatean izango da eta Iñigo Urkullu lehendakariaren eta Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzen parte hartzearekin egingo dute. Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak egingo die harrera, besteak beste.

Bidegi kereila behin-behinean artxibatuta

Autoak dio auzia eragin duen delitua ez dagoela justifikatuta. EH Bildu ez da iritzi berekoa

L.Z.L. ARRASATE

Azpeitiko instrukzioko bigarren epaitegiak behin-behinean artxibatu du AP-1 autobideko Arlaban-Eskoriatza tarteko obrei buruz jarrita zegoen kereila. Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu zuen kereila 2015eko azaroan, EH Bildu agintean zela.

Egungo diputatu nagusi Eider Mendozak "zuhurtzia" adierazi du "artxibatzea behin-behinekoa delako", baina gehitu du "argi eta garbi gelditu dela delitua egon zitekeen zantzurik ez dagoela eta kereilarekin batera aurkeztutako dokumentazioan akats deigarriak daudela".


EH Bilduk helegitea jartzea aztertuko du. Esan du "funtsezkoa zen hirugarren peritu inpartziala ekidin" dela, eta salatu du "auziko zati bat modu faltzuan ixteak herritarrei egia ezagutzeko eskubidea eta berme guztiak dituen prozesu baterako eskubidea lapurtzea" dakarrela.

Erromesaldia eta meza Arantzazuko Amaren egunean

Bihar, irailak 9, ospatuko dute Arantzazuko Amaren eguna Oñatiko santutegian. Oñatiko erromesak 08:00etan elkartuko dira Zapatan santutegirainoko bidea oinez egiteko. Meza nagusia 12:00etan esango du Gipuzkoako bikario Mikel Arangurenek -gotzain berria Erromanda-. Aurretik, 11:40ean, ekitaldi etortzekoak diren ordezkari harrera egingo die Oñatiko alkate Izaro Elorzak Arantzazuko aparkalekuan. Konfirmatuta daude Iñigo Urkullu lehendakariaren parte hartzea, eta, baita ere, Arantxa Tapiarena, Bakartxo Tejeriarena, Eider Mendozarena eta Xabier Ezeizabarrena.

225 ikaslerendako materiala

Kaltebera egoeran dauden eskualdeko 225 ikasle jaso dute Debagoieneko Gurutze Gorriak banatzen duen eskola materiala. Eskaera %14 hazi da aurten. Partikularren, enpresen eta bazkideen ekarpenekin, uztailko Urrezko Zozketaren diru-bilketarekin eta Debagoieneko lau udalek ematen duten diru-laguntzarekin finantzatu da egitasmoa.



Gurutze Gorriko kideak eskola-materialaren banaketa egiten. GURUTZE GORRIA



Bergarako HHI-ko zuzendari Bikendi Lazkano eta ikasketaburu Miren Olabe.

Arrakala digitalari aurre egiteko prest daude EPAn

Begarako Helduen Hezkuntzako Ikastetxean oinarrizko informatika eta tresna digitalen ikastaroak eskainiko dituzte 2023-2024 ikasturtean. Doako ikastaro horietan izena emateko epea zabalik da irailaren 2tik

80ko hamarkadan atek ireki zituenetik gizartearen beharretara egokitzeko duen gaitasuna erakutsiz, azken urteetako eskaintza akademikoa zabaldu eta formazio digitala emango dute datorren ikasturte aurrera Bergarako Helduen Hezkuntzako Ikastetxean. Europar Batasunak banatzen dituen Next Generation izeneko funtsei esker

izango da, Bergarako HHIko zuzendari Bikendi Lazkanok eta ikasketaburu Miren Olabek azaldu dutenez: "Funts horien helburuetako bat da arrakala digitalari aurre egitea, eta helduen hezkuntzako ikastetxeen bidez egin gura da hori".

Gauzak horrela, prestatu dituzten informatika eta tresna digitalen ikastaroak doakoak

eta, hasiera batean, 18 urte edo gehiago dituen edozeinentzat diren arren, lehentasuna izango dute 55 urtetik gorako herritarrek.

Hogei ordenagailu eramangarri Formakuntza digitala bi mailatan egongo da banatuta: oinarrizkoa eta altua. "Gailu informatikoekin konfiantza eskuratzea da lortu gura dena", diote Ber-

garako HHIko ordezkariak. Teknologia berrieekin lotuta ezagutza mailak askotarikoak izan daitezkeela jakitun, horren arabera sortuko dituzte taldeak: "Batzuk hutsetik hasiko dira, eta beste batzuek dagoeneko izango dute jakintzaren bat. Zenbat eta jende gehiagok izena eman, orduan eta talde gehiago eratu ahalko ditugu".

Gailu informatikoak segurtasunez nola erabili, Internet bidez egin daitezkeen tramiteak nola egin, ziurtagiri digitalak nola lortu eta nola kudeatu... Horiek dira irailetik ekainera bitartean izango diren ikastaroetan landu gura dituzten arloetako batzuk, eta dagoeneko gertu dituzte horretarako baliabide teknikoak: "Europatik heldu diren funtsei esker, hogei ordenagailu eramangarri eta pantaila digital bat dituen gela bat egokitu ditugu. Horretaz gain, wifi sistema sendoa jarri berri dugu". Modu horretan, ikastaroetan parte hartu gura dutenek, hasiera batean, ez dute euren partetik ezer jarri beharrik izango. Era berean, Lazkanok eta Olabek azaldu dute nork bere eskuko telefonoa edo tableta erabili nahi badu ez duela horretarako arazorik izango.

Begarako HHIren eremuaren barruan daude Oñatiko HHI eta Sorluzeko HHI ere, baina formakuntza digitala Bergarako egoitzan bakarrik emango da, Irizar jauregian. Dena den, oñatiarrek eta sorluzetarrek ere hartu ahalko dute parte.

Hasiera batean, ikasle kopuruarekin lotuta ez da mugarik egongo, beharren arabera giza baliabideen -hau da, irakasleen-finantzaketa bermatuta dagoelako. Ikastaroen ordutegiak, bestalde, zehazteke daude, horiek

ere sortzen diren talde kopuruaren arabera izango dira eta. Ahalik eta jende gehienarengana heltzeko asmoz, formakuntza digitala gaztekeraz izango da, baina euskal hiztunak bakarrik osatutako talderik balego, euskaraz eskaintzeko aukera ere mahai gainean dago.

Izen-ematea

Formakuntza digitalera bideratutako ikastaroetan izena emateko epea irailaren 2an zabaldu eta 15ean amaituko da. "Interesa duen edonork eman dezake izena; eskatzen den baldintza bakarra da 18 urtetik gorakoa izatea. Eta, noski, baita mundu digitalean trebatzeko gogoia izatea ere!", diote Lazkanok eta Olabek.

Izema emateko hainbat modu daude: batetik, *epabergara.hezkuntza.net* webgunearen bidez egin daiteke; eta, bestetik, Bergarako HHIk kudeatzen dituen hiru zentroak dauden lekuetara joanda: Bergarako Irizar jauregia; Oñatiko Larraña institutura; eta Sorluzen, Baltegieta kaleko 8. zenbakian dauden lokaletara.

HHI-K IRIZAR JAUREGIAN EMANGO DUEN FORMAKUNTZA DIGITALA DOAKOA IZANGO DA

55 URTETIK GORAKOEK LEHENTASUNA IZANGO DUTE IKASTAROETAN PARTE HARTZEKO



HHI
EPA Bergara Sorluzen Oñati

Bergara:
IRIZAR ETXEA
Baienkalera 33, 2
943 76 44 52

EPA BERGARA HHI

2023-2024 ikasturtea
Matrikula epea irailaren 1etik 15era

GAZTELANIA - IRAKURKETA eta IDAZKETA
DBH OINARRIZKO IKASKETAK - DBHrako prestaketa
LANBIDE HEZIKETARAKO SARBIDEA
DBHko GRADUATUA

FORMAKUNTZA DIGITALA - Oinarrizko informatika eta tresna digitalen ikastaroak

Posta elektronikoa: 012266aa@hezkuntza.net



Oñati:
LARRAÑA INSTITUTUA
San Lorenzo 2/g
943 78 35 77





Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



BERGARA JAUREGIA GOBIERNO VASCO



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

Urrunera heltzeko asmorik?

Iraila hainbat gauza erabakitzeke garaia izaten dugu; izan ere, oporren bueltan, ikasturte berriari ekin behar izaten diogu. Neuronak lasaitzeko aukera izango genuen gehienok, eta, nagiak ateratzea kostatuko bazaigu ere, orain adi egotea eta antolaketa egoki egitea dagokigu, ikastaroetan matrikula egiteko garaia izaten da eta. Bizitzako atal gehienetan aurrera egitea eta hobetzea izaten dugu gehienok helburu; ahalegintxo egiteko prest egon behar, baina, horretarako. Bizitza honetan hobetzeko bideei heltzeko eta pertsona gisa urrunera iristeko erabakia hartzea da egin dezakegun onena; eta bide horretan, arloren batean, behintzat, aurrera egin beharko genuke urtero, hilero, astero, egunero....

Hizkuntzak aurrerabide hori egiten lagungarri direla argi dugu guztiok aspaldian; are gehiago, bizitza

ZENBAT ETA GEHIAGOTAN EGIN, ORDUAN ETA GEHIAGO GOZATUKO DUGU


profesionalerako eta egunerokotasunean erosoago bizitzeko baliagarriak direnean. Hori da euskararen kasua; bizitza pertsonalean urrunago iristeko aukera ematen digu: zenbat eta gehiago

ikasi, orduan eta erosoago egingo dugu; zenbat eta gehiagotan egin, orduan eta gehiago gozatuko dugu; zenbat eta gehiago gozatu, orduan eta gehiago egingo dugu. Gorpil zoroa da: ikasi, erabili, gozatu, hobetu, erabili, gozatu... Euskaraz bizitzea gozamina dela probatzeko eskaintza egin nahi dizuet, beraz.

Euskararekin gozatzeko aukera ezin hobea izan dezazuen, laguntzaile eta bidelagun bikaina izan nahi du AEK-k, eta, horregatik, euskara hurbil izan dezazuen, eskaintza zabala egin du aurten ere. Gertuko irakaskuntza, hurbileko harremana, giro ezin hobea, erabilera praktikoa, eguneroko horri erantzuteko bidea elkarrekin eraikitzea... Hori guztia eskaintzen dizugu AEKideok; izan ere, euskara hurbil baduzu, urrun iritsiko zara, eta hori da gure helburua. Bidaia gurekin egiteko prest?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Itzulera

NEREA LOIOLA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/9CHTH](https://labur.eus/9CHTH)

Galdera entzun duenean, isilik geratu da une batez. Ez parekoak sekula entzun gabeko galdera bat egin diolako. Ez erantzunik ez daukalako. [...] Udara bukaeran galdera hauxe bera egin dioten hamaika alditan erantzun duena kontuan izanik, hiru dira aukera posibleak:

Ezetz erantzun diezaioke, ez dela lanera itzuliko; eta eszedentzian jarraituko duela gutxienez beste urtebetez. Erantzun hau presaz badabil edo parekoak interesik pizten

ez badio hautatzen du normalean. Berehala, irribarre zabala egin ohi zaio besteari, eta "ederra suertea" edo "ederki bizi zara" edo "nik ere hartuko nuke" moduko esaldiren bat esaten dio. Baietz esan eta irribarre inozo batez ihes egiten du.

Bigarren aukera denboraz ongi badabil eta/edo beste pertsona gertukoagoa baldin badu hautatzen duena da. Baietz erantzuten du orduan, behartu behar izaten duen irribarre erdia ahoan, lanera itzuliko dela: idazle lanera. Eta isilik geratzen da parekoaren erreakzioaren zain, bestearen aurpegiko keinu doietan ikusiz nola prozesatzen duen emandako

informazioa, nola oihartzaren den galdera modu horretan egitean egin duen hanka sartzeaz eta nola saiatzen den disimulatzen "a, ba, primeran" edo "zeinen ongi" edo "eta zer ari zara orain idazten?" moduko zerbait erantzunez. [...]

Azken aukerak, aldiro buruan izaten duen arren, ez du inoiz ahots kordetako bidea egin. Ez dio inori esan min ematen diola idazle lanari legitimitaterik ez emateak, izorratu egiten duela denek espero izateak uneren batean hura utzi eta bere *benetako* lanera itzuliko dela. Mingain puntan izan du askotan, baina ez da inori esatera ausartu. Gaur arte.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 18.500 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Iggy Popenak erakusten du euskarak ez duela mugarik"

ALEX ARTEAGA BIGRADE LOCO TALDEKO GITARRA JOTZAILEA

Julen Murua Mesonero BERGARA Ez-ohiko astea izan da Alex Arteagarentzat (Bergara, 1997). Brigade Loco-ko gitarra jotzailea da bera, eta astelehenean Iggy Popek *Bultzada* abestia bere BBCko irratsaioan jarri izanak, inoiz espero ez lukeen bitxikeria bat bizitzea eragin zion.

Nola iritsi zen berri hau zuen ahotara?

Astelehen gauean ordenagailuan laneko gauza batzuk egiten ari nintzen mugikorra hartu nuenean. Momentu horretan iritsi zitzaigun jakinarazpena eta mezu bat helbide elektronikora. Ezagutzen ez genuen esteka bat zen, ezagutzen ez genuen pertsona batek bidalitakoa. Hasieran ez nuen oso ondo ulertzen zer zen gertatzen ari zena; *play* botoiari eman nion eta lehenengo segunduan gelditu egin behar izan nuen ezin nuelako sinetsi hori guztia egia zela. Momentu berean, Manexek [Egaña], taldeko



Alex Arteaga, Bergaran, eguenean. ENEKO AZKARATE

bateria jotzaileak, taldera mezu bat bidali zuen esaten ez zuela ulertzen gertatzen ari zena.

Nola erantzun zenioten horren moduko oihartzuna izan zuen berri bati?

Lehenengo momentuan ez nuen sinisten hori bera gertatzen ari zela. Gero, *play* sakatutakoan, pentsatu nuen hurrengo izan zen ea pertsona hau nola demontre iritsi zen gure abestia ezagutzera.

Eta nola uste duzue iritsi zela?

Azkena Rock jaialdian egun berean eman behar genuen kontzertua Iggy Popek eta guk. Gure kontzertua, azkenean, bertan behera gelditu zen ekaitza zela eta, baina baliteke jaialdi hartan ezagutu izana Brigade Loco. Horretaz gain, *Aurrera doa* abestiaren hasieran *Trainspotting* pelikulako zati bat agertzen da, eta bertan hitz egiten ari den ahotsa Iggy Popena da. Ez dakit horrenbeste kuxkuxeatu duen ala ez, ez dut uste, baina bitxikeria handia, behintzat, bai da.

Gertukoenek nola erreakzionatu zuten?

Astelehen gauean ikusi genuen guk, eta gertuko jendeari idatzi genion soilik: gertuko lagunei, gurasoei eta anai-arrebei. Hurrengo egunean hasi zen jendea gertatu zenaz ohartzen sare sozialen bitartez, eta martitzen gauean mundu guztia aritu zen mezuak bidaltzen: laneko jendea, lehengusu eta lehengusinak, kuadrillako kideak...

"Ez dut ezer ulertu, baina gogorak dira"...

Hori esan zuen, bai. Guk letrek diotenari garrantzia handia ematen diogu; gustatzen zaigu abesti

bakoitzak mezu bat izatea, ahalik eta zuzenena. Iggy Popek esandakoak, baina, badu zeresana. Beti pentsatzen dugu euskara muga bat dela leku berrietara hedatzeko, baina nik uste dut hau dela adierazle bat erakusten duena posible dela musikarekin eta euskararekin transmititzea; gure paradisu txiki honetan hesi asko jartzen dizkiogu gure buruari, baina begira noraino iristeko gai izan garen.

Social Distortion taldearekin ere konparatu zintuzten...

Iggy Popen saioa pausoz-pauso entzuten ari nintzen, eta *Social Distortion*-ena esan zuenean pentsatu nuen guztia gezurra zela. Horrelako talde handi batekin konparatzeak, eta, gainera, talde hori guretzat eredu izateak ez du preziorik.

Horrelako "sari" bat jasotzeak lanean jarraitzeko gogo handitzen du?

Musika talde bateko kide zarenean eta disko baten gaineko kontzertu asko eskaintzen dituzunean gerta daiteke errutina baten sartzea. Iggy Popekin gertatu den honek indar handia ematen digu lanean jarraitzeko eta ikusteko egin dugun guztiak zerbaitetarako balio izan duela.



Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik.

Partida irailaren 24an, domeka, 14:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: irailaren 17a

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Omenaldiaz gain, tailer eta dokumentalak ere bai

Irailaren 26a egun seinalatua da Arrasaten, tropa frankistak 1936ko egun hartan sartu baitziren herrian; horren harira, 'Egiarekin topaketak' antolatu ditu Intxorta 1937 kultur elkarteak, Basque Children elkartearen eta Arrasateko Udalaren babesarekin

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE
Irailaren 26ra soilik mugatu beharrean, hilabete osoko egitaraua prestatu du aurten Intxorta 1937 kultur elkarteak, Basque Children elkartearen eta Arrasateko Udalaren babesarekin. "Aurten ere gogora ekarri gura dugu frankistak gure herrian sartu zirela eta mugarri horrek minez, heriotzaz eta suntsipenez betetako garaia markatu zuela. Asko izan dira azken urteetan egin ditugun omenaldiak, pertsona edo kolektibo ezberdinei erreferentzia eginez, eta, oraingoan, anbizio handiko programa bat antolatu dugu", dio Julia Mongek, Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak.

Tailer "berezi eta berri" batekin hasiko dute hilabete osoan luzatuko den egitaraua. Erresuma Batuko hainbat akademikok, Basque Children elkarteak eta zenbait artistak osatzen duten Belaunaldien Arteko Memoria-ren Transmisioaren Lantaldearen eskutik egingo dute tailer hori, belaunaldiz belaunaldi oroimena nola transmititu den aztertzeko. Monica Jato eta Judith Martinez Estrada izango dira gidariak. "Bi saio egingo ditugu. Goizekoan, gerrako umeak izandakoek hartuko dute parte; arratsaldekoan, berriz, gerrako umeen seme-alabek eta bilobek. Jasotako materialarekin, erakusketa bat egiten du Judithek eta, horretarako, parte-hartzaile bakoitzak objektu bat eraman beharko du, lanketa egiteko", adierazi du Mongek.

Hiru dokumental eta omenaldia
Halaber, iaz Donostiako Zinemaldian aurkeztutako bi dokumental ikusteko aukera ere egongo da, torturaren gaia jorratzen dituztenak: *Bi arnas* eta *Karpeta urdinak*. Proiektzioen ostean, gainera, zuzendariarekin egon eta galderak egiteko aukera egongo da (Ikus egitaraua).



Julia Monge, Nati Roa, Juan Ramon Garai eta Maider Morras. TXOMIN MADINA

Irailaren 26an, azkenik, lore eskaintza egingo dute eta, ostean, azken dokumental baten proiektzioa izango da. "Britainia Handian babestu ziren Gernikako haurrei buruzkoa da, eta Basque Children elkarteko kide den

Manuel Moreno egongo da saioan", azaldu du Mongek.

Maider Morras alkateak eskerak eman dizkio Intxorta 1937 kultur elkarteari, egiten duen lanagatik, eta ekintzetan parte hartzeko dei egin du.

Ur-sareko kontagailu guztiak digitalizatuko ditu Udalak

Astelehenean hasiko dituzte lanak eta lau urte iraungo dute; lehen fasean 3.051 kontagailu aldatuko dituzte

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Udalak urrats bat gehiago emango du "digitalizazioz", baita udal kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko bidean ere, Udal Gobernuaren esanetan. Izan ere, astelehenean hasita, ur-kontagailuak digitalizatzen hasiko dira. "Digitalizazioz urrats bat gehiago ematez gain, ur-kudeaketaren eraginkortasuna eta kudeaketa horri loturiko izapideak erraztea lortuko dugu. Hau da, kontagailuen aldaketarekin errazagoa zein azkarragoa izango da, esaterako, ur-kontaketak egitea, aberiak identifikatu edota kontopontzea", dio Kepa Urteagak, Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak.

Helburua "etengabeko hobekuntzaren bidean aurrera egiten jarraitzea" izanik, ur-kontagailuen aldaketa "urrats garrantzitsua" izango dela adierazi du Urteagak. "Ur-sareari loturiko alderdi oro digitalizatuta egongo da eta horrek, eraginkortasuna eta bizkortasuna ekarriko ditu kudeaketan".

Kontagailu berriei abantaila asko izango dituztela gaineratu du zinegotziak. "Uraren

erabilera arduratsua bat eragin dezake herritarren, aurrerakia ere sortuz. Era berean, ur-sarean arazo bat badago, errazagoa eta azkarragoa izango da honen identifikazioa eta, ondorioz, baita konponketa ere, eta, besteak beste, ur-isuriak edo galerak murriztea lortuko dugu. Horrek guztiak, noski, ingurumenean ere izango du eragin positiboa, kudeaketaren eraginkortasunak eta arazoaren saiheste edo murrizketak ingurumenaren mesedetan joango baitira".

Inolako kosturik gabekoa

Fasez fase egingo dituzte lanak eta lehen fasean 3.051 kontagailu aldatuko dituzte. Group enpresak egingo ditu aldaketak eta, horretarako, enpresako kideak harremanetan jarriko dira herritar edo jabekideen, komunitateekin hitzordua adosteko. "Aldaketak, noski, ez du inolako kosturik izango herri-tarrentzat".

Zalantzak argitu edota hitzordua ziurtatzeko 943 81 22 44ra deitu beharko da, edo ura@klidat.com helbidera idatzi (Informazio gehiago, Goiena.eus-en).

Irailerako prestatu duten egitaraua

IRAILAK 11, ASTELEHENA

• **10:00-13:00 eta 17:00-20:00** Tailerrak: *Belaunaldien arteko zaintza. Gerra umeak*. Monica Jatoren eta Judith Martinez Estradaren eskutik.

IRAILAK 14, EGUENA

• **18:30** *Bi arnas* dokumentalaren emanaldia, Juan Arzamendi Musika Etxean. Ostean, Jon Mikel Fernandez Elorza zuzendariarekin solasaldia.

IRAILAK 21, EGUENA

• **18:30** *Karpeta urdinak* dokumentalaren emanaldia, Juan Arzamendi Musika Etxean. Ostean, Ander Iriarte zuzendariarekin solasaldia.

IRAILAK 26, MARTITZENA

• **18:30** Omenaldia eta lore eskaintza, Arizmendiarieta plazako monolitoan (dantzariak, txistulariak, abesbatza...).

• **19:00** *Gernikako haurrak*: *Britainia Handian babestu ziren Gernikako haurrak* dokumentalaren emanaldia, Juan Arzamendi Musika Etxean, Manuel Morenoren eskutik.

Ikasturtea hastear dira ludoteketan eta gazte txokoetan

Irailaren 11n irekiko dituzte atea Okendo, Santamaña eta Usaetxe-ko ludotekek, astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara. Era berean, irailaren 29ra arte ate irekien jardunaldiak izango dituzte. Auzoetako gaztetxoak, berriz, irailaren 12an zabalduko dituzte, martitzenetik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara eta 12 eta 17 urte artekoak eskainiko diete zerbitzua gune horietan. Azkenik, nerabeei zuzendutako aisaldi eskaintza gaztelektik bideratzen da (tren geltoki zaharra). Irailaren 15ean irekiko dute, 18:00etan, eta astebururo egongo da erabilgarri –egubakoitzetan 18:00-21:00 eta zapatu eta domekan 17:00-21:00–.

OHARRAK

Erromes bidea

PR-Gi 106 Arrasate–Arantzazu Erromes bidea egingo dute domekan, 09:00etan Herriko Plazatik irtenda. Izena eman behar da aurrez, udal webgunean.

Anporretako bira

Irailaren 17an, PR-Gi 205 Anporretako bira (Burdinaren bidea) egiteko aukera egongo da, 09:00etan plazatik irtenda. Hemen ere aurrez eman beharko da izena, udal webgunean.

Besaide Eguna

Irailaren 17an egingo dute oroimen eguna, Orixol Mendizale Elkartearen eskutik (Ikus 13.orria).

"Indarrez, maitasunez eta askatasunez" datoz

Irailaren 16an egingo dute Aurrera Bolie eguna, bigarren. "Joan den ikasturtean egindakoari balioa eman eta hurrengokoan *bolie* mugitzen jarraitzeko elkartuko gara", diote; egun osoko egitaraua izango da eta bazkarirako tiketak salgai daude dagoeneko

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Indarra, maitasuna eta askatasuna izan dira aurtengo Aurrera Bolie eguna ezaugarritzeko aukeratu dituzten hitzak. "Sentimenduak, ametsak eta errealitatea biltzen dituzten kontzeptuak, aurrera egiteko beharrezko ditugun heldulekuak eta hemen gaudenok osatzen dugun komunitateak berezko dituen ezaugarriak", adierazi du Larraitz Trojaolak, Aurrera Bolie herri ekimeneko kideak.

Iaz oroimena landu ostean, azken urtebete honetan, "konpromisoa, elkartasuna, abertzaletasuna eta balio ezkertiarak" oinarri hartuta, esparruz esparru eragiten aritu direla nabarmendu du Trojaolak: "Euskarenen aldeko borrokan, feminismoan, preso eta iheslarien etxeratzean, kulturgintzan, erabakitze eskubidean, bizi eta lan baldintzen esparruan, udalgintzan, hezkuntzan... Fiktionean, herrigintzan".

Hala, iazkoari balioa eman eta *bolie* mugitzen jarraitzeko elkartuko dira hilaren 16an. "Es-kaintza politikoa eta soziala uztartuta, hausnartzeko, aldarrikatzeko, elkartzeko eta gozatzeko eguna ospatuko dugu".

Egun osoko egitaraua

11:30ean, bermut politikoa egingo dute Irati Topalekuan, Sorkutuko David Pla, LABeko Maddi Isasi eta Ernaiko Beñat Jusueren eskutik, *Hitza eta bizitza herria egiteko* izenburupean, Biteri plazan haurrentzako jolasak izango diren bitartean; 14:30ean bazkaria egingo dute -tiketak salgai Irati tabernan, astelehenera arte-; 16:30ean, Izadi eta Peru, Añube, Peru Altube eta Iratiz Agirre, Biterin; 18:30ean, *Hitz Esana* poesia emanaldia Iratin, Mejillon Tigre kolektiboarekin; 22:00etan, kontzertuak gaztetxean, Mc Onak, TOC eta Virgin Mari taldeekin -sarrera 5 euro izango da, 21:30tik aurrera-.



Eguaztenean egin zuten eguna iragartzeko agerraldia, Biteri plazan. E.A.B.

NIRE USTEZ



ANE SANCHEZ ZEZIAGA

Harresia

Egun zeharkatzen dugun Arrasate zehazki gure arbasoek behin ezagutu zutena izan ez arren, bere sorkuntzan eman zitzaion Erdi Aroko eredu urbanistiko tipikoa mantentzen du herriak. Erdialdea inguratzen duen harresiak historiaren erlojua bertan geldirik lagatzea lortu duela dirudi. Bi eraikuntza nagusiren inguruan -udaletxea eta parroikia- altxatzen den elipse itxurako alde zaharra herriaren bihotza dugu. Dena den, harresiaren inguruko aldaketa eta transformazioak gure komunitateak urteetan izandako garapenaren erreflexua dira.

XIX. mendean, harresia sei ate ezberdinetatik gurutzatu zitekeen. Gaur, aldiz, hiru baino ez daude zutik. 1780. urtera arte, erdigune historikoaren elementu arkitektoniko emblematikoa dena, Portaloia, egun desagertuta dagoen Gazteluondoko arkuia izan zen. Garaiko herritarren nahieran, arku dotoreena tokirik adierazgarrienera eramatea erabaki zen. Gaur egun, bere azpian hirigune primitiboa inguratzen zuen antzinako hesi perimetralaren oroigarri gisa, "Harresi ezkutua" eskultura daukagu.

hospo eguna

Irailak 07, 08 eta 09

Irailak 07
Arrasateko
Trikitixa
Eskolako
trikitilarien
kalejira
Kaleetan zehar

Irailak 08
17:00 etatik aurrera 1 eta 6 urte bitarteko haurrentzako jarduerak izango dira Herriko Plazan Kids & Us-en eskutik

18:00 **TRIKIGIN** HERRIKO PLAZAN

- Kalejira Arrasateko Trikitixa Eskolatik plazara.
- Animatzen diren trikitilariak abesti ezberdinak joko
- Gin Tonic lehiaketa
- Kalejira Herriko Plazatik Portaloira

19:30

20:00 **Xabi Solano Maiza**
Kontzertua Portaloian

Irailak 09
O Val Das Moura
Kontzertua
Herriko Plazan

18:00 etatik aurrera

Establezimendu bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu deitu 688 73 41 49 telefonora

Merkakua

Stock azoka
ARRASATE

IRAILAK 07 / 08 / 09

Ostegun eta ostirala (07 eta 08): 16:00-20:00
Larunbata (09): 10:00-14:00 / 17:00-20:00

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

ibai-arte

Arrasateko merkataritza elkarte

Esateki, azalera, hiru comin

EURO INFLUENTIA SORBITENOS VASCO



2021ean egindako *Haurren aurrean helduok heldu* ariketako amaierako festa Biteri plazan. IMANOL SORIANO

Bueltan da 'Haurren aurrean helduok heldu'

Umeekin harreman zuzena duten helduen aktibazio ekimenaren bigarren edizioa antolatu du Topaguneak urriaren 19tik 29ra. Geikek bilera irekia deitu du eguaztenerako 18:00etan. Zaintza zerbitzua egongo dela jakinarazi dute

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE Euskaltzaleen Topaguneak 2021ean aurkeztu zuen *Haurren aurrean helduok heldu* dinamika eta ekimenaren bigarren edizioa izango da aurten. 0-12 urte bitarteko umeekin harreman zuzena duten helduen sentsibilizazio eta aktibazio dinamika da. Euskaraldian bezala, helduak dira hizkuntza-ohiturak astintzeko interpelatuak. Baina, *Haurren aurrean helduok heldu* dinamikan helduen arteko hizkuntza portaerek umeengan duten eraginari sakontasun gehiagorekin erreparatzen zaie. Hala, heldu horien saretzea eta ahalduntzea sustatzea da helburuetako bat.

Bilera irekia eguaztenez

Arrasateko euskalgintzako eragileak batzen dituen Geike lankidetzak mahaiak bilera irekia deitu du eguaztenerako, hilak 13. Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango da, 18:00etan. Zaintza zerbitzua egongo da. Intere-

satuek martitzen eguerdia baino lehen eskatu behar dute txatxilipurdi@txatxilipurdi.eus helbidera idatzita. "Bilera ireki horren helburuak bi dira. Alde batetik, ariketaren berri ematea eta, bestetik, Arrasatera nola ekarriko dugun batera lantzea", azaldu du Geikeko ordezkari Itxaro Artolak. "Ariketaren funtsa zehatza da -data, nori zuzenduta dagoen, leloa...-, eta hezurdura berdina izango du herri guztietan, baina ekimena bera nola gauzatu edo girotu nahi dugun gurasoekin batera elkarlanean lantzea da asmoa".

Batzarra zuzenduta dago 0-12 urte bitarteko umeekin harreman estua duten helduei. "Arrasateko kasuan lehenetsi ditugu ger-

GEIKEK GURASOekin ELKARLANEAN LANDU GURA DU, EKIMENA NOLA GAUZATU EDO GIROTU ARRASATEN

tuko harreman afektiboak -gurasoak, familiak eta gertuko zaintzaileak-. Helburua da heldu horien artean euskararen erabilera bultzatzea, batetik, eta umeekiko erreferentzialtasuna hobetzea, bigarrenik. Umeek, zer ikusi hura ikasi, eta hizkuntzaren arloan helduok eredu izan behar dugu".

Lehen edizioan ikasitakoak

2021ean egin zen lehen aldiz *Haurren aurrean helduok heldu* ekimena. "Azaroan egin zen eta euria izan genuen hiru astez jarraian. Esperientzia gazi-gozoa izan zen alde horretatik", gogoratzen du Artolak. Balorazioa, dena den, positiboa izan zela azaltzen du. "Gurasoekin alde aurretik egindako saioetan ikusi genuen gaiarekiko benetako kezka dagoela eta egoerari buelta emateko motibazioa eta prestutasuna badaudela. Hasiere-hasiere ikusi genuen ekimena aurrera eramateko prestutasun handia".

'Go!azen' eta EH Sukarra Elmako jaietako plater nagusi

Saguzarraren gaurko jaitzierarekin abiatuko dira jaiak eta askotariko ekintzak izango dira domekara bitartean

L.Z.L. ARRASATE

Elma auzoan prest dituzte jaiak. Iaz moduan *Go!azen* telesaileko protagonisten emanaldia izango da ekitaldi nagusietako bat. Ikuskizuna gaur da eta 20:00etarako iragarri dute. Sarrera doan da. Aurretik, 19:00etan, saguzarraren jaitziera egingo dute jaiari hasiera ofiziala emanez. DJ Markel Goikolearen saioarekin luzatuko da gaua.

Bihar, zapatua, 11:00etan hasiko da festa. Puzgarriak, bolo-boloa, bazkaria, Txintxurretaren kontzertua eta 21:30ean

zezen suzkoa izango dituzte Elman. Ondoren helduko da jaietako bigarren plater nagusia; EH Sukarra taldearen emanaldia, 22:30ean. Jaiak domekan amaituko dira. Erraldoiak, paella jana eta Txan magoaren emanaldia izango dituzte.

Erguinen, hurrengo astean

Erguinen hurrengo asterako iragarri dituzte jaiak. Egubakoitzean, esaterako, Etxepe, Mutiko, Tata eta Denso; Youth United eta Eten taldeen kontzertuak egongo dira.

AEDk 40. urteurrenako materiala du salgai

Elkartea sortu zela 40 urte betetzen diren honetan, urteurrenarekin lotutako materiala du salgai AEDk. Umeen kamisetak (10 euro), helduen kamisetak (15 euro), poltsak (5 euro) eta botilak (10 euro) atera dituzte. Materiala AEDren bulegoan zein horretarako propio ahalbidetutako estekaren bitartez eskura daiteke. Horrekin batera, salmenta postuak jarriko dituzte Portaloian iraileko eguenean eta egubakoitzean, 18:00etatik 20:00etara. Hainbat auzotako jaietan ere izango dira. Elmako jaietan, gaur 18:00etatik 20:00etara eta domekan 12:00etatik 14:00etara. Hilaren 15ean, berriz, Erguineko Usaetxe plazan.

1956 eta 1965 urteetan jaiotako kinto-ospakizunak

1956an jaiotako arrasatearrek Guardiara egingo dute irteera hilaren 30ean. Trikuharrien Ibilbidea egingo dute eta ondoren Hotel Silken Villa de Laguardia hotelean bazkalduko dute. Joan nahi dutenek 75 euroko ordainketa egin beharko dute, izen-abizenak jarri, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0202 76 2021046272.

1965an jaiotakoek, berriz, hilaren 16rako antolatu dute bazkaria Hamalau tabernan. 13:00etan elkartuko dira bertan. Interesatuak 75 euroko ordainketa egin beharko dute Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0055 17 0551058385. Izen-abizenak jarri behar dira.

23 saltoki bihar arte luzatuko den Merkemerkauan

Atzo, eguna, izan zuen lehenengo eguna Merkemerkauan. Arrasateko kaleetan bistakoa da merkatarien ekimena. Ohikoa dutenez, Ibai-arte merkatariek kalera atera dituzte udaberri-udako produktuak eta bezeroek aukera dute produktuak prezio merkeagoan eskuratzeko. Establezimendu aurrera edo komertzio guneetara atera dituzte

azken kanpainako produktuak "prezio ezin hobean". Askotari-koak daude gainera: moda, lenteria, jostailuak, osagarriak, oinetakoak, ilerako produktuak...

Gaur da Merkemerkauaren bigarren eguna eta atzoko ordutegi berdina izango du; 16:30etik 20:00etara.

Bihar, zapatua, goiz eta arratsaldeko jarduna izango du Merkemerkauak eta azken eguna izango da. Ordutegia izango da: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

'Pitxi' txapelketa beti bezain berezi dator

Leizaran talde andoaindarreko bost talde hurbilduko dira Iturripera bihar, larunbata, eta Arrasateko beste bost talderen aurka neurtuko dituzte indarrak. Eskubaloi partidei baino, egunaz gozatzeari ematen die garrantzia antolakuntzako kide guztiek

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Urteroko legez, aurten ere 'Pitxi' txapelketa antolatuko du Arrasateko eskubaloi taldeak, bihar, hilaren 9an. Egundeko egitaraua antolatu du klubak eta goizeko 10:00etan hasi eta gaur arte eskubaloi partida ezberdinak jasoko ditu Iturriperako kiroldegia.

Urte dezentez antolatu du Arrasateko eskubaloi klubak *Pitxi*-ren omenezko txapelketa hau, eta "urtero izaten duen harrera ona" aurten ere errepikatzea espero du Ane Herrerok, klubeko kideak.

Leizaran taldeak jokatu dituzten zapatuko neurketak aurtengo edizioan, eta, Herrerok, talde horrekin duten "harreman ona" nabarmendu eta "txapelketan parte hartzeagatik eskerrak" eman nahi izan dizkio talde andoaindarri.

Goizetik gauera arte

Goizeko 10:00etan jokatu dute infantil nesken taldeek lehenengo partidua, eta, ostean, kadete neskek eta junior neskek joka-

tuko dituzte haien neurketak. Eguerdiko geldialdi baten ostean, mutilen txanda izango da: junior mutilek jokatu dute 16:00etan, eta senior mutilen partiduekin amaituko dira Arrasateko eta Andoaingo taldeen arteko partiduak, 17:45ean.

Eguna da inportantea

Egunarekin amaitzeko, 19:30ean, Arrasateko eskubaloi taldeko jokalariek ohiek neurtuko dituzte indarrak beraien artean jokatuko duten partiduan.

Ane Herrerok aitortu du eskubaloi mailari baino gehiago, egunari berari ematen diotela garrantzia: "Taldeak denboraldi-aurrean daude eta badakigu Iturripen ikusiko den eskuba-

**ESKUBALOIAZ
GOZATZEA ETA GEROZ
ETA JENDE GEHIAGO
ERAKARTZEA NAHI
DUTE SAILEKO KIDEEK**

loi maila ez dela urteko handiena izango. Hala ere, egun honekin ez dugu hori bilatzen, eskubaloi *Pitxi*-k maite zuen beste maite duen jendea elkarrekin eta guztion artean egunaz gozatea baizik".

Gazteenei gonbita

"Maila guztietan gizezkoen eta emakumezkoen talde bat" izatea nahi izaten dutela dio Herrerok, baina urtero "zailtasunak" izaten dituztela taldeak eratzeko. Aurten ere "egoera berdinean" daudela aitortu du eta, ondorioz, "gazteenei eskubaloiari jokatzeko gonbita" luzatu gura izan dute klubeko kideek.

Bereziki, 2007 eta 2011 urteen bitartean jaiotako gazteei luzatu nahi izan die eskubaloiari jokatzeko deia, adin tarte horretan baitaude taldeak eratzeko zailtasunik handienak: "Maila batzuetan jokalariz labur gelditzen gara, baina espero dugu talde guztiak eratu ahal izatea".



Uxue Azkue eta Nahia Irazola entrenamendu batean. DRAGOI GIMNASIA TALDEA

Europako hoberenen aurka jokatzeko diru-laguntza beharra

Europako txapelketak dakarren gastuei aurre egiteko laguntza eskatzen dute Nahia Irazola eta Uxue Azkuek

J.M.M. ARRASATE

Azaroan jokatu dute Turkian Nahia Irazola eta Uxue Azkue arrasatearrek gimnasia aerobikoko Europako Txapelketa. Herrialde askotako talderik onenak batuko dituen txapelketa da, eta "udatik entrenatzen buru-belarri" aritu direla diote arrasatearrek. Aurretik estatu mailako txapelketetan parte hartu izan duten arren, "horrelako maila duen txapelketa batean" parte hartuko duten lehenengo aldia izango da Irazola eta Azkueentzat.

Diru-laguntza beharra

Maila horretako txapelketan parte hartzeak dakar ekonomikoki esfortzu handia egin beharra. Aitortu dute klubak ez duela "nahikoa diru txapelketako gastu guztiak ordaintzeko", eta beraz, "diru-laguntza baten beharrea" daudela. Bidaiak, estantzia, materiala, lizentziak...

asko dira ordaindu beharreko gastuak, eta arrasatearrek diote "gastu horiek guztiak ordaintzeko laguntzak bilatzen" ari direla.

Edozein diru-laguntza "asko eskertuko" luketela ere adierazi dute; edonork bere aletxo jarri nahiko balu, beraiekin zuzenean kontaktuan jarri edo klubarekin kontaktuan jarri beharko litzateke.

Azken orduko lesioa

Udan zehar taldekide batek belaunean min hartu zuen eta ezin izango du txapelketan parte hartu. Hori dela eta, ordezko batekin jokatu beharko dutela diote gimnastek: "Triste gaude txapelketan parte hartu ezin izango duen taldekideagatik. Hala ere, gogo askorekin goaz Turkiara eta daukagun guztia emango dugu maila on bat eskaini eta etxera pozik itzultzeko".



Joan den urteko *Pitxi*-ren omenaldian eskubaloi jokalariek. GOIENA

Desoreka judo taldean izena emateko epea irekita

Denboraldi berriari hasiera eman dio Desoreka judo taldeak eta, oraindik, irekita jarraitzen du bertako kide izateko izen-emate epeak. Adin tarte ezberdinak aintzat hartuta, talde ezberdinetan banatu dituzte neska-mutilak: haur hezkuntzako taldean, lehen hezkuntzako taldean eta gazte eta helduen taldeetan izango dute parte hartzeko aukera.



"Trikitilaritzaren etorkizuna oparoa da"

XABI SOLANO TRIKITILARIA ETA ABESLARIA

Hiru egunetako egitaraua du Hauspo Egunak eta, gaur, 20:00etan, Xabi Solanok eskainiko du kontzertua Portaloian bere ibilbidean zehar sortutako abestiak joaz

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Hauspo eguna dela eta eskainiko du kontzertua Xabi Solanok (Hernani, 1978) Portaloian, gaur 20:00etan. Trikitilari asko batzen dituen eguna da eta, hori aitzakia hartuta, trikitilaritzaren egoeraren inguruan eta haren proiektuen inguruan mintzatu da Solano.

Trikitizale asko batuko dira Hauspo Egunean, gogotsu?

Egia esan gogo askorekin nago eszenatokira igotzeko. Nire ibilbidean zehar jo izan ditudan kantak joko ditugu bertan, Zigor, DJa eta ni izango gara eta *sound system* modura arituko gara.

Zelako harrera espero duzu?

Duela zazpi bat urte izan nintzen, azkenekoz, Arrasaten, eta itzultzeko gogotsu nago. Harrera oso ona izatea espero dut; izan ere, Arrasaten trikitia asko entzuten da, ikasle asko daude, eta trikiti eskolak, bereziki, indartsu daude. Gainera, ostirala izanda, giro oso polita sortuko dela uste dut.

Horrelako egunak antolatzeak zer nolako garrantzia du trikitiari dagokionez?

Oso garrantzitsua iruditzen zait. Gainera, orain neska-mutiko gazteenek ikasturtea hasten dute eta ikastolaz kanpoko ekintzak aukeratu behar dutenean, bali-



Xabi Solano, haren kontzertu batean.

Hauspo Eguneako egitaraua

Xabi Solanok eskainiko duen kontzertuaz gain, Hauspo Eguneako egitaraua beste ekintza askoz osatuta dago, denek, gainera, trikitia eta musikarekin lotura zuzena dute.

Gaur, 17:00etan, txikienek jarduera ezberdinak izango dituzte Herriko Plazan *Kids & Us* akademiak antolatuta –urte 1 eta 6 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta egongo da–. Horren ostean, 18:00etan, Eskola Plazara egitasmoaren baitan, Arrasateko Trikitixa Eskolak eskola bertatik plazara antolatu du kalejira. Ostean, animatzen diren trikitilari guztiek abestiak jotzeko aukera izango dute, eta azkenik kalejira herrikoia izango da Herriko Plazan hasi eta Portaloiraino. Bihar, 19:30ean, O Val das Moura taldeak eskainiko du kontzertua Herriko Plazan.

teke horrelako egunek trikitiari jakin-mina piztea gazteenengan. Herriko plazara gerturatu eta hor ikusiko dute ume txikienek ea gustatzen zaien soina, itxura eta trikitiak dakarren gainontzeko guztia. Ea gogo sortzen zaien, zoragarria izango litzateke. Bestalde, gurtzat ere, trikitilariontzat, egun handia izaten da, trikiti-jole asko hurbiltzen da bertara eta adi egoten dira norberak egiten duen guztira.

Nola ikusten duzu trikiti eskolen gaur egungo egoera?

Nik uste dut oso ondo dagoela. Iruditzen zait indartsu dagoela, azken urteetan, bereziki, sendotu egin dela uste dut. Egia da bere garaian Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider eta bestelako taldeak sortu zirenean izugarriko eztanda izan zuela trikitiak, eta gorakada benetan nabarmena izan zela. Urte batzuk geroago, aldiz, jaitsi egin zen zertxobait apar hori, baina azkeneko urteetan berriro ere izan du gorakada. Gainera, kasu honetan esango nuke goian mantentzen ari dela; jendeak ikusi du trikitia ez dela instrumentu bakarra, baizik eta beste instrumentu batzuekin ere nahastu daitekeela, eta instrumentua bera jotzen ikasteko ere modu ezberdinak daudela. Beraz, nik uste dut, orain bertan, toki apal batean dagoela; indartsu.

Eta etorkizuna?

Egia esan nik beti etorkizuna oparoa izango dela pentsatu dut. Bederatzi urterekin hasi nintzen trikitia jotzen, eta, orduetik, harekin murgilduta egon da nire bizitza; beti pentsatu dut etorkizuna ona izango dela.

Zer iritzi duzu euskal musikaren egoeraren inguruan?

Gaur egun kanpoko musika asko entzuten da, orain dela urte batzuk ere entzuten zen, baina musika latindarra gogor sartu da. Iruditzen zait oso zaila dela hortik irtetea, baina uste dut bertan lekutxo bat aurkitzen saiatu behar garela, bereziki, euskara bultzatzeko; eta, horretarako, lehenengo etxetik hasi behar gara.

Zein proiektutan zaude murgilduta gaur egun?

Orain bertan Los Angelesen egon naiz Esne Beltzaren disko berria grabatzen Rafa Sardinarekin batera. Joan den urtean hasi ginen lanean, eta dagoeneko tunelaren amaieran argia ikusten hasi gara, beraz Durangoko Azokan bertan izango da disko berria. Irailean zortzi bat kontzertu eskainiko ditugu, urrian beste sei edo zazpi, eta horren guztiaren ostean diskoan murgilduko gara guztiz. Nire proiektu propioari dagokionez, momentuz geldirik nago. Aurtun Londresen izan naiz, Euskal Jaian, eta gero tarteka egiten ditut horrelako saio txikiak. Ez duk guztiz geldik gelditu nahi, badaukat nire proiektuarekin aritzeko gogo eta horrelako saioek bizirauten laguntzen dute. Esne Beltzarekin amaitu eta gero honekin etorriko naiz bueltan zerbeit berria ateratzeko. Bitartean, taldearen diskoarekin jarraituko dut eta espero dut hilabete honetan bertan *single* berria argitaratuta izatea.

"TRIKITI ZALE ASKO DAGOELA ETA TRIKITI ESKOLAK INDARTSU DAUDELA IRUDITZEN ZAIT GAUR EGUN"

Zeramika eta pintura ikastaroak egongo dira eskuragarri

Pinturaren eta zeramikaren ezagutzak handitzeko ikastaroetan parte hartzeko aukera izango da

J.M.M. ARRASATE

Irailaren 18an hasi eta urriaren 26a bitartean antolatu ditu Loixe taldeak zeramikako ikastaroak. Arrasateko Kulturolako egoitza berrian izango dira ikastaro horiek guztiak. Bi maila

ezberdin egongo dira; alde batetik, hastapen taldea eta, beste alde batetik, trebatze taldea.

Ikastaro hauen helburua izango da zeramika prozesuak ezagutzeko eta teknika ezberdinak lantzea –zerotik hasita edo pro-

zesu horietan sakonduta–; amaieran bakoitzak proiektu propioa sortzeko.

Pintura ikastaroak

Zazpi urtetik gorako gazteentzat zuzenduko ditu Arrasateko Udalak pintura ikastaroak. Irailaren 25ean hasiko dira ikastaroak Kulturateko pintura gelan. Izena emateko epea hilaren 18tik 20ra irekiko da; Kulturateko pintura gelan, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara izango da bertan parte hartzeko aukera.

Goikobalu ikasturte berriari hasiera emateko prest dago

Goikobalu Abesbatzak irailaren 14an emango dio hasiera 2023-2024 ikasturteari; Juan Arzamendi Musika Etxean izango dira eskolak. Goikobalu Izartxoak taldearen eskolak egunetan izango dira 18:00etan hasi eta 18:45ak arte. Goikobalu Txiki taldearenak berriz martitzen eta egunetan 18:45ean hasi eta 19:30ak arte izango dira.

Assata taldeak bailaran eskainiko ditu kontzertuak

Assata musika talde arrasatearrak haien *Oasia* diskoa aurkeztuko dute irailean zehar. Gaur bertan eskainiko dute lehenengo kontzertua Udala auzoko Larrinetxe jatetxearen aurrean. Hilaren 16an Aretxabaletan izango dira, Txarapeako jaietan, eta, azkenik, 29an, Arrasatera itzuliko dira, Garagartzako jaietan kontzertua jotzeko.



Unai Osoro, ASEko presidentea, prentsaren ondoan. A.E.G.

Makineria prest dute zukua egiten hasteko

Mendixolako zentroa irailaren 16an zabalduko du ASEk. Bi pertsona kontratatu dituzte sagar kanpainarako, hurrengo bi hilabeteetarako. Zukua edo sagardoa egiteko txanda hartu nahi duenak 644 93 46 03 telefonora deitu beharko du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaioko Sagarzalien Elkarteak (ASE) dena prest du irailaren 16an Mendixolako zentroa zabalteko. Sagar-zukua egiteko txandak eska daitezke dagoeneko 644 93 46 03 telefono zenbakian. Behin sagarrei euren zukua aterata, erabiltzaileak erabakiko du etxera eramatea sagardoa egiteko edo sagar-zukua egitea zentroan bertan.

700 kiloko dolarea

Mendixolako dolarea erabiltzeko, gutxienez 700 sagar kilo izatea gomendatzen dute. Edonork erabil dezake prentsa; izan ASEko bazkide edo ez. Alde bakarra prezioan egongo da – bazkideek merkeago egingo dute zukua-. Hain zuzen, elkarrearen nahia bazkide gehiago egitea da. "Gaur egun 20 bat bazkide gara elkartean; ez bakarrik Aramaiokoak, baita Aretxabaleta-koak edota Arrasatekoak ere", azaldu du elkarteko kide Etor Goikoetxeak. Aramaioarrak eta

inguruko herrietakoak animatu nahi dituzte sagarzaileen elkarteko bazkide egitera.

Zukua egiteko

Behin sagarrak garbitu, dolaretik pasa eta zukua atera ondoren, zuku hori Mendixolako zentroan bertan duten makinetan pasteurizatu daiteke –zukua 80 gradutara eramatea da-. Zukua boti-

letan sartzeko aukera ere bada go Mendixolan bertan.

Dolarea erabiltzearen ordaindu beharrekoa da: bazkideek, prentsa 0,22 euro litroko, pasteurizazioa 0,23 euro litroko, botila 0,50 euro, tapa 0,15 euro, botila bukatuta 1,10 izango litzateke, eta apatxa han uztea 8 euro; ez bazkideen kasuan, prentsa 0,42 euro litroko, pasteurizazioa 0,43 euro litroko, botila 0,50, tapa 0,15; bada, botila bukatuta 1,50 euro izango litzateke. Kasu horretan ere, apatxa han uztea 8 euro izango litzateke.

Bi langile egongo dira

Hilaren 16an hasiko da kanpaina eta hilabete eta erdi edo bi hilabete iraungo du. "Bi langile kontratatu ditugu kanpainarako", dio ASEko presidentea Unai Osorok. 700 kilo sagarrekin 400 bat litro zuku ateratzen dela dio Osorok. Gainera, aukera dago zukuaren zati batekin sagardoa egiteko eta beste zatia zuku moduan uzteko.

Sagar urtea izan da

Sagarrondoak bi urtetik behin ematen du sagarra ganoraz; bada, aurren, sagar urtea da. laz, esaterako, Mendixolan bi prentsa besterik ez zuten egin. 2021ean, aldiz, 30.000 litro egin ziren: 10.000 sagardoa eta 20.000 zukua.

Irailaren 17an izango da Besaide Eguna, Orixolen eskutik

2023ko Oroimen Eguna ospatuko dute, goiz guztiko festarekin, Besaide tontorraren inguruan

A.E.G. ARAMAIO

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako mugan, hildako mendizaleak oroitzeko ekitaldia egiten dute urtero: Besaide Oroimen Eguna. Bada, aurtengo ekitaldia antolatzeko ardura Aramaioko Orixol Mendizale Elkarteak izango du. Euskal Mendizale Federazioarekin elkarlanean goiz guztiko egitaraua antolatu dute.

Mendizaleak oinez igoko dira Besaidera; han, 10:30ean, txalaparta saioa izango dute. 11:00etan oroimen ekitaldi zibila egingo

dute hildako mendizaleen oroimenez, eta 11:30ean Euskal Mendizale Federazioko lehendakariak hartuko du hitza: Zigor Eguiak. 12:00etan dantzariak eta txistulariak girotuko dute Besaide, eta ondoren Alaiak erretiratuen elkarteko abesbatzak abestuko du. Jana eta edana ere egongo da goizean zehar.

Orixol mendizale elkarteak beste hitzordu bat ere izango du irailean: mendi martxa. Oraindik ez dute zehaztu egitarau guztia, baina laster emango dute informazio gehiago.



IMANOL SORIANO

Marixeka Eguna, kantuz alaitua

Eguraldiak lagundu ez arren, Marixeka Eguna giro politean ospatu zuten domekan Marixekara joandakoek. Goizeko lehenengo orduko laino eta tenperatura hezeari kantuan egin zieten aurre herritarrek. Aterkia zabaldu beharra ere izan zuten uneraren batean, baina horrek ez zuen ospakizunean eragin. Jatekoa eta edatekoa ere izan zuten.

Rallysprintak eragina izango du hainbat auzotako errepidetan

Bihar, irailaren 9a, Aramaioko 22. rallysprinta jokatu dute, Azpiko Racing taldeak antolatuta. Lau txanda jokatu dituzte, eta lehenengo txanda 12:00etan hasiko da. Errepideak itxiko dituzte 11:00etan. Zalgo, Uribarri, Arexola, Arriola eta Uribarri zeharkatuko ditu ibilbideak. Sariak plazan banatuko dituzte.

Erromintxela taldeak girotuko du gaurko iluntzea, plazan

Erromintxelak taldeak kontzertua eskainiko du gaur, barikua, herriko plazan. Sastiñako kontzertu zikloaren barruan izango da, Vital Fundazioak lagunduta. 19:00etan hasiko da emanaldia. 2021ean Arrasaten sortutako jazz eta swing taldea da Erromintxelak. Iraileko hurrengo barikutan ere egongo da musika eskaintza.

Ixadebalde, denboraldia borobiltzeko aukera

Atzo, irailak 7, eman zioten hasiera 25. merkealdien azokari Aretxarte elkarteko kideek, eta zazpi komertzio zapatu eguerdia bitartean izango dituzte uda eta udaberri sasoiko produktuak dendan aurrealdeetan, herritarren eskura

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Udaberri eta uda sasoiaren saldu barik geratutako jeneroa kalera atera dute Aretxarteko hainbat merkatarik. Atzo, eguena, abiarazi zuten Ixadebalde azoka, eta bihar arte merkaturako produktuak eta maukak izango dituzte herritarren eskura honako dendek: Asensio, Kilima, Tak, Amaia ume denda, Belar Meta, Hanka-beltz eta Almila Shop. Gaur, egubakoitza, goizez -10:00-13:00- eta arratsaldean -17:00-20:00- izango da erosteko aukera, eta bihar, eguerdia bitartean -10:00-14:00-. Saltokien aurrealdeetan izango dituzte arropak, oinetakoak, osagarriak eta beste hainbat produktu herritarrek ikusi, ukitu eta eros dituzten.

100 euroko bonuak

Bezeroak eskertze aldera, 100 euroko hiru bonu zozketatuko dituzte, gainera. Azoka bukatutakoan, zapatu eguerdi aldera, egingo dute zozketa.



Herritar bat umeendako arropari begira. MIRARI ALTUBE

Irudirako, lehiaketa

Bestetik, poltsak banatu gura ditu Aretxartek bezeroen artean datozen hilabeteetan eta bertako irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du. Irudia komertzio txikien aldekoa izango da, eta

irabazleak 100 euroko bonua jasoko du. Parte hartu ahal izango dute 16 urtetik gorakoek, eta marrazkia, honako helbidera bidali beharko dute: aretxarteele-kartea@gmail.com. Horretarako azken eguna irailaren 15a da.

Amaia ume denda, azkenekoz

Betiko itxiko ditu atek hilabete honetan Amaia ume dendak, eta han duen jeneroa kentze aldera Ixadebalde ari da parte hartzen egunotan, eskaintza ezin hobeeekin.

2012an ireki zuen denda Amaia Elortza Billar aretxabalek eta hamaika urteko ibilbide polita izan dela adierazi du: "Oso aberasgarria izan da, ondo joan den artean. Jendearekin izandako gertuko hartu-eman nabarmenduko nuke; hori izan da politena".

Pandemiak eta Ukrainako gerrak merkataritza ez dietela onik egin dio, baina ez du uste horiek izan direnik itxi beharrezko arrazoi nagusiak: "Nire kasuan, behintzat, ez dira



Amaia Elortza Billar dendan, martitzenean. M.A.

faktoririk garrantzitsuenak. Kontsumitzeko ohitura aldaketa handia egon da, Internet bidez asko erosten da orain eta zuzeneko salmentak behera egin du".

Beste negozio bat

Urriaren 1ean beste baten eskuetan geratuko da lokala. Aurreratu du arkitektura eta diseinuarekin zerikusia duen negozio bat zabalduko dutela.



M.A.

Magiaz bete dira kaleak

Magiari eskaintako egunak bukaerara iritsi dira. Txororro, Tor eta Amelie izan dira herritarrei gertuko magia eskaintzen egunotan. Gaur, egubakoitza, neska-mutikoekin egingo dituzte saioak Arkupen goiz partean, eta arratsaldean, 19:00etan, Tor eta Txororro magoek *Aztikeriak* ikuskizuna eskainiko dute Herriko Plazan.

NIRE USTEZ



MARTIN ANTIXIA ABASOLO

Gauza bat

Johann Hari-ren *El valor de la atención* liburuan, ideia interesgarri askoren artean, bat askotan etortzen zait burura. Gizarte kontsumista azeleratu honetan, denbora ongi kudeatzeko gauza asko batera egitera animatzen gaituzte, eta horretarako erremintak ematen dizkigute. Efiakaz sentitzen gara.

Hari-k dio, *multitarea* hitza, prozesagailu bat baino gehiagoko ordenagailuen sorreran jaio zela. Eta gu, burmuin bakarrarekin, oso txarrak gara bi gauza batera egiten.

Beraz, erritmoa segitzeko, lan aldaketa azkarrak egitea da gure aukera bakarra. Lan bat egin minutu batez, utzi; beste bati ekin, utzi; aurrekora itzuli edo hirugarren bat hasi. Eta hau, behin eta berriz, *buklean*, eta hiperabiaduran. Nekagarria oso. Eta antsietatea atetik sartzen ikusi orduko, leihotik opor bila salto egiten dugu. Hondartzan, bi orduz liburu bat irensten dugunean edo eguzkia sartu arteko elkarriketak ditugunean, agian buruari dakien bezala funtzionatzen uzten ari gara. Gauza bakarra egiten. Astoari lasterketarako zaldia ez dela belarrira esaten. Ea bueltan oroitzen naizen.

Beinke-Loramendi dantza entseguak datorren astetik

Sanmigeletan egingo den Beinke-Loramendi dantza gogorazteko entseguak antolatu ditu Loramendi elkarteak. Kurtzebarri eskolako kantxan egingo dituzte, 19:00etan, honako egun haueetan: 13, 18, 21, 25 eta 28. Lehenengoa, hasiberriendako izango da, eta azken biak, guztientzat derrigorrezkoak, bikoiteak osatzeko.

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO



Heldu bat eta haur batzuk jolasean Kuku Mikuren egoitzan. KUKU MIKU

Kuku Mikuren parte izateko gonbidapena

Hastear den ikasturterako bazkietza kanpaina jarri du abian herriko hainbat familiak osatutako elkarteak; izen-emate epea irailaren 11tik 24ra izango da zabalik, eta hilaren 12an ate irekiak egingo dituzte Potx magoaren ikuskizunak girotuta

Mirari Altube ARETXABALETA

Kuku Miku guraso elkarte hasi da 2023-2024 ikasturtea gertatzen eta bazkietza kanpaina jarri du abian. Aretxabaleako 0 eta 6 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzendutako topagunea da, eta dagoeneko hamabigarren ikasturteari ekingo diote.

Izena emateko epea hilaren 11tik 24ra bitartean izango dute zabalik [-kukumikuelkartea@gmail.com-](mailto:kukumikuelkartea@gmail.com). Eta Durana kalearen atzeko partean duten egoitza ezagutzeko eta hango jardueren berri emateko ateak irekiko dituzte martitzenean, hilaren 12an; gainera, Potx magoa gonbidatu dute hara, 17:30etik 19:00etara, egonaldia girotzeko.

Familiak protagonista

2012an zabaldu zituen ateak Kuku Mikuk hainbat gurasoren eskutik eta osasuntsu jarraitzen dela adierazi du Eneko Barberena Mondragonek, zuzendaritzako kideak: "Lortu genuen pandemia bezalako une zail bat pasatzea eta egun osasuntsu gaude. Dena den, beti da erronka handia lan boluntario hutsez jarduten duen elkarte bat bizirik mantentzea". Iaz 51 familia izan ziren bazkide, eta aurten antzeko kopuru batera iritea espero dute.

Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen dituzte: hitzaldiak, ikastaroak... "Haur eta familiok ondo pasatzeko izaten dira, baita heziketan lagungarriak izan

daitezkeenak ere. Bestalde, lokalaz gozatzeko aukera ere badugu", azaldu du. Lokala, poliki-poliki haurren beharretara egokitzen dihardutela gaineratu du, "material desberdina sortuz eta lortuz".

Horrez gain, hilero zerbait antolatzen ahalegintzen dira: "Bazkideen inplikazio eta motibazioaren arabera gauza gehiago edo gutxiago antola litezke urtero". Barberenak gogorarazi du autoantolatutako gunea dela eta familien inplikaziorik gabe ez lukeela aurrera egingo: "Zuzendaritza batzordean, ekintzen antolaketan, materialaren arduraren edota garbiketan bertan familiak gara protagonista".

Salgai daude Txarapeako jaietako bazkarirako txartelak

Irailaren 16an ospatuko dituzte lehenengoz; paella-janean edonork parte hartu ahal izango du

Mirari Altube ARETXABALETA

Txarapea ibilbideko bizilagunak jaiak antolatzeko lanetan buru-belarri dabilta azken hila-beteetan. Irailaren 16an, zapatua, ospatuko dituzte eta dagoeneko zehaztu dute egitaraua. Umeen-dako jolasak -Loratuk gidatuta-, kirol ekitaldiak, kontzertuak eta herri bazkaria izango dira, besteak beste. "Egitarau zabala egin gura izan dugu adin talde guztien gustuak ase nahian. Eta bereizgarria da Txarapean bizi den norbait dagoela inplikaturatu jarduerara guztietan", adierazi du antolatzaileren taldeko kide den Eneritz Urrutiak.

Irailaren 12ra arte txartelak

Herri bazkariaren oinarria paella izango da eta borobilduko dute postrearekin eta kafearekin. Hori kozinatuko dute eskarmen-tu handia duten herriko sukal-

dariek. Txartelak dagoeneko salgai daude honako taberna hauetan: Expres, Dorleta eta Urbaltz. Erosteke azken eguna irailaren 12a, martitzena, izango da. Haur, gazte eta langabeek 10 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, 15 euro. "Edonor etorri ahal izango da eta ez dago kopuru mugaturik".

Txosna ere bai

Jaiak ospatuko dituzte berdegunea dagoen kurbatik lehenengo garajera bitartean. Itxi egingo dute gunehori ekitaldiak egiteko eta txosna jarriko da han: "Izan ere, ez dago tabernarik gure kalean". Txarapeako bizilagunei laguntza ekonomikoa eskatu diete eta Udalaren babesa ere jaso dute. Aurten egun bakarreko jaiak izango da baina "geratzeko" dator eta "hazten joateko gogotsu", gainera.

OHARRAK

Kurtzebarriko Eguna

Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko du Murruxok domekan. Salda eta mokadutxo eskainiko dute tontorrean 10:30ean hasita.

Asto-jana

Irailaren 23an egingo den Asto-janerako txartelak salgai daude Orly, Kixkor eta Arlutz tabernetan -20 euro-. Azken eguna irailaren 18a da.

Durana
Hartz Klinika

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



San Pedro eta Intxaurtxuetako jai batzordeko kideak, asteburuan. ANDONI MOTO

Irudimenez betetako auzo-festa asteburuan

San Pedro eta Intxaurtxuetako auzotarrek txupinazoaren zain pasa dute astea, eta iritsi zaie azkenean zapia janzteko unea. Datozen hiru egunetan atseden hartzeko asti gutxi izango dute, baina ondo pasatzeko nahi adina, bete-betea baitator asteburua

Hasier Larrea ESKORIATZA

Mimoz prestatu dute San Pedro eta Intxaurtxuetako jai batzordeko kideak, beste behin, herri-tar guztiak gozatzeko moduko egitaraua. 2019tik hirugarren aldiz antolatu dute aurten, eta badira finkatuztat har daitezkeen ekintzak. Txupinazoaren osteko buruhandiak, txistularien 10:00etako kalejirak, zapatu goizko gimnasia erritnikoko erakustaldia, eta osteko herri bazkaria, esaterako. Oraingoan 250 lagun batuko dira mahaien bueltan otordua egitera, "esperotakoa baino gehiago", Andoni Moto jai batzordeko kidearen esanetan.

Doinu dantzagarriak

Berritasunak egongo direla ere gaineratu du. Gaur arratsaldean, 19:00etan, musikari eskoriatzarrez osatutako Ad Libitum txaranga gonbidatu dute jai-giroari hasiera emateko: "Duela gutxi sortu dute taldea eta lehen aldiz etorriko dira auzora", aipatu du Motok, harro.

Kanpoko musikariek ere izango dute plaza, esaterako, Kaiña Bi Trikiarra moduan ezaguna den bikote lasartearrek. Trikitia eta panderoarekin mugarik gabeko errepertorioa lantzen dute, tartean, Michael Jackson-en abestiak. Bihar eguerdiko poteoa alaituko dute horiek, 12:30ean hasita. Herri bazkariaren ondorengo karaoke saiorako berotzeko lagungarriak izango dira, seguru.

Gauek ere antzeko bidetik jarraituko dute. Gaurkoan, goizeko lauak arte arituko da DJ Moto musika jartzen, eta zapatuan Iratzar taldearen erromeria doinuak nagusituko dira.

Domekako eskaintza musika-la, berriz, auzoko nagusienei

EKITALDI GEHIENAK PARTXIS PLAZAN EGINGO DITUZTE, ETA HERRI BAZKARIA KIROLDEGIAN

zuzendutakoa izango da, gazte zireneko kantuak jarriko baitzikiete 19:00etan, eta doako luntxa ere dastatu ahaliko dute.

Etxeko txikienek, barraketan ibiltzeaz gain, jokoetan parte hartu ahaliko dute zapatuan, 12:30ean. 19:00etan Ttiki Ttaka irratia, kantu alaiak egindako ikuskizuna, eskainiko zaie.

Domekan, azoka eta bingoa

Etzi goizean, 10:00etatik egongo dira erosgai artisau eta janari azokako produktuak. 40 ekoizle inguru animatu dira postua jartzera, zero kilometroko arropa, xaboi, bitxi eta elikagai asko topatuko ditu bisitariak, hortaz.

Bazkalorduan *Zuk ekarri zuk jan*, hau da, norberak kudeatutako otordua egingo dute, eta, 16:00etan, drag estiloko bingoa. Aurkezlea Barbara Kaldo izango da, Las Fellini taldeko kidea eta *El Conquis*-en azken edizio-kopartidea.

21:00etan, trakarekin emango dituzte festak bukatuztat.

EskoXtrem mendi bizikleta martxa egingo dute bihar

Aurten Asentziomendirako bidea hartuko dute, parke eolikoa eraiki aurretik "inguruari omenaldi bat egiteko"

H.L. ESKORIATZA

Mendiko bizikletan ibiltzea maite dutenek hitzordu interesgarria dute biharko, zapatua, 09:00etan hasita. Oraindik izena eman ez dutenek ordu erdi lehenago bertaratuta apuntatu daitezke, eta kupoa 250 lagunera iristean amaituko da.

Herriko Plazatik abiatuta, txirrindulariek bi ibilbide izango dituzte aukeran: luzea, 35 kilometro eta 1.700 metroko desnibelekoa, eta laburra, 29 kilometro eta 1.300 metrokoa. EskoXtremeko antolatzaileek jakina-

razi dute aurten ez dutela seinalerik jarri, eta, ondorioz, GPS bidezko nabigazioa eramatea derrigorrezkoa izango dela.

Berrikuntza ibilbidean

Iaz moduan Landa ingurura joan beharrean, Durakogain eta Asentziomendi aldera joko dute aurten, "mendialde honi omenaldi bat eginez, parke eolikoak tontorrek birrindu aurretik".

Proba bukatzerakoan anoa postua egongo da. Bestalde, par-taideentzat bermatuta egongo dira aparkalekuak eta dutsak.

Udal kiroldegiko jarduerak martxan irailaren 18tik aurrera

Ate irekien jardunaldiak egingo dituzte datorren astelehenetik eguaztenera, kirol eskaintza erakusteko

H.L. ESKORIATZA

Manuel Muñoz kiroldegian lehorreko eta uretako jarduerak antolatu dituzte ikasturte osorako. Besteak beste, pilates, erorketa prebentzioa, zumba, body-tono edota astebarruko aquagymeko saio gidatuak irailaren 18an hasiko dira, eta izena eman daiteke jada. Igeriketa eta zapatuetako aquagym saioak, berriz, urriaren 2an hasiko dira; horietarako aurrez aurreko izen-emateak irailaren 11n zabalduko dira, eta *e-mail* bidezkoak, 12an. Plaza gordetzeko

beharrezkoa da izen-emate orria eskoriatza.eus-en deskarga daiteke behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztea, kiroldegia@eskoriatza.eus-era bidalita.

Lehen eskuko informazioa jaso eta jarduerak probatzeko, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte irailaren 11n, 12an eta 13an. Horietan parte hartzeko ere izena eman beharko da aurrez, baina ez du kostu ekonomikorik ekarriko.

Jarduera guztien ordutegiak eskoriatza.eus webgunean kontsulta daitezke.

Jubilatu omenaldia irailaren 24an izango da udal pilotalekuan

Udalak eta Olazar elkarteak urtero antolatzen duten bazkari-joateko, jubilatuen bulegoan eman behar da izena, 6 eurogatik, 11:00etatik 12:30era, irailaren 12an, 14an edota 19an. Bazkariaren aurretik meza egingo dute 11:30ean, eta salda banatuko dute 12:30ean. Bazkal ostean dantzaldiari eta opari banaketari emango diote paso.

Ikasturteko lehen Ostegun Bidaiarian, Txekia eta Eslovakia

Egindako bidaiak lehen pertsonan kontatzeko zikloak jarraitzen izango du; izan ere, datorren egunean, hilak 14, Maialen Salidok Europa erdialdeko toki kuriosoak izango ditu hizpide Zaldibar antzokian, 19:00etan. Besteak beste, Txekiar Errepublikako herrixka, gaztelu eta garagardoan eta Eslovakiako mendikatean berri emango du.

Iñigo Barrena LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako herritarrei iritsi zaie Andramaixekin gozatzeko aukera. Oporretatik itzulerara goxatzeko aukera paregabea izango dute batzuek domekara bitartean; beste batzuek, aldiz, oporrak azken egunera arte zuku-tuko dituzte jaietan dena emanez. Jaiak, ofizialki, gaur eguerdiko 12:00etan hasiko diren arren, atzo bertan, arratsaldeko 19:00etan, lehen ekitaldia izan zuten herrian, nobena amaiera ospatu baitzuten. Orain, txupinazoarekin batera eztanda egingo du jai-giroak Leintz Gatzagan eta haur, gazte zein helduendako egitarau zabala antolatu dute.

Herritarrak ez ezik, kanpotik datozenak erakartzeko egindako lana dela azpimarratu dute udaletik. "Herritarrak baino, kanpotik datozenak erakartzeko prestatutako festak izaten dira Leintz Gatzagakoak. Herritarrok hiru egunetan lanean aritzen gara jaietan, baina gustura egingo dugun lana izaten da" adierazi du Juanito Bengoa zinegotziak. Era berean, jaiak elkar-lanean prestatu dituztela aitortu du Bengoak: "Herriko eragile guztien laguntza izan dugu. Udalean bost lagun besterik ez gara eta ezin dugu lan guztia gure gain hartu. Hori dela eta, eskerrak eman gura dizkiegu herriko eragile guztiei".

Ohiturak eutsiz

Zalantzarik gabe bariku gaueko kontzertuak izango dira jende gehien erakarriko dutenak, bailarako talde ezagunak egongo direlako oholtza gainean; Erne, Kaleko Urdangak, Azken Sustraiak eta Lehen Lerroa taldeen doinu sutsuek gau giroa berotuko dute. Baina badira jaietan huts egin ezin duten

Iritsi da festa giroan murgiltzeko unea

Jaiak ofizialki gaur eguerdiko 12:00etan hasiko diren arren, atzo bertan izan zuten lehen ekitaldia. 19:00etan nobena amaiera ospatzekoa zen. Igandera bitartean denetariko ekintzekin gozatu ahalko dute gatzagarrek eta gerturatzen direnek



Haurrak iazko jaietako apar festan. GOIENA

ekintzak ere. Otxandioarrei ondo etorria ez da faltako urtero bezala eta ondoren jan-edana izango dute herriko plazan. Herri bazkaria izaten da ekintza jendetsuenetarikoa. Juanito Bengoak uste du "180 pertsona" inguru batuko direla mahaia- ren bueltan aurtan. Umeen puzgarriak eta jolasak ere ez dira faltako, eta, nagusiago di-

renek, bolo txapelketan izango dute lehiatzeko aukera gauean egingo den txapelketan.

Maila handiko herri kirolariak

Herri kirolek beti izaten dute xarma berezia herriko jaietan, eta, aurtan ere goi mailako kirolariak arituko dira lanean herriko plazan. Aizkolarien aldetik, lehen mailan aritzen diren

Julen Alberdi *Txikia IV.* eta Ugaitz Mugertza arituko dira. Lehenaren kasuan, 2019. urtean Gipuzkoako txapelduna izan zen, baina bere urterik oparoen iazkoa izan zen; Urrezko Aizkora, Urrezko Kopa eta Sherpa.ai txapelketetan irabazle izan zen. Ugaitz Mugertzaren kasuan, 2018ko Gipuzkoako txapeldun izan zen, baina, era berean, ibil-

bide luzea duen aizkolaria da. Bien palmaresa ikusita ikuskitzuna berमतuta dago.

Harria jasotzen ere bailaran aski ezaguna den Paulo Azpiazu arituko da. Bi urte besterik ez dira Izeta II.aren harri-jasotze eskolan hasi zela, baina orduetik gaur egunerako bilakaera eta hobekuntza ikaragarriak izan dira. Iaz, Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketako bigarren postua eskuratu zuen eta Igeldoko harriarekin ere bigarren egin zuen. Aurtan, momentuz, bi txapelketa irabazi ditu: Iraetako Errota Harria Txapelketa eta Urrezko Harri-jasotze Txapelketa.

Autobusak erabiltzeko deia

Jaietara hurbiltzeko asmoa duen jendeari garraio publikoa erabiltzeko deia egiten die Udalletik. "Gatzagan arazo bat dugu, aparkaleku gutxi daudela. Egunerokotasunean ez dugu arazorik izaten, baina horrelako jai egunetan, jende asko kotxez gerturatzen bada arazo handi bat izaten dugu. Hori dela eta, ez da komeni jende asko autoan etortzea. Garraio publikoa dago ordutegi on batekin eta hori aprobetxatzeko eskatuko genuke" adierazi du Juanito Bengoak.

Arazoa ekiditeko Lurraldebussek zerbitzu berezia jarri du gaur gauerako eta autobusak egongo dira igotzeko eta jaisteko, Oñatitik, Arrasatetik, Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik, gau osoan zehar.

AUTOBUSA ERABILTZEKO DEIA EGIN DU UDALAK; ZERBITZU BEREZIA EGONGO DA GAUEZ

Auzoegurrak eskatzeko izen-emate epea zabaldu du Udalak

Interesa dutenek Irailaren 15era arte izango dute izena emateko epea, aukeratzen duen modalitatea aipatuz.

Iñigo Barena LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak, erabilera publikoko mendietatik ateratzen den, 2023rako auzoegurraren aprobetxamendurako eskaerak aurkezteko izen-emate epea zabaldu du, interesa

duten herritar guztiendako. Bi aukera egongo dira: alde batetik, norberak egurra moztea, batzea eta garraiatzea; hemen tasak ordaindu beharko dira. Bestetik, egurra etxean bertan jasotzeko aukera ere egongo da, egur lote

bati dagokiona, tamaina edozein dela ere; hemen ere, lanaren kostua eta tasak ordaindu beharko dira.

Izena emateko epea jada zabalik dago eta interesa duten herritarren hilaren 15era arte, gaur zortzi barikura arte, edukiko dute izena emateko aukera udaletxean bertan. Izena ematerako garaian, aurretik aipatutako bi modalitateetako bat aukeratu beharko da eta hori ere udaletxean aipatu beharko da.



Egurra pilatuta. GOIENA



Begarako alkate Gorka Artola eta Bide Azpiegituretako diputatu Maria Ubarretxena Gorlan, eguaztenean. ENEKO AZURMENDI BARRENA



Bideko pitzaduretako bat; zati horretan errepidea behera etorrita dago. E.A.B.

Okerren dauden puntuetan sakondu

Errepide osoaren konponketa orokorra egingo da gainazal guztian mikroaglomeratutako bi geruza aplikatuta. Gainera, okerren dauden zatietan errodadura geruza konponduko dute, gainazala fresatuz eta geruza berrituz. Helburua da segurtasuna eta erosotasuna hobetzea.

Elosurako bidea berritzen hasiko dira astelehenean

Aspalditik egoera txarrean dagoen herrigunea eta Elosua lotzen dituen GI-3750 errepidea konpontzeko lanak irailaren 11n hasiko dituzte. Diputazioak 845.000 euro inbertituko ditu proiektuan, eta aurreikuspena da bide berritua 2024ko urtarrilerako erabilgarri egotea

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergarako herrigunea eta Elosua auzoa lotzen dituen GI-3750 errepidea konponduko du Gipuzkoako Foru Aldundiak, irailaren 11n hasita, eta, dena ondo bidean, bost hilabetez luzatuko dira lanak. Sei kilometro pasatxoko errepide zatia da konponduko dutena. Bide Azpiegituretako diputatu Maria Ubarretxe-

nak eguazten goizean errepidean bertan egindako agerraldian adierazi zuenez, 845.000 euroko inbertsioa egingo dute, hainbat lan egiteko: "Errepidea ondo drainatuko dugu, dauden zuloak konpondu, bide bazterrak jaso eta errepide guztia maila berean jarri. Azken batean, errepidearen konponketa integral bat izango da".

Segurtasuna eta erosotasuna 2021ean hobetu zuten Elosutik Azkoitira arteko errepide zatia eta, orain, horri jarraipena ematea da Aldundiaren asmoa. Modu horretan, bergararrek erosotasunean eta segurtasunean nabaritutako dutela gaineratu du Ubarretxena.

Halaber, nabarmendu du landa auzoak garrantzitsuak dire-

la haientzat eta bigarren mailako errepideak funtsezkoak direla lurraldearen kohesiorako. Horri erantzutera dator konponketa hau. "Landa-eremuko bizi-kalitatea eta han zerbitzuak eman ahal izatea garrantzitsua da guretzat. Gainera, bide hau oso erabilia da, aisialdi gune bat ere badelako. Gainera, ikusten da berritzea behar duela", dio diputatuak.

Aspaldiko eskaera bat zen

Elosuko auzo alkate Iñigo Zubeldia ere izan zen agerraldiaren hasieran eta azpimarratu zuen aspaldiko eskaera bat izan dela eta, beraz, pozik hartu dutela albistea: "Errepidea oso gaizki dago, premia handia dauka konpontzeko. 14. eta 15. kilometroen artean dauden zuloak, adibidez, itzelak dira. Pozgarria da behinogoz obrak hasiko direla jakitea".

Begarako alkate Gorka Artolak ere ildo beretik jo zuen: "Nabarmena zen, aspaldian, errepideak hobetzeko beharra zeukala. Joan zen agintaldian ere eskatu genion Aldundiari obra hau egin zezan eta, beraz, pozten gaitu. Obrak bukatu ostean, erabiltzaile guztiok segurtasun eta erosotasun handiagoarekin erabili ahal izango dugu errepide hau. Inportantea da auzoak eta herriguneak ondo konektatuta izatea". Gorla ingurua arnagune handia da bergararentzat, alkatearen esanetan, eta funtsezkoa da errepidea egoera onean egotea. "Herritar asko dira Gorkara igotzen direnak, oinez, bizikletan zein autoan arnas apur bat hartzera, eta horretan ere lagunduko du obra honek. Jendea gerturatzeko erraztasunak izatea beti da onuragarria".

AHTko lanen ondorioz Angiozar erreka zikin dagoela salatu dute

Euri-jasek tuneletako zikinkeria garbitzeko araztegia gainditu eta erreka asko zikindu dutela dio bizilagun batek

J.B.L. BERGARA

Angiozar bailarako bizilagun batek salatu du Abiadura Handiko Trena egiteko lanen ondorioz Angiozar erreka bereziki zikin dagoela gaur egun. "Angiozar bailaran AHTko tunele-

tako zulaketetan hainbat ur eta lohi zikin batzeko arazgailu batzuk daude tuneletako irteeretan. Hainbatean behin, euri-jasa handiek araztegi horien gaitasuna gainditzen dute eta gainezka egiten dute, lohi eta ziki-

nak errekarat botaz. Azken isuria inoizko handiena dela iruditzen zait", adierazi du. Azken isuri horren kalteak erakusteko argazkiak ere bidali ditu Angiozarko bizilagunak: "Euriak gelditu dira, eta oraindik ibaiak gris kolorea darama. Ur azpiko hondoa lohi beltz grisez beteta dago, eta karramarro eta arrainen arrastorik ez dago. Egoera hori errepikatu eta okerrera doa eskuduntza zuzena duten administrazioen itxurazko neurri zuzentzailerik gabe".



Argazki nagusian, erreka gris kolorez; txikian, hondotik ateratako harri zikina. GOIENA

"Ilusio handiz" hasi du denboraldia Saskibaloiak

BKEko saskibaloia sailak gogotsu abiatu du ofizialki urriaren 8ko asteburuan hasiko den 2023-2024 denboraldia, eta azpimarratu dute hiru jokalarik fitxatu dituztela gizonezkoen lehen talderako. Eskubaloi klubeko ordezkariak ere "erronka handiak" zehaztu dituzte

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2023-2024 denboraldirako presaketekin hasita dago BKEko saskibaloia saila. Talde gehienak abuztuaren 28an bueltatu ziren eta gainerakoak aste honetan hasi dira; hori bai, ligako partiduak ez dira urriaren 8ko asteburu baino lehen hasiko, eta nahi duenak aukera dauka taldera gerturatzeko: bergarasaski@gmail.com edo 696 53 07 71.

"Ilusio handiz" daude

Zuzendaritza taldeko Borja Elkorobereziabarrek dio "ilusio handiarekin" ekin diotela denboraldiari: "Aurten senior mailako lau talde izango ditugu, emakumezko talde bat eta gizonezko hiru. Gainera, heziketara bideratutako taldeen kopuru bera izango dugu, 15 talde". Helburuei begira, senior mailako emakumezkoak igotzeko lehian arituko direla gogoratu du Elkorobereziabarrek eta dio hori "oso pozgarria" dela klubarentzat.

Gizonezkoen lehen taldearekin daude bereziki ilusioz denboraldi berrira begira, iaz baino maila bat gorago lehiatuko dute-eta. "Iazko taldearen bizkarrezurra mantendu dugu aurtengo denboraldirako eta maila aldaketari ahalik eta ondoen eusteko



BKEko jokalarik Antxon Hernandez Aloña Mendiren aurka jokaturako derbian, iaz. i.s.

hiru fitxaketa burutu ditugu. Bergarako bi jokalarik bueltan datoz azken urteak Arrasateko Ointxe taldean jokatu ostean eta hirugarren fitxaketa Kanaria Handitik etorri da, Carlos Daniel Antivero", adierazi du Elkorobereziabarrek. Loiuko aireporturaino ongietorria egitera joan zen ordezkarietako bat izan zen zuzendaritza taldeko kidea: "Defentsan asko lagunduko digu.

Hegaleko jokalariek eta bera baino jokalarik handiagoak defendatzeko gai izateaz gain erreboterako sen handia dauka. Erasoan ere, erraztasun handia erakutsi du kanpotik barrurako barneraldiekin. Laburbilduz, maila honetan badu esperientzia eta kantzako bi aldeetan ondo moldatzen den jokalaria da. Gainera, ikuskizuna emateko gauza izango dela uste dugu, bere-

ziki mateekin. Carlos Daniel gustura egotea nahi dugu, taldean zein herrian. Bere garapen personal eta profesionalan lagundu nahi diogu, eta gero ikusiko da zer etor daitekeen". Bestalde, etxera bueltatuko diren jokalariek dira Josu Martinez eta Eneko Munarriz: "Biek erakutsi dute maila ona MUz azken urteetan eta ziur gaude ekarpen handia egingo digutela. Eurek ere hasieratik erakutsi zuten gogoia etxera itzultzeko. Fitxaketa hauekin guztiekin maila berrira hobeto egokituko garela uste dugu".

Eskubaloiari, "erronka handiak"

Bestalde, BKEko eskubaloi sailak ere ekin dio denboraldi berriari: "Erronka handiak izango ditugu. Neska gazteak maila berrira egokitu beharko dira; iazko maila ona mantendu ezkeror aurten ere emaitza aparta lortuko dute. Gabezia handiena atezainetan dugu eta neska berrien bila ari gara hutsune hori betetzeko". Infantil mailako neskek bi talde izango dituzte aurten ere.

Mutulei dagokienez, senior mailan bi talderekin jarraituko dute, Gipuzkoako lehen eta bigarren mailan. Lehen taldeak iaz erretiratu ziren Alatz Etxebarriarteunen eta Eibarrek fitxatu duen Andoni Moñuxen "hutsune garrantzitsuei" egin beharko die aurre; bigarren mailan jokalarien prestaketa lehenetsiko dute aurten ere. Kadete mailan bi talde osatuko dituzte, eta espero dute aurten kadeteetan bigarren urtea egiten dutenekin bereziki emaitza "oso onak" lortuko dituztela. Infantil mailan taldea osatzea lortu arren, indartu egin nahi dute; eskubaloi probatu nahi dutenentzat: bergaramano@gmail.com.

Merkealdien azoka egingo du Bedelkar elkarteak asteburuan

Bergara Bizi ekimenaren barruan, merkealdien azoka berezia antolatu du Bedelkar merkatarik elkarteak asteburu honetarako. *Bueltan da* lelopean antolatu dute honako azoka hau, udaberriko eta udako beherapean herritarren eskura uzteko helburua duena. Bedelkarren parte diren komertzioek biltegi-ko produktu interesgarriak jarriko dituzte salgai prezio murriztuan eta, horrekin batera, kalea dinamizatuko dute; betiere, gertuko eta tokiko salerosketa bultzatzeko asmoz. Aurrekoetan egin izan duten moduan, dendek saltokiaren atarian jarriko dituzte salgai produktuak, karpak ere bertan kokatuta.

Bertso saioa antolatu dute gaurko (22:30), Kartzela Zaharrean

Euskal Herrian Euskaraz taldeak Euskaltzale Independentiston Topaketak antolatu ditu urriaren 7rako eta 8rako Billabonan, eta antolatzaileek asmoa dute aurkezpenak herriz herri egiteko. Lehena Bergarako Kartzela zaharrean egingo dute, gaur, 22:30ean hasita –ateak 22:00etan irekiko dituzte–. Aurkezpeneko bertso saioa antolatu dute, bereziki euskararen bueltan abestu dezaten. Honako bertsolari hauek gonbidatu dituzte: Amets Arzallus –Billabonako topaketetako mahai-inguru nagusian ere hartuko du parte–, Janire Arrizabalaga, Asier Galarza eta Koldo Muñiz. Sarrera sei euro ordaindu beharko da.

OHARRAK

Diruz lagundutako euskara ikastaroak

Euskara ikasteko edo ikasketa osagarriak euskaraz egiteko hiru dirulaguntza mota atera ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak. Eskariak, irailaren 15a baino lehen: euskara@bergara.eus. Gainera, Udal Euskaltegiko matrikula zabalik dago: 943 76 44 53.

Osintxuko Kofraixak: zozketako irabazlea

4065 zenbakiak 30 egun ditu saria jasotzeko: bi lagunendako gau bateko egonaldia La Guardiako (Errioxa) Silken Villa 4 hotelean, afaria, gosaria eta upeltegia barne (606 67 12 90).

Odol emaileak: hurrengo ateraldia

Hurrengo zita, hilaren 13an; osasun zentroan, 16:30etik 20:30era.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Udal ordezkariak danborradako parte-hartzaileekin batera, eguenean egindako agerraldian. M.A

Bete-bete datoz sanmartinak

Lau eguneko jaiak izango dira aurtengoak, ohi baino luzeagoak, irailaren 14tik 17ra ospatuko baitira. Bihar, sanmartinetako feria izango da bi kokagunetan, plazan eta Seminarixoan. Danborrada nagusian, berriz, 700 danbor jotzaitetik gora arituko dira

Miren Arregi Amasorrain BERGARA

San Martin Agirreren omenezko ospakizunek bihar dute lehenengo hitzordu handia Bergaran, San Martin plazan eta Seminarixoko patioan egingo den San Martin feriarekin. Bigarrena datorren asteburuan izango da eta Udalak eta Xaxau Konpartsak lau eguneko egitarau bete prestatu dute, txiki, gazte zein helduk izan dezan zertaz gozatu. Atzo, eguena, eman zituzten egitarauaren gaineko xehetasunak Bergarako osoko bilkuren aretoan egindako agerraldian eta udal

ordezkarietz gain, aurkezpenean izan ziren danborradako hainbat parte-hartzaile ere. Biharko San Martin feriarekin dagokionez, ohi bezala bi kokaleku hartuko ditu. San Martin plazan barazki, fruta eta gazta lehiaketako postuak egongo dira. Bost ekoizle aurkeztu dira barazki eta fruta lehiaketarako eta gazta lehiaketan 20 ekoizle emana dute izena dagoeneko. Halere, zapatuta arte dago gaztak aurkezteko aukera. Barazki, fruta eta gazta lehiaketako sari banaketa ere plazan egingo da, 13:30ean. Bes-

talde, kokaleku horretan egongo da baita ere, Urzelai, Imaz eta Leturia harakinek ekarritako odolosteak dastatzeko aukera.

Bestalde, Seminarioko patioan egongo dira talo postua eta bestelako produktuen azoka. Guztira 27 salmenta mahai jarriko dira bertan, jakiak, baserriko produktuak, kosmetika eta bestelakoak. Nabarmenezkoa, baita ere, kokagune horretan erleek hartuko duten protagonismoa: Erlantz Olabarriak *Erleak Arriskuan* deritzon aurkezpena egingo du, eztiaren eraldaketa aurrez

aurre ezagutzeko aukera eskainiz. Gainera, Jardun Elkartearen eskutik, haurrentzako erleen inguruko tailerrak ere egingo dira. Egueneko agerraldian, "San Martin feriak bergararentzat duen garrantzia" nabarmendu du hirigintza zinegotzi Markel Azkargortak eta azaldu zuen "aukera polita dela ekoizleen eta herritarren arteko harremanak lantzeaz gain, lehen sektoreari ari diren pertsonen aitortza egiteko".

San Martin feriaz gain, zapatu arratsaldean Bikote Nagusien 38. Dantza Txapelketa ospatuko da. Aurten bada beritasunik, txapelketa kalera atera gura izan baitute. Hala, Seminarixo barruan egin beharrean, plazan egingo da. 19:30ean hasiko da txapelketa. Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga bergararrek hartuko dute parte.

Danborrada gora eta gora

Datorren asteburuan eginda, aipatzekoa, aurten lau eguneko egitaraua izango dutela jaiek. Urtero bezala, jaietako protagonista nagusia danborradak izango dira. Nagusienean, esaterako, gora egingo du parte hartzeak aurten. 720 lagun danborrak jotzen, bandera eroaleak, 60 lagun Musika Bandan, 45 erreprezentazioan... 800 lagunetik gora elkartuko dira San Martin plazan danborradaren bukaeran. "Danborradaren momentu arrakastatsu bat bizitzen ari gara eta horretaz gozatu behar dugu

BARAZKI ETA FRUTA LEHIAKETAN BOST EKOIZLEK EMAN DUTE IZENA; GUZTIRA 27 POSTU EGONGO DIRA

guztiok, adin eta genero aniztasun handia egongo da, gainera", azaldu du Maite Usabiaga zinegotziak.

Suzko erroberarik ez

Iazkoari jarraituz, aurten ere ez da suzko erroberarik egongo. Kultur zinegotzi Maite Usabiagak azaldu duenez, gaur egungo segurtasun araudiak ez du Agorrosinetik bota ahal izatea baitmentzen. "Saiatu gara beste toki bat bilatzen baina ez dugu leku egokirik aurkitu, penaz, ohitura honi agur esan beharko diogu", azaldu du. Hori horrela, irailaren 16an, zapatua, suzko zezena aterako da 22:30ean, San Martin plazatik.

Xaxau konpartsarekin

Xaxau konpartsak Udalarekin elkarlanean, egitarauaren diseinuan parte hartu du eta ekintza desberdinak antolatu ditu Munibe plazan kokatuko duen txosnagunean. Txorotxarangak, kontzertuak, DJ saioak, bazkari herrikoia... antolatu dituzte. Txomingeroen bazkaria zapatuan egingo da, 14:30ean, eta horrekin batera Bingo Musikatua ere egingo dute.

Sokamuturra balkoitik

Zapatu goizean eta domeka goizean, sokamuturra egingo da 09:00ean, Barrenkaletik San Martin plazara. Sokamuturra udaletxeko balkoitik ikusteko aukera egongo da eta horretarako www.bergara.eus webguru-

AURTEN ERE EZ DA SUZKO ERROBERARIK EGONGO; HORREN ORDEZ SUZKO ZEZENA ATERAKO DA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugarteuroztegia.com



nean eman beharko da izena irailaren 11 baino lehen. Izena ematen duten pertsonen kopurua baimendutakoa baino handiagoa bada zozketa egingo da.

Sokamuturraz gain, errektoradore eskolako ikuskizunak ere egingo dira: bi egunetan izango dira Seminarioko patioan –zapatuan 16:00ean eta domekan, 17:00etan–.

Pintura lehiaketa berrikuntzekin Irailaren 17an, domekan, aire libreko 48. Simon Arrieta Pintura Lehiaketa ere egingo da, Beart elkaratek antolatuta. "Beart elkaratek eginiko eskaera baten ondoren, beste lehiaketa batzuetako irizpideak aztertu dira eta hirugarren saria gehitzea erabaki da", azaldu du zinegotzi Maite Usabiagak. Sari banaketa 15:00etan egingo da udaletxean.

Erraldoi konpartsaren kalejira Domekan, 18:30ean, Bergarako Erraldoi Konpartsa kalejiran aterako da. Lagun izango dituzte Bergarako Txistulari Banda eta Elgoibar eta Arrasateko dultzaineroak.

Eraso matxisten kontra Bestalde, eraso matxistei aurre egiteko neurriak ere hartu ditu Udalak. Adierazpen libreko guneetan euskarriak jarriko dira mezu batzuekin eta eraso matxista bat gertatzen bada jarraitu beharreko pausuekin. Tabernetan eta txosnagunean ere jarriko dira. Horretaz gain, irailaren 15ean eta 16an Arreta Gunea ere jarriko da Irizar jauregian, 00:00etik 06:00era. "Jai seguruak nahi ditugu eta denok modu aske eta libre baten gozatu ahal izatea bermatu behar dugu", azaldu du Usabiagak.

San Martin jaietako egitaraua

IRAILAK 9, LARUNBATA

SAN MARTIN FERIA

- **09:30** AZOKA: BARAZKI, FRUTA eta GAZTA LEHIAKETA, San Martin plazan. BESTELAKO PRODUKTUEN AZOKA eta talo postua Seminarioko patioan.
- **11:00** KALEJIRA Bergarako trikitilariekin San Martin plazatik hasita.
- **11:30** HAURRENTZAT ERLEEN INGURUKO TAILERRAK. Seminarioko patioan, Jardun elkaratearen eskutik.
- **11:30** BERGARAKO ODOLOSTEEN DASTAKETA Urzelai, Imaz eta Leturia harakinei esker San Martin plazan.
- **12:30** "ERLEAK ARRISKUAN" Erleen bizitzaren aurkezpena eta eztiaren eraldaketa aurrez aurre Erlantz Olabarriaren eskutik. Seminarixoa Aretoan.
- **13:30** BARAZKI, FRUTA ETA GAZTA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA San Martin plazan.
- **19:30** BIKOTE NAGUSIEN 38. DANTZA TXAPELKETA "Moises Azpiazuren oroimenez", San Martin plazan. Euriarekin Seminarixoan.

IRAILAK 14, OSTEGUNA

- **18:30** KALE ANTZERKIA Kale gorrian. Cia. Barsanti. San Martin plazan.

IRAILAK 15, OSTIRALA

- **18:30-20:00** Txorotxaranga. Familientzako ikuskizun ibiltaria, San Martin plazatik hasita.



Bergarako harategietako odolosteak prestatzen, iaiz. GOIENA

- **19:00** Munibe plazako Txosnagunearen irekiera.*
- **20:00** Kontzertua, Munibe plazako txosnagunean.*
- **22:30** NAGUSIEN DANBORRADAren irteera. Ibilbidea: Udal biltegia, Masterreka, Bideberri, Ibargarai, Herrilagunak, D. Irala, Irizar, Barrenkale, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekale, Arruriaga, Barrenkale, San Martin plaza.
- **23:30** SAN MARTINEN ERREPESANTAZIOA Bergarako Musika Bandaren laguntzarekin San Martin plazan.
- **00:15** Joselu Anaiak taldearekin ERROMERIA San Martin plazan.
- **02:00** DJ saioa, Munibe plazako txosnagunean.*

IRAILAK 16, LARUNBATA

SAN MARTIN AGIRRE EGUNA

- **09:00** SOKAMUTURRA, Barrenkale eta San Martin plazan. 16 urtetik beherakoek eta alkohola edo bestelako drogaren baten eraginpean daudenak debekatuta dute sokamuturrean parte hartzea.

- **11:00** DIANA, Bergarako Txistulari Bandarekin.
- **11:30** KALEJIRA Musika Bandarekin. Ibilbidea: San Martin Plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Burdiñate, Barrenkale, San Martin Plaza.
- **12:30** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA Seminarioko patioan.
- **12:30** Bergarako Musika Bandaren KONTZERTUA San Martin plazan (euriarekin Udal pilotalekuan).
- **14:30** TXOMINGEROEN BAZKARIA. Ondoren Bingo Musikatua. Munibe plazako txosnagunean.*
- **17:30** DJKarro ibiltaria. Munibe plazako txosnagunetik hasita.*
- **18:30** HAURREN DANBORRADA. Ibilbidea: udal biltegia, Masterreka, Bideberri, Ibargarai, Herrilagunak, D. Irala, Irizar kalea, Barrenkale, San Martin plaza. Musika eskolaren Gazte bandaren laguntzarekin. Bukatutakoan TXOKOLATEA parte hartzaile guztientzat.

- **22:30** SUZKO ZEZEKA. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Komenio kalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza. Udalak ez du beregain hartuko ibilbidean dagoen jendeak izan ditzakeen kalteen erantzukizunik.
- **22:45** KONTZERTUAK ETA ERROMERIA. Munibe plazako txosnagunean.*

IRAILAK 17, IGANDEA

- **09:00** SOKAMUTURRA, Barrenkale eta San Martin plazan. 16 urtetik beherakoek eta alkohola edo bestelako drogaren baten eraginpean daudenak debekatuta dute sokamuturrean parte hartzea.
- **09:00** Aire libreko 48. SIMON ARRIETA PINTURA LEHIAKETA, Beart elkaratek antolatuta. Sari banaketa **15:00**ean izango da udaletxean.
- **17:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA Seminarioko patioan.
- **18:30** Bergarako Erraldoi konpartsaren KALEJIRA, Bergarako Txistulari bandak, Elgoibar eta Arrasateko dultzaineroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, San Pedro, Artekale, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraiskozuri, Irizar, Barrenkale eta San Martin Agirre plaza.
- **20:00** PURO RELAJO taldearen kontzertua San Martin plazan.

* Antolatzailea: Xaxau Konpartsa.

RPS: 227/18



ESTELLA
FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63





lazko San Martin azokan Bergarako plazan jarri zituzten zenbait postu. GOIENA

Azokak emango die hasiera sanmartinei

Fruta, barazki, gazta eta bestelako produktuen postuak hartuko ditu San Martin plazan eta Seminarixoko patioan izango den sanmartinetako feriak; halaber, fruta, barazki eta gazta lehiaketako irabazleak 13:30ean emango dira jakitera

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Sanmartinetan ekintzaren bat usadio bada, hori feria da, eta iazko ereduari jarraituz, aurten ere fruta eta barazki lehiaketan izena eman duten bost postuak eta gazta postuak jarriko dituzte San Martin plazan eta beste 27 salmenta mahai era guztietako produktuekin Seminarixoko patioan 09:30etik aurrera.

Salmahai horiez gain, ohi modura, herriko Imaz, Leturia eta Urzelai harakinen odolosteak egongo dira salgai eta Jardun Euskara Elkarteak kudeatuko du plazako postu hori.

Azokako lehiaketak

Azoka bai, baina lehiaketa ere bada protagonista. Fruta eta barazki lehiaketako oinarrietan jasota dagoenez, bost parte-hartzaileak goizeko 07:30ean hasiko dira salgaiak jartzen eta prest eduki behar izango dituzte produktuak azokaren irekierarako, ordu horretan pasako baita epaimahaia postuetatik. Salmen-tari dagokionez, "epaimahaiaren erabakia jaso ondoren hasiko da salmenta, 10:30 inguruan". Salgaien kalitatea, mota ezber-

dinetako salgaiak erakutsi edo saltzea, mota bakoitzeko aldaera edo barietate desberdinak erakutsi edo saltzea izango dira sariak ematerako orduan kontuan hartuko dituzten baldintzak.

Udalak jakinarazi duenez, gaur gaurkoz 20 ekoizlek eman dute izena gazta lehiaketan, baina posible da egunean bertan ere izena ematea. Parte hartzeko, Artzai Gazta elkarteko edota Idiazabal Gazta jatorri deiturako kide izan behar da eta parte-hartzaile bakoitzak gazta bat aurkeztu beharko du.

Barazki, fruta eta gazta lehiaketako sari banaketa 13:30ean izango da San Martin plazan. Sarietarako, hiru arlotan sari berberak emango dituzte: irabazleari 600 euro, bigarrenari 550 euro eta hirugarrenari 500 euro. Lehiaketako oinarriak Bergarako Udalaren webgunean daude herritarren eskura.

Era berean, egitarauaren barruan daude Jardun Elkartearen eskutik Seminarixoko patioan izango diren tailerrak edota erleen bizitzaren aurkezpena eta eztiaren eraldaketa Erlantz Olabarriaren eskutik.

TELAETXE

Fabrikako prezioak



Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •
Tel.: 943 76 39 40 / 41

Astehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

Larunbatetan
10:00etatik 13:00etara

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK

Ondo ibili sanmartinetan!

"Herrian dantzatzeak beti dauka zerbait berezia"

Zortzi bikote lehiatuko dira biharko Dantza Askatu Txapelketan eta horietako bat izango da Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga bergararrek osatzen dutena; gogotsu daude, baina txapela "edozein burutan" jartzeko aukera dagoela azaldu dute

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Zazpigarren aldiz hartuko dute parte Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga bergararrek Moises Azpiazuren omenezko 38. Dantza Askatu Txapelketan. Uda "nahiko lasaia" izan ostean, irailean elkartu zaizkie, besteak beste, Donostiako, Zarauzko edota Bergarako txapelketak. Azken hori, baina, berezia dela adierazi du bikoteak herrian bertan astinduko dituztelako hankak: "Herrian dantzatzeak beti dauka zerbait berezia. Inguruko jendea gerturatzea beti da pozgarria guretzat eta aukerarik balego herriko plazan oholtzara igotzeko, zer esanik ez".

Berezia bada ere, beste txapelketa bat balitz bezala prestatu dute. Berezitasuna gertuko jendearen babesean dagoela diote eta "betikoa" eramango dutela: "Espero dugu konformatzeko adina izatea", diote barrez.

Maila parekatua

Biharko txapela "edozein burutan" jartzeko aukera dagoela nabarmendu dute maila parekatua dagoelako lauzpabost bikoteren artean: "Azken urtean Euskal Herriko txapeldunak izan garen arren, beste edozein izan zitekeen eta hala izan daiteke aurten ere. Disfrutatzea eta onena ematea besterik ez zaigu

geratzen. Lasai eta gustura gaude zentzu horretan". Urrian izango den Segurako Euskal Herriko dantza txapelketara ere aurkezteko asmoa badute.

Oholtzaz plazan

Zortzi bikote lehiatuko dira bihar, 19:30ean hasita, San Martin plazan -euriarekin, Seminarixoan-. Azken urteetan Seminarixoan egin duten arren, ikuskizuna plazara aterako dute ikusgarriagoa izateko asmoarekin. Arin-arin eta fandangoa dantzatuko duten bikoteak honakoak izango dira: Laura Bastida-Ekain Uzkudun (Azpeitia), Leire Urrestilla-Iker



Murgiondo eta Galarraga, iazko Moises Azpiazuren omenezko txapelketan. GOIENA

Urrestilla (Zestoa), Alaia Amubieta-Amets Amubieta (Azpeitia), Nora Aizpuru-Iker Zabala (Azpeitia), Jare Labaka-Enaitz Segurola (Azpeitia), Nahia Ur-

kizu-Ione Aranbarri (Azpeitia-Itziar), Saioa Galarraga-Julen Murgiondo (Bergara) eta Jone Arriaran eta German Aranburu (Azpeitia).

MATRIKULA ZABALIK

GLOBAL STUDIES

Ondo ihili sanmartinetan!

Ingeleseko eskolak: maila guztiak eta 3 urtetik aurrera irakasgai guztietarako laguntza eskolak
Beste hizkuntzak: alemana, frantsesa...

San Lorentzo 23, behea 1 • BERGARA • Tel.: 943 22 93 24 - 605 76 32 72 • global_studies_academy@yahoo.es

Bergara •

metagra

México •

Group

San Martin
jai zoriontsuak
bergarar
guztioi!

Danborrak eta barririk jotzen, 700 lagundik gora

27 taldek astinduko dituzte makilak hilaren 15 gauean egingo den helduen danborradan eta horietatik bederatzita dira berriak; haurren danborrada, berriz, hurrengo egunean izango da eta 300 ikasle inguruk parte hartzea aurreikusten dute

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Sanmartinetako ekitaldi nagusienetako bat izaten da danborrada eta urtetik urtera geroz eta indar gehiago ari da hartzen tradizioz betetako gau hau. Izan ere, aurten 27 taldek astinduko dituzte danborrak eta barririk Bergarako kaleetan zehar hilaren 15ean udal biltegitik 22:30ean abiatuta egingo den helduen danborradan. Bergarako Udaleko parte-hartze teknikaria den Nagore Narbaizak aurreratu du denera 720 danbor eta barrika-jole aterako direla, baina horiei San Martinen gurutziltzaketaren errepresentazioko partaideak -45 inguru- eta musika bandako

kideak gehitu behar zaizkiela: "Denera 800 lagun bueztan izango dira". *San Martin* martxa da urtero errepikatzen den marxa bakarra; gainontzekoak urtez urte aldatu egiten dituzte eta Narbaizak jakinarazi du beste hirurak *Pertxa*, *Lasai Toki* eta *Campeones* izango direla.

Danbor eta barrikez gain, aurten ere egingo dute San Martin Japonian erail zuten unearen interpretazioa. San Martin plazan izango da 23:30ean hasita, musika bandak lagunduta.

Geroz eta gehiago

Duela urte batzuk danborrada "gainbeheran" zegoela adierazi

du Narbaizak, baina orain egoera alderantzizkoa dela. Bederatzita talde berri animatu dira aurten: 2004ko neskak, Bolu auzoko jentie, Riders, Goretxi poteo, HPTkuak, Ortzadar, MM, Santxi eta Txipiriflautiak. Gustura agertu da teknikaria parte-hartzearekin eta balorazio positiboa egin du materiala inguratzeke zailtasunak izan badituzte ere: "Mutur batetik bestera pasa gara. Ez dakigu horrela mantenduko den edo zer gertatuko den. Gainera, sartzen diren berri gehienak gazteak dira. Pentsa, 700 danbor eta barrika jotzaile. Jende asko da eta zailtasunak izan ditugu danbo-



Helduen danborradako entseguaren une bat, eguaztenean. ENEKO AZKARATE

rrak eta barririk lortzeko. Zentzu horretan oso pozik gaude eta positiboki baloratzen dugu, baina egia da bolumen handia hartu duela".

Haurren txanda, hilaren 16an

Zapatuko haurren danborradan, herriko ikastetxeetako 300 bat ikaslek parte hartzea aurreikusten du Narbaizak. Hauek ere San Martinen hilketaren errepresentazioa egiten dute eta urtero rola txandakatzen di-

tuzte. "Aurten, adibidez, Aranzadi Ikastolak japoniar danbor-joleak eramango ditu, San Martin Herri Eskolak japoniar gudariak eta Mariaren Lagundiak barrika-joleak nahiz errepresentazioko figuranteak". *San Martin* eta *Pertxa* martxak joko dituzte. Haurren danborrada hilaren 16an izango da, 18:30ean udal biltegian hasita. Plazan amaituko da eta bukaeran, txokolata banatuko dute parte-hartzaileen artean.

GOKI

erreformak

*Gora
sanmartinak!*

Teilatuak, fatxadak, igogailuak,
sukaldeak, bainugelak.

Irizar ibilbidea 1 behea
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.com

www.gokierreformak.com

itesa

Ondo ibili sanmartinetan!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

Musika eskaintza zabala plazan eta txosnagunean

Plazan, esaterako, Joselu Anaiak eta Puro Relajo taldeak arituko dira, eta Munibe plazako txosnetan, berriz, estilo ezberdinetako taldeak igoko dira oholtzara; hilaren 16an Musika Bandak, sanmartinetako kontzertua eskainiko du herriko plazan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Urtero bezala, ez da musikaririk faltako San Martin plazan eta Xaxauren txosnagunean irailaren 15etik 17ra bitartean. Azken urteetan ez dute hutsik egin eta aurtan ere San Martin plazan izango den Joselu Anaiak taldearen erromeriak girotuko du San Martin Agirre bezperako gaua, San Martinen gurutziltzaketaren errepresentazioaren ostean, 00:15ean hasita.

Puro Relajoren txanda, berriz, hilaren 17an izango da eta arratsaldeko zortzietatik aurrera gozatu ahal izango dute herriko plazara bertaratzen direnek talde nafarraren rantxerez.



Lizartxo erromeria talde oñatiarra. LIZARTXO TALDEA

Musika txosnagunean

Xaxau Jai Herrikoien Konpartsak Munibe plazan jarriko duen txosnagunerako egitarau propioa osatu du, ohi modura. Taldeen artean presentzia nabarmena dute herrikoek eta konpartsako kide den Andrea Gonzalezek azpimarratu du saiatzen direla "lehendabizi" bergararrei aukera bat ematen eta estilo ezberdinetakoak izaten: "Inguruko herrietatik ere tiratzen dugu. Beste herrietara joaten garenean gutaz ere gogoratzen baitira".

Hortaz, K-PO eta Blind talde bergararren rap-trap doinuak izango dira entzungai irailaren 15ean, 20:00etan. Joselu Anaiak kontzertuaren ostean, 02:00ak aldera, Bergarako hiru emakume, DJ hirukiak, jarriko dute musika. "Ez dugu gehiago luzatu nahi izan, ze hurrengo egunean Txomingero bazkaria antolatu dugu txosnetan", dio.

San Martin Agirre gauean, hiru kontzertu izango dira txosnetan gaueko hamaiketatik aurrera. Laino Beltzak izango da lehena oholtzara igotzen: "Bergarakoak dira eta oso gazteak. Punk-rocka da euren estiloa eta

oso ondo jotzen dute". Ondoren, Mirua hirukote tolosarrak pop eta elektronika fusioak musikatuko ditu, eta azkenik Lizartxo erromeria taldea etorriko da Oñatitik: "Iaz oso ondo pasatu genuen eta urteroko hitzordua hasi da bihurtzen".

Musika Bandaren kontzertua

Danborradan nahiz errepresentazioan parte hartzen du Musika Bandak eta hilaren 16an, 11:30ean, kalejira egingo du. Ondoren, ohiko kontzertua eskainiko du 12:30ean plazan –euriarekin, pilotalekuan–. Denera bost pieza joko dituzte eta Enrike Txurruka zuzendariarentzat badu zerbait "berezia" emanaldiak: "Berezia da plazan delako eta jotzen ditugun obregatik. Esaterako, M. Glz. Bastidaren *San Martin*, maila altuko musika eta herriko altxor bat. Obrak maisuki islatzen ditu jai eguneko pasarteak. Edota Miguel beraren *Nagasaki 1597*, santuaren martirioa islatzen duen balleta, ekialdeko doinu eta herrikoiak nahastuz, 1963an Japoniako enbaxadoreak Bergarara egin zuen bisitarako idatzia".



Gora sanmartinak!



INDUSTRIAS **FEGAR, S.A.**

www.fegar.com



Ondo ibili sanmartinetan!

"Minimalismoaren aldeko hautua egin dut"

SANDRA MELERO ARGAZKILARIA

Erretratuak ipini ditu ikusgai argazkilari katalanak Aitz Garbi tabernan. Askotarikoak dira, kalean ateratakoak, eta ikusgai egongo dira urriaren 10era arte

Mireia Bikuña Madrid ANTZUOLA

Jaiotzez katalana da Sandra Melero, baina urte eta erdi dela bizi da Antzuolan. Argazkilari-tza zalea da eta bere lehen erakusketa antolatu du Aitz Garbi tabernan. Urriaren 10era arte egongo da ikusgai.

Erretratuak ipini dituzu ikusgai. Nolako argazkiak dira?

Askotariko argazkiak dira, gai-ri dagokionez. Banaka batzuk dira Bartzelonan bizi izan nintzen garaikoak, eta beste banaka batzuk, hemen nagoenetik egindakoak. Paisaiak, kaleko argazkiak, Antzuolari egindakoak, Euskal Herrian zehar ateratakoak...

Kaleko argazkigintza egitea gustatzen zaizu.

Hala da. Kalean paseatzen dudanean une bakoitzean ikusten dudanari argazkiak ateratzea gustatzen zait. Jendeari bere egoera naturalean argazkiak ateratzea gustatzen zait. Hiri edo herri handietan erraza da. Baina, Antzuola bezalako herri txikietan, egoera asko zailtzen da. Jendeak argazki kamera batekin ikusten zaitu eta arreta pizten du horrek.

Antzuolan errazagoa da paisaiak ateratzea?

Inguruneak asko laguntzen du. Oro har, hemen, paisaietako argazkiak egiten dira gehienbat. Bada, niri mota horretako argazkiak egitea aspertu egiten nau. Hemen nagoenetik ideiaz aldatu behar izan dut. Argazkigintza minimalistarekin esperimentatzen hasi naiz. Sentimenduak gauza sinpleekin adierazten saiatzen naiz. Argazki batek zirrara sorrarazi behar dit, eta paisaiek zailagoa egiten zait hunkitzea.

Aitz Garbi tabernakoa zure lehen erakusketa da?

Bai, eta oso pozik nago. Aitz Garbik arte bildumen aldeko apustua egiten du taberna apaintzerako orduan. Ugazaben alde-



Sandra Melero Aitz Garbi tabernan, erretratuak atzean dituela.

"SENTIMENDUAK GAUZA SINPLEEKIN ETA SOILEKIN ADIERAZTEN AHALEGINTZEN NAIZ"

tik jaso nuen nire argazkiak erakusteko proposamena eta gonbidapena. Gainera, herritarren aldetik *feedback* polita jaso dut. Gustura ikusi dutela esan didate askok. Askok betetzen nau horrek.

Lehenengoaren ostean, etorriko dira beste erakusketa batzuk?

Ni ez naiz argazkilari profesionala. Hitz potoloak dira horiek. Zalea naiz, baina egiten dudana lana erakustea gustatzen zain. Gurako nuke beste batzuk egin. Areto handiagoetan edo gai zehatz bati buruzkoak. Nire argazkia asko gustatzen ari da hemen, eta espero dut beste aukera batzuk sortzea nire kamerarekin atzematen dudana irakasteko. **230.000 biztanle dituen Terrassa (Bartzelona) hiritik zatoz. Aldaketa handia, dudu barik.**

Bai, oso handia, baina, era berean, oso pozik nago. Nire bizi-

tzako une jakin batean iritsi nintzen Antzuolara, hainbat zirkunstantziagatik. Oso ondo moldatu naiz herrira. Lana daukat eta argazkigintza goza dezaket. Herri txikiak kontrako gauzak ditu, baina, aldekoak asko. Ni horiekin geratzen naiz. Familia bat topatu dut hemen, eta ez nuke aldatuko.

Esaten duzunarengatik ondo integratu zara herrian.

Bai. Norbera gustura badago eta herri txiki batean bizitzaren idiosinkrasiara, hizkuntzara eta ohituretara egokitzeko prest badago, ez luke arazorik izan behar integratzeko. Zentzu horretan, Antzuola oso herri atsegina da. Oso babestuta sentitu naiz, hasieratik.

Hizkuntza aipatu duzu. Zelan moldatzen zara euskararekin?

Egunerokotasunerako moldatzen naiz euskararekin. Euskaraz ondo hitz egin ahal izatea gustatuko litzaidake, berandu baino lehen. Horretarako, nire ingurukoek asko lagundu didate. Euskaraz hitz egiten duten lagunak ditut, ama hizkuntza dutelako. Eta asko eskertzen didate ikasteko eta praktikatzekeo dudana prestasuna.



EMAKUNDE

Mairuaren Alardeari aitortza

Jaizkibel Konpainiak Antzuolako Alardea biziberritzeko taldeari egingo dio aitortza. "Antzuolako Udalarri eta prozesu guztian parte hartu duten herritarrei, tradizioa biziberritzearekin batera bi ildo jorratu dituztelako: genero berdintasuna eta arrazakeriaren kontrako borroka" azpimarratu zuten Hondarribiko Itsas-etxean egindako ekitaldian.



GOIENA

Elkartasun patata tortillak

Herritar boluntarioek egindako 40 patata tortilla pintxotan saldu zituzten aurrekoan Anelkar elkarteko kideek. Askok izan ziren Zurrategi plazan ipinitako mahaietan afaldu zutenak. Pintxoaren salmentekin lortutako dirua Kongoko eta Senegalgo bizilagunen ongizatea hobetzeko proiektuetara bideratu dute.

Poza de la Sal bisitatzea joango dira erretiratuak

Hilaren 21ean egingo dute ikasturteko lehen irteera Landatxopekoek. Poza de la Salen (Burgos) bisita gidatua egingo dute. Izena emateko egunak dira irailak 12 eta 13, 16:30etik 18:00etara, erretiratuaren egoitzan. Autobusa 08:15ean abiatuko da Antiguatik eta 08:30ean, Sagastin geldialdia egin ostean, Burgos aldera joango dira, egun pasa.

Udal ikastaroen gaineko informazioa, hurrengo astean

Ikasturtea hastearrekin batera, Udalak antolatutako ikastaroen zain daude herritarrek. Yoga, eskulan eta gimnasia ikastaroak martxan ipini asmo ditu Udalak. Antolaketa lanetan dihardute orain, urrian hasteko asmoarekin. Horien gaineko informazioa, izen-ematea noiz izango diren barne, hurrengo astean kalera-tuko dute.



Haur hezkuntzako patioan egindako jolastoki berria lanak amaitu berrikan. ELGETAKO UDALA

Amaitu dira oporrak, eta hasi da ikasturte berria

Herri Eskolan 122 ikaslek eman zioten hasiera ikasturte berriari atzo eta haur hezkuntzako jolastoki berriua da nobedade esanguratsuenetako bat. Elgetako haur eskolak, berriz, bost erabiltzailerekin ireki zituen ateak martitzenean

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Eskolan atzo eman zioten hasiera 2023-2024 ikasturteari. Ume gehienak txirrina jotzeko zain egon ziren, eta irakasleek lagunduta egin zuten nork bere ikasgelarako bidea. Ikasturte hasiera samurragoa izan dadin lehenengo bi egunetan –atzo eta gaur– goizeko saioa dute.

Ikasturte honetan 122 ikasle hartuko ditu Elgetako ikastetxeak, iaz baino bost gutxiago. Hamar talde izango ditu eskolak: lau haur hezkuntzan eta sei lehen hezkuntzan. Hala, kinta bakoitzak bere taldea du.

Bost umek eman dute izena bi urteko gelan sartzeko. Gaur, barikua, hasi dira egokitzape-

narekin. Irakasle taldea, berriz, hogeitaz osatzen dute.

Ikasturteko erronkei buruz galdetuta, zuzendaritza taldetik azaldu dute eskolak martxan dituen proiektuei jarraipena ematea izango dela egiteko nagusia eta iaz egindako urmaela, *IkastetxeKlik* energia proiektua eta *Hamaiketako Osasuntsua*



Montse Soto Calderon eta Eneritz Vazquez Ceciaga hezitzaileak. L.Z.L.

Bost ume haur eskola zerbitzuan

Bost umekin zabaldu da haur eskola zerbitzua aurten. Eneritz Vazquez Ceciaga eta Montse Soto Calderon dira hezitzaileak. "Beste urte batzuetan baino haur gehiagorekin hasi dugu ikasturtea. Pozik gaude!", esan dute. Zerbitzua doan da aurten.

aipatu dituzte. "Ikasturte honetan euskararen erabileraren inguruan ere ekintza ezberdinak aurrera eramatea aurreikusten dugu", azaldu dute.

Jolastoki berria

Haur hezkuntzako jolastokian hainbat berrikuntza egin ditu Udalak udan. Espazioan tipi estiloko egurrezko txabola, harrezko txokoa, egurrezko arrapalak eta loreontzi berriak daude, besteak beste. "Oso gustura gaude. Horrelako zerbitzu egiteko beharra sentitzen genuen",

azaldu dute zuzendaritzatik. "Ikasturte hasieran familiek aukera izango dute jolastoki berria ikusteko".

Ludoteka zerbitzuak, berriz, hilaren 11n zabalduko ditu ateak. Interesatuak zabalik dute izen-ematea udaletxean.

UDALAK EGIN DITU JOLASTOKIKO LANAK; 23.375 EUROKO AURREKONTUA IZAN DUTE OBREK



JOSE ANTONIO OJANGUREN

Peru-Harri museoa izan dira

Xalbadorpe elkarteak antolatuta Nafarroa aldean ibili zen argazkiko erretiratu taldea eguaztenean. Iñaki Perurenak Leitzañ zabalduko Peru-Harri museoa ezagutzen izan ziren, besteak beste. Donezteben eta Lesakan ere egin zuten geldialdia. Aurrera begira,

ONCE fundazioaren Oroimena taldearen antzerki emanaldia iragarri dute hilaren 14rako, eta iraileko podologo zerbitzua hilaren 20an izango dela jakinarazi dute. Azken horretarako txanda hartu nahi dutenek Maite Elkorori deitu behar diote; 669 99 81 65.



IÑIGO BARRENA

Ziklisten urteroko hitzordua

Abuztuko azken eguna egun seinalatua izan ohi da profesionalak izandako euskal ziklistendako eta aurten ere 50 lagunetik gora elkartu dira Intxorta elkartearen antolatutako bazkarian. Javier Galdeano, Julian Gorospe, Jokin Mugika, Abraham Olano, Paco Galdos, Migel Mari Lasa edo Josu Loroño kazetaria izan dira bazkarian, besteak beste.



Oñatzeko dantzari gaztetxoek talde bat Bidebarrietako jaietan egindako saioan. OÑATZ DANTZA TALDEA

Sasoï betean ari dira Oñatzeko gaztetxoek

Apiriletik hasita, makina bat irteera egin dituzte Oñatzeko dantzari gaztetxoek, izan herriko auzo ezberdinetan izan herritik kanpora ere. Duen eskaintza banatuko du berriz Oñatzek Lehen Hezkuntzako umeen artean, harrobiak indartsu jarrai dezan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Umetan dantzan hasitakoak dira Oñatzeko dantzari heldu asko. Umetatik hasitako ibilbidea egin dute dantzari izan diren gehienek eta baita egun boluntario moduan umei dantzan erakusten ari zaien gazteak ere. Orduan bezala, egun ere badaude haur dantzariak Oñatzen, badu harrobia herriko dantza taldeak;

290 haur dantzari daude egun Oñatzen, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila bitartean.

Lehen Hezkuntzatik hasita

Eta mimoak, kontuz, zaintzen dituzte haur eta gaztetxo horiek irakasle lanetan ere ari diren ia 40 gazte arduradunek. Jolasean

egiten dituzte lehen entseguak, erritmoa hartuz eta psikomotrizitatea landuz. Eta poliki-poliki hasten dira elementu ezberdinak hartu eta horiekin pausua erritmoarekin batera ematen, izan makilarekin edo arkuarekin, esaterako.

Laster hasiko dute ikasturte berria ere. "Egia esan, zortea dugu. Oñatzen hasteko eskaintza zabal-

Apiriletik azarora irteerak

Legazpiko Haurren Eguna egin zuten urteko lehen irteera dantzari gaztetxoek apirilaren 15ean. Orduetik, Oñatiko zortzi auzotan, Debagoieneko lau herritan eta bailaratik kanpoko beste bost herritan egin dituzte dantza erakustaldiak. Horiez gain, baita erretiratuak eguneko ospakizunean eta adinekoen egoitzako astean. Oraindik, baina, badute beste irteera batzuk egiteko asmoa. Azkena, ohikoa den moduan, Antzuolara egingo dute, datorren azaroran.

Guztira 290 haur dabilta egun Oñatzen eta beste 38 arduradun, horiekin batera. Talde ezberdinak egiten dituzte eta saiatzen dira talde guztiek egitea irteeraren bat edo beste, bakoitzak bere arduradunak ondoan laguntzaile moduan dituztela.

tzen dugu, urtero, Lehen Hezkuntza egiten hasten diren ikasleentz artean, eta urtero izaten dugu erantzun ona. Talde asko egonkortu egiten dira urteak pasa ahala eta berriak ere sortzen dira", dio Oñatz dantza taldeko Arkaitz Bengoak.

Astean behin egiten dituzte entseguak, doakoak dira eta ikasitakoa erakusten ere saiatzen dira. Irteera dezente lotzen saiatzen dira arduradunak, talde guztiek izan dezaten aukera ikasi dutena entsegu lokaletik kanpo erakusteko, jende aurrean. Eta noski, musikariak izaten dituzte ondoan dantzariak erakustaldi horietan. Aita Madina txistulari taldeko txistulariak eta herriko beste batzuk lagundu die irteera askotan, izan herriko auzo ezberdinetan edo izan herritik kanpora egindakoetan. Hilaren 17an, esaterako, Oñatin egingo den Haurren Egunean hartuko dute parte berriz, elkarrekin.

Haurren Eguna da laster

Oñatiko dantzariak ez ezik, beste hainbat herritatik etorritakoak ere izango dira egun horretan Oñatin, 500dik gora ume dantza-

ri elkartu daitezke, eta dagoeneko dena lotzen ari dira Oñatzeko kideak. "Aurten, gainera, ohiko Haurren Eguna ospatuko dugula esan daiteke. Joan den urtean ere egin zen, baina neurriren bat edo beste hartuta oraindik, pandemia osteko lehena izan zen-eta. Esaterako, umeak ez ziren etxetara joan bazkaltzera. Aurten, baina, berreskuratu egingo dugu ohitura hori. Horrela egindako azken hiru urteetan, adibidez, ume denak banatu genituen herritarren etxetara".

Etxeetan berriz, bazkaltzeko

Entseguetan orriak banatuko dituzte umeak hartu gura dituenak betetzeko. Dena dela, edozein oñatiarrek har ditzakeela argitu dute Oñatzekoek, ez bakarrik dantzariak direnek. Interesa dutenek, Oñatzeko edonori esanez egin dezakete eskaera hori.

ASTEAN ENTSEGU BAT EGITEN DUTE ETA BOLUNTARIO GISA, DOAN, ERAKUSTEN DUTE DANTZA

Jai egunetako ordutegia izango dute udal zerbitzuek bihar

Arantzazuko Ama Birjinaren eguna da bihar, zapatua. Eta udal zerbitzuetan jaiegunetako ordutegia beteko dute. Horrela, Zubikoa 09:00etatik 13:30ak arte irekiko dute, liburutegia itxita egongo da eta azoka ere ez da egingo; gaur, egubakoitza, egingo da. Bestalde, Arantzazura joateko, 55 plazako autobusa ibiliko da ordu erdiro.

Tailerrak, lehiaketa eta irteera herriko erretiratuendako

Erretiratuendako hamasei ikastaro antolatu ditu Pake Leku elkarteak. Ikasturtean zehar egingo dituzte egoitzan bertan eta irailaren 15era arte egongo da zabalik izena emateko epea. Bestalde, bertako kideendako udako argazki lehiaketa ere jarri dute martxan. Lagun Leku-koek, berriz, irteera antolatu dute Arantzazura, 14rako.

Auzoko jaiak dira asteburuan Atzeko Kalen eta Arantzazun

Auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan Atzeko Kalen zein Arantzazun. Animalien inguruko bisita gidatu batekin hasi zituzten atzo, eguna, auzo etxean jaiak, eta gaurko tortilla lehiaketarekin jarraituz, domekan amaituko dituzte, salda eta txorizoa eskainiz. Atzeko Kalekoak ere domekara arte luzatuko dira; gaur, Youth United eta Etxepe.

Ospakizun ikasturtea du Ganbara Faktoriak

Kantu Eskolak 20. urteurrena beteko du formazioa eskaintzen, eta Ganbara Abesbatzak 2024ko azaroan beteko ditu 30 urte. Ospakizunak ez ezik, eta urteroko ekintzez gain, ipuin musikatuak, lehiaketak zein zikloak ere egingo dituzte

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Astindu Faktoria Kulturala lelopean, askotariko musika proiektuak landuko dituzte 2023-2024 ikasturtean ere Ganbara Faktoria osatzen duten taldeek. Ipuin musikatuak, lehiaketak, bidaiak, ziklo klasikoak, topaketak, zein izaera sozialeko ekintzak antolatu dituzte berezia izango den ikasturtera begira. Izan ere, Kantu Eskolak 20 urte beteko ditu formazioa eskaintzen, eta Ganbara Abesbatzak 30 urte 2024ko azaroan.

Urteurrenen ospakizunaz gain, baina, urterokoak diren ekintzek ere ez dute hutsik egingo; hala nola, bazkide kontzertuak, Ga-



Ganbara Faktoriako hainbat kide eguazteneko aurkezpenean. MIREN ARREGI

bonetako kontzertuak edota Udako Gauak deritzonak. Azken horretara begira, Oñatiko Txakolinari omenaldia prestatzen ari dira Ganbara Faktoriako kideak.

Etxeko Abesbatza, urritik

Bestalde, azpimarratzekoa baita ere, dagoeneko martxan dagoen Faktoria Soziala proiektua ere. Ekimen horren baitan bat nabarmendu gura izan du Biainek. Izan ere, urrian sortuko da Etxeko Abesbatza eta San Martin Egoitzako egoiliarrek astean, ordu betez, abesbatzan parte hartzeko aukera izango dute.

Horrez gain, Ganbara Faktoriako kideek astean azaldu duten moduan, Ganbara Abesbatzak, esaterako, Euskadiko Orkestrarekin batera, Zinemaldiko musika zikloan kontzertua eskainiko du, hilaren 23an, Donostiako Belodromoan. Hots-ek, emakumeen lana goraipatuko du ikasturtean zehar eta Aequus Ensemble orkestrak ere erronka polita du eskuartean; izan ere, azaroan, kontzertu sinfonikoa egingo baidu.

Euskarazko komikien irakurle taldea ere sortuko da aurten

Lau irakurle talde sortuko dira hastear dagoen ikasturtean udal liburutegian. Euskarazko eta gaztelaniazko Tertulixan, taldeez gain, komikiak landuko dituztenak ere egongo dira; aurten, gainera, baita euskaraz ere. Igor Leturia arrasatearra izango da talde horren dinamizatzailea; gaztelaniazkoan, Kike Infamek jarraituko du. Tertulixan taldeetan, berriz, Itziar Ugarte oñatiarrak gidatuko du euskarazkoa eta Monica Leivak gaztelarazkoa.

Gehienez, 20 lagun egongo dira talde bakoitzean eta aurrez izena emanda osatuko dira. Aurreko urteetan ibili direnek ere izena eman beharko dute epe barruan: irailaren 8tik 23ra. Telefonoz egin dezakete -943 71 61 11- edo whatsapppez mezua bidalita -688 73 28 26-.

Idazketa tailerrak ere egongo dira, Jose Mari Iturralderekin. Urte bakarrekota izango da aurrerantzean eta eduki ezberdinak landuko dituzte urtero.

Bigarren lehiatuko da 'Lagun' txakurra nazioartekoan, Oñatin

Gipuzkoako Artzain Txakur txapelketa irabazi zuen Migel Arregirekin; 'Zeu'-k eta Joxe Mari Bengoak, hirugarren

O.E.G. OÑATI

Migel Arregi oñatiarraren *Lagun* txakurra izan zen garai le joan den domekan Legazpiko Artzain Egunean jokatu zen Gipuzkoako Artzain Txakur txapelketan eta Euskal Herriko eta Nazioarteko txapelketetarako txartela eskuratu zuen. Jose Mari Bengoaren *Zeu* hirugarrena izan zen, eta, beraz, honek ere Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko aukera izango du. Hilaren 16an izango da txapelketa hori Garain eta 24an, berriz, nazioartekoa, Oñatin.



Bengoak, Zeu, Arregi eta Lagun. M.A.

Bigarren aldiz

Bigarren aldiz lehiatuko da, horrenbestez, *Lagun* urtero Oñatin jokatzeko den nazioarteko Artzain Txakur Txapelketan, Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako txakurrik onenekin batera. 2021. urtean ere

lehiatu zen. Migel Arregik gehiagotan hartu du parte: Kataluniako, Gipuzkoako eta Euskal Herriko artzain-txakur txapelketak irabazi zituen Arantzazuko Azpilleta baserriko Migel Arregik, bata bestearen atzetik, 1971n.

DEBAGOIENENKO

GREMIOAK

AROTZEGIAK
AZKARATE AROTZEGIA
BERGARA
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

LOREZAINZTA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

"Epe motzeko helburuak jarrita arituko gara"

ANDER ARRIZABALAGA FAGOR PROFESSIONAL-ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA
Entrenatzaile berria izango du denboraldi honetan eskubaloiko senior taldeak, baita jokalaria batzuk ere. Elkar ezagutzen ari dira denboraldi-aurrean

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Fagor Professional-Aloña Mendi taldeko entrenatzaile berria da Ander Arrizabalaga Guridi (Oñati, 2000). Eskubaloi jokalaria izandakoa da, baita beste kategoriatzat batzuetako entrenatzailea ere, eta ilusioz hartu du erronka.

Zerk bultzatu zintuen Fagor Professional taldearen ardura hartzea? Nola eta zergatik hartu zenuen erabaki hori?

Beti gustatu izan zait entrenatzailearen lana. Aurretik, Aloña Mendiko beste kategoriatzat batzuetan ibili naiz lan horretan. Maila honetako taldean horren beharra zegoela ikusita, ideia ona izan zitekeela pentsatu nuen. Gustura nago.

Erraz hartu zenuen erabakia?

Buelta asko eman diot, egia esan, kategoriatzat honek bertigoa ematen du-eta. Baina azkenean erabaki azkarra ere izan da, joan den urtean ere izan genuen buruan eta aurten mantendu egin da gogo hori.

Elkartea eta entrenatzaile lana, biak ezagutzen dituzu. Jokalariak ere ziurrenik bai... Erabakia hartzen lagundu dizu horrek guztiak?

Elkartearen funtzionamendua eta nortasuna oso ondo ezagutzen ditut. Bertako jokalaria eta entrenatzailea izan naiz. Urte asko daramatzat Aloña Mendiko eskubaloi sailaren barruan, modu batera edo bestera, eta alde horretatik ez da arazorik egon.

Senior mailako lehen taldean, baina, orain arte egon gabea zara. Erronka handia izango da?

Senior mailan, lurralde mailan jokatzen duen taldearekin entrenatu dut, baina hori zeharo ezberdina da. Euskadiko Ligan, guk, orain, beste erantzukizun batzuk ditugu.

Hasi duzue denboraldi-aurrea. Nola ikusi duzu taldea?

Badira bi aste lanean hasi gara eta ondo ikusi dut. Gazteak dira jokalaria, eta fisikoki in-



Ander Arrizabalaga. GOIENA

"ELKARTEAREN FUNTZIONAMENDUA ETA NORTASUNA OSO ONDO EZAGUTZEN DITUT"

dartsu daude. Egia da, ordea, dagoeneko denboraldi-aurreko partidu bat jokatu dugula eta ikusi dela oraindik badugula zer landua. Hala ere, hilabete gelditzen zaigu oraindik liga hasteko.

Nolakoa da taldea? Badu berritasunik?

Taldetik, azken bost urte hauetan, bi belaunaldi pasa dira; aurten, bigarrena. Hala ere, jokalaria denak ez dira berriak, aurreko urteetako batzuk jarraitzen dute. **Zein da jarritako helburua?**

Aurten poliki-poliki joan behar gara, epe motzeko helburuak jarritz. Epe luzeak oraindik ezin ditugu jarri; jokalaria gazteak dira, batzuentzako lehen urtea talde honetan. Helburuak denboraldia aurrera joan ahala jarriko ditugu.

Lehen partidua, Erromon

Joan den urteko denboraldia amaitu eta handik aste batzuetara jakin zuten Fagor Professional-Aloña Mendi taldeak mailari eustea lortu zuela. Mailaz jaisteko fasea jokatu zuten oñatiarrek, baina goiko kategorian jokatu zuten emaitzek baldintzatu zuten denboraldia. Etxekoen aldekoa, zorionez. Aurten ere, beraz, senior mailan jokatuko du, Euskal ligan. Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban jokatuko ditu partiduak eta bidaiatzea tokatuko zaie jokalariei eta teknikoei. Hain zuzen ere, lehen partiduan, esaterako, etxetik kanpo lehiatuko dira: Erromon (Bizkaia). Datorren hilabetean, urriaren 8ko asteburuan jokatuko du partidu hori Arrizabalagaren taldeak. Etxean jokatuko duen partidua hurrengo izango da, Urdulizen kontra.



Lehen txirrindulariak helmugara heltzen joan den urteko lasterketan. TOKIKOM

Moldaketak ditu Gary Bañosen omenezko biharko lasterketak

Aloña Mendiko gazte mailako lauk eta kadete mailako batek hartuko dute parte biharko lasterketan

O.E.G. OÑATI

Gazte mailako eta bigarren urteko kadeteek osatuko dute biharko tropela Gary Bañosen omenez hirugarrenez egingo den lasterketan. Aurreko urteetako ibilbide bera egingo dute txirrindulariek, baina badago aldatuta bat: Atagoiti igo egingo dute aurten, eta ez jaitsi.

Unibertsitate etorbidean hasi eta bukatuko da lasterketa, 10:00etan hasita. Udana igo ostean, Aztiriara joango dira txirrindulariak, handik Zegamara eta Atagoiti igoko dute Liernitik pasa ostean. Horixe izango da

aurtengoak izango duen moldaketa. Guztira 84 kilometro egingo dituzte eta tartean ibiliko dira Aloña Mendi-Ulma taldeko lau txirrindulari gazte: Unax Errasti, Beñat Iñarra, Aritz Arregi eta Alex Berristain. Horiez gain, baita bigarren urteko Xabat Irizar kadeteak.

65 boluntario

Lasterketarako, 65 laguneko boluntario taldea izango du prest Aloña Mendik: 50 bat lagun bide gurutzeetan egongo dira eta hamabostek motor gainean jarraituko dituzte txirrindulariak.

Domekan bukatuko da ur txorrotetako eta Usakoko denboraldia


Domekan, irailak 10, bukatuko da udako bainu denboraldia Usakon eta San Lorentzoko ur parkean. Datorren astelehenean, beraz, ez da soroslerik egongo arratsaldean Usakon eta ur parkeko txorrotak ere ez dute urrik emango. Zubikoako belardia, baina, hilaren 28ra arte egongo da zabalik.

Usakon, halere, aste honetan ere debekatuta dago bainua eta horrela itxiko da aurtengo denboraldia. Hartutako azken ur lagin emaitzetan ikusi dute araututakoa baino altuagoa dela oraindik E.Coli bakterioaren kopurua eta, beraz, bainua debekatuta dagoen oharrak indarrean jarraitzen du.

Kiroldegiko tabernaren lizitazio berria ireki du Udalak

Zubikoa kiroldegiko tabernaren esleipen berria egiteko bidea martxan jarri du Udalak. Bi urtetarako kontratua eskaintzen du, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Lizitazioaren aurrekontua 85.155 eurotan finkatu da. Hileko gutxieneko errenta, berriz, 200 euro (+BEZ) izango da, baina prezio hori igo dezakete lizitatuak eta horren arabera puntuazioa jasoko dute esleipenerako balorazioan. Proposamen ekonomikoarekin, lanerako plangintza ere aurkeztu behar dute. Zalantzak irailaren 15era arte argitu ditzakete Udalan interesdunek; izen-ematea 25ean amaitzen da.



19. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Bidali zure argazkiak irailaren 18ra arte
posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus)
edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07).
Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak
ezagutzeko, sartu 'Goiena.eus'-en.




Jacuzzi Gatzagan | Argazkia: Juan Luis Zabala (Leintz Gatzaga)



Ibaniako artzaina | Argazkia: Beñat Abasolo (Aretxabaleta)



Bibaka eta pertseidak Peña Prieta mendian | Argazkia: Mikel Lasa (Bergara)



Kuba | Argazkia: Miren Barrenetxea Iñarra (Arrasate)




Girona | Argazkia: Irati Urzelai (Aretxabaleta)



Abuztuak 3, Zarautz | Argazkia: Ander Zubia Gainzarain (Eskoriatza)



Oporto | Argazkia: Bittor Munarriz Rubio (Bergara)



Menorca | Argazkia: Julen Garai Markaide (Aretxabaleta)



Cuzcurrita | Argazkia: Javier Zumelaga Aguirre (Oñati)



Argazki guztiak kanal
berezi honetan:
[https://labur.eus/
udakoargazkiak-2023](https://labur.eus/udakoargazkiak-2023)

ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jateetxea

BERGARA
**EREIN
DA
JAN**

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

Ikazkin Trailen bigarrena, parte-hartze hobearrekin

MENDI LASTERKETAK Bihar, zapatua (10:00) egingo dute Aretxabaletako mendi lasterketaren bigarren edizioa. Iaz baino 42 lagun gehiagok eman dute izena (168); gogortasunean eragin barik, ibilbidean aldaketa txikiak egin behar izan dituzte

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Ikazkin Trailek, bigarren urtean, gora egin du lasterkarien parte-hartze kopuruan. Lehenengo edizioan 125 korrikalari batu ziren irteera puntuan, eta bihar, zapatua (10:00) 168 lagunek hasiko dute lasterketa Durana kalean. "Ea datorren urtean 200 animatzen diren", dio umorez antolaketa taldeko kide Julen Ezeizak. Datuei erreparatuta, lasterkarien %60a debagoiendarra da -Arrasatekoak 35, Aretxabaletakoak 26, Oñatikoak 13, Bergarakoak 12, Eskoriatzakoak 9, Aramaiokoak 3, eta Antzuolako eta Elgetako bana- eta kanpotik datozenen artean iazko irabazle Aitor Zunzunegi ez da proban egongo.

Emakumezkoek dagokienez, guztira, 19 batuko dira irteeran, eta Ainara Urrutiak, iazko azkarrenak, egunotan erabakiko du lasterketan esku hartu ala ez. Urrutiari bihotzak baietz esaten dio, eta buruak ezetz, datorren astean Italiara joan behar duelako mendi maratonia egitera. Ezeizak adierazi du, badaezpada, dortsala gorde diotela.

Aldaketa txiki batzuk ibilbidean Antolatzaileek aldaketa txiki batzuk egin behar izan dituzte



Arientza gaineko pinudian aldatu dute ibilbidea. Erretratuan, Urrutia hor, iaz. X.U.

"ARIENTZA GAINEKO PINUDIAN ALDAKETAK EGONGO DIRA"

"IA BI KILOMETRO GEHIAGO EGINGO DITUZTE ARIENTZAN"

"DEGURIXAN TARTE BAT LABURTU DUGU, BIDEA EZ LUZATZEKO"

JULEN EZEIZA, ANTOLATZAILEA

bidean: "Kurtzebarrira igotzeko Arientza gainean ez dugu iazko pinudia zeharkatuko. Ondorioz, igoera apur bat luzatu dugu eta 21,5 kilometrotako distantziari eutsi gura genionez Degurixa inguruan tarteren bat laburtu egin dugu. Ez genuen lasterketa gogortu nahi herri mailako lasterkariak etortzea nahi dugulako, eta aldaketak egin ezean probak 23 kilometro pasa izango zituen. Ibilbidearen %95a iazkoa da". Azkarrenak bi ordu baino gutxiago beharko ditu helmugara iristeko.


"Matterhorn teknikoa izan zen, Ajuriaren laguntza eskertu nuen"

AINARA URRUTIA DOMUSA TEKNIK-EKO LASTERKARIA

Ainara Urrutia joan den astean Matterhorn Ultraks lasterketan 10 onenen artean sailkatu zen, eta udan Skyrunning zirkuituko beste lasterketa batzuetan egindako lanari esker -Madeiran hirugarrena izan zen- urriaren amaieran Italian izango da, Skymaster setako finalean. Azken lasterketaren gainean galdetuta hunkitu ere egin da aretxabaletarra.

Sare sozialetan zabalduko irudietan ikusi dugu Matterhorneko helmuga berezia izan zela...

Bai, Euskal selekzioko taldekide Aitor Ajuriak arazoak izan zituen



GOIENA

lasterketan zehar eta niri itxarotea erabaki zuen, jaitsieran laguntzeko. Askok eskertu nion keinu hura, sekulako detailea izan zen, oso lasterketa gogorra izan zelako eta asko lagundu zidalako. 25 kilometrotako proba izan zen eta garaiera handian ibili ginen, 3.000 metrotatik gora eta ni ez nago ohituta. Zazpi kilometroko

tartea egin genuen 3.400 metrora, eta tarte batzuetan oso ibilbide teknikoa izan genuen eta momentu batzuetan buruari ere eragiten diozu... Horregatik diot Ajuriaren laguntza asko eskertu nuela. Halako jendeaz egin dut topo Euskal selekzioan, jende jatorraz. Oso babestuta sentitu naiz beti eta oso eskertuta nago, talde horretako kide izateaz harro.

Urriaren 28ko finalerako sailkatu zara... Munduko onenak batzen dira hor.

Sekulako maila egongo da, urtero maila igotzen doala esango nuke, baina bereziki aurten asko igarri dut hori. Limone Sul Gardan izango da lasterketa, Italian, Limonextreme deritzona, eta hara sailkatu izana gauza handia izan da. Ea zerbait polita egin dezakedan, saiatu behintzat egingo gara.

Lehenago ere ibiliko zara nazioartean...

Bai, datorren asteburuan Italiara noa Skyrunning zirkuituko beste lasterketa batera, Grignesky deritzona. Hau maratonia da eta orain arte egin dudako lasterketa luzeena izango da. Hor hamar onenen artean egotea oso zaila izango da...

Lasterketa hori tarteko zapatuan Ikazkin Trail egiteko zalantzatan zaude...

Bai, astea zelatan doan ikusiko dut eta azken orduan erabakiko dut lasterketa egin ala ez. Noski, herriko lasterketan parte hartzea betik da berezia, baina irteera puntuan ez banago ibilbidean zehar egongo naiz korrikalariak animatzen, ez izan zalantzarik.

Euskoraid-eko lagunak Raidaran lasterketa irabazi dute Vielhan

RAID-A Aitor Otamendi oñatiarra egon da tartean; 24 talderen artean nabarmendu dira Aran bailaran

X.U. ARRASATE

Aitor Otamendi oñatiarrak, Ibarako Beñat Oiarzabalek, Elgoibarko Imanol Garaizabalek eta Mendexako Naia Quincocesek osatzen dute Euskoraid taldea. Eta, Euroseries zirkuitu barruan

dagoen Raidaran lasterketa irabazi dute asteburuan.

Egubakoitzean 14:00etan hasi zuten proba, eta 48 ordu izan zituzten 200 kilometro eta 9.000 metro positiboko ibilbidea gainditzeko: "Arango bailarak au-

kera handiak ematen ditu eta raid osoa izan da. Mendian korrika egin dugu, bizikletan ibili gara, raftinga egin dugu, ferrata bideak, kanoi jaitsiera... Ederra izan da. Eta gainera, nazioarteko probetan lehenago ere gure aurretik sailkatu izan den talde frantziarra atzean utzi dugu, eta errebantxa hori hartzea ere gauza polita izan da", dio oñatiarrak barrez. Garaipen horrekin irail amaieran egingo duten Europako txapelketara sailkatu dira.



Euskoraideko taldekideak, domekan Vielhako helmugan. RAUL COMINO



Mikel Molina, Bergarako jokalaria, baloiarekin, Zumaikoren aurkako partidaren. IMANOL SORIANO

Bergara eta UDA lehiari ekiteko prest dira

FUTBOLA Bihar hasiko dute denboraldia Ohorezko Erregional Mailan jokatuko duten bailarako bi taldeek. Mahoneroek Elgoibarren aurka hasiko dute denboraldia (17:00); UDAk ere etxetik kanpo hasiko du liga, Amaikak Bat taldeari bisita eginda (17:30)

Iñigo Barrena Kortabarria

DEBAGOIENA

Iazko denboraldian bi jaitsiera baieztatu ostean, Bergara eta UDA izango dira aurten Gizonzkoen Ohorezko Erregional Mailan lehiatuko diren bailarako bi talde bakarrak. Bihar bertan ekingo diote bi taldeek liga txapelketari, eta, biak ala biak etxetik kanpo estreinatuko dira. Mahoneroek Elgoibarren jokatuko dute arratsaldeko 17:00etan hasita; ordu erdi beranduago hasiko da Amaikak Bat eta UDA taldeen arteko norgehiagoka Deban.

Bi entrenatzaileak, Unai Calzon eta Iker Ruiz de Larramendi "pozik" agertu dira denboraldi-aurrean egindako lanarekin, eta talde "sendoa" osatu dutelakoan daude. Bergarak fitxaketa bakarra egin du denboraldi berrirako, Julen Garmendia aurrelari elgetarra, eta, gainontzeko fitxaketak bigarren taldeetik eta gazte mailako taldeetik etorri dira. UDAREN kasua bes-

telakoa da, baja garrantzitsuak izan dituzte aretxabaletarrek; horren ondorioz, bost fitxaketa egin dituzte taldea osatzeko.

Ondo hastearren garrantzia

Denboraldi aurreko prestaketak albo batera utzita, benetan garrantzitsuena, bihar zelaian jokoan egongo diren hiru puntuak izango dira. Denboraldia ondo hasteak bere garrantzia izaten du, eta, hori ondo baino hobeto dakite Bergarak eta UDAk. Nahiz eta iazko denboraldian arazorik ez zuten izan kategorian mantentzeko, hasiera ez batera ona izan eta atzetik aurrerako lana egin behar izan zuten.

Aurten hori ekiditea izango da eman beharreko lehen pau-

BERGARAK 17:00ETAN JOKATUKO DU, BIHAR, ELGOIBARREN; UDAK, BERRIZ, 17:30ETAN, DEBAN

soa, baina bi taldeek finkatuta dituzte helburuak. UDAko entrenatzaileak sailkapenean "ahalik eta goren" gelditzeko asmoa agertu du, baina, era berean, jokalarien onena ateratzea dela azpimarratu du; horretarako talde "indartsua" dutela uste du. Iker Ruiz de Larramendik argi du ez duela nahi iazkoa errepikatzea eta taldeak "hobetzen" jarraitzeko asmoa agertu du. Bestalde, kategorian "zaila" dela dio eta "edozer" pasa daitekeela jardunaldi bakoitzean, baina horrek lehiaketa "interesgarriagoa" izatea dakarrela ere aipatu du.

Gorengo maila, ate joka

Datorren astean hasiko da denboraldia eta aurten lau talde izango dira Gorengo mailan, Aloña Mendi, Mondra, Antzuola eta Aretxabaleta B. Lehen biak maila galdu zuten iaz, eta, nola ez, helburua goiko postuetan egotea eta mailaz igotzea izango da.

Berrogeita hiru auto lehiatuko dira Aramaioko Rallysprintean

AUTOMOBILISMOA Lau manga jokatuko dira bi txandatan banatuta. Lehen eguerdiko 12:00etan hasita

I.B.K. ARAMAIO

Motor hotsak iritsiko dira bihar Aramaiora bertako rallysprintaren hogeita bigarren edizioa jokatuko baita egun guztian zehar. Urtero herrian ikusmina pizten duen ekitaldia izaten da rallysprinta eta aurten ere halaxe izatea espero dute antolakuntzatik. Izen-ematea jada itxita dago eta guztira berrogeita hiru auto irtengo dira errepidera bihar.

Goizetik hasi eta iluntzera arte luzatuko da proba. Parte hartzaileek guztira lau manga jokatuko dituzte bi txanda-

tan banatuta. Lehen txandako lehen autoa eguerdiko 12:00etan irtengo da, eta, gainontzekoak minutu batera irtengo dira. Behin goizeko lanak amaituta pare bat orduko etena egingo dute berriz ere lehiatzera irten aurretik. Arratsaldeko txanda 16:00etan hasiko da eta hemen ere minutu bateko tartearekin irtengo dira parte hartzaileak.

Ibilbidean ez da aldaketarik egongo iazkoarekin alderatuz. Ikusleentzat, berriz, ohar bat, ikustera joan nahi duenarentzat errepidea goizeko 11:00etan moztuko dutelako.



Iazko Rallysprinteko irudia. GOIENA

Eneritz Urrutia arrasatearrak Nagore Triatloia irabazi du

TRIATLOIA Hirugarren edizioa zen aurtengoa, eta, horrez gain, Nafarroako Triatloi Olinpikoko Txapelketa da

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE Eneritz Urrutia arrasatearrak Nagore Triatloia irabaztea lortu zuen pasa den astean. Gainera, lasterketa, Nafarroako Triatloi Olinpikoko Txapelketa zen aldi berean, eta, ondorioz, hemen ere irabazle izan zen Urrutia.

Garaipena, ordea, ez zen batera erraza izan eguraldi txarrak baldintzatutako lasterketa izan baitzen. Hasiera batean parte hartzaileek 1,5 kilometro igerian, 40 kilometro bizikletan eta 10 kilometro korrika batzen zituen ibilbidea osatu beharra zuten.

Kontrako eguraldiak, ordea, aldaketa batzuk ekarri zituen, lasterketa bera hasita zegoenean; uretako zatia, 1,1 kilometrorra jaitsi zuten antolakuntzako ki-deek.

Bizikletako zatira bigarren postuan atera zen Eneritz Urrutia, eta euri jasa handia egin bazuen ere, lehen sailkatua harapatzea lortu zuen. Korrika egiteko unean, arriskatu eta lehen postuan helmugaratzea lortu zuen. Berarekin igo ziren podiumera, Nuria Rodriguez eta Angela Muñoz.

"Beharrezkoak dira ikerketarako laguntzak"

EÑAUT ZUBIZARRETA 'TRIGGER' MUSIKARIA

Harizko instrumentuak ikasten ari direnendako, 60 kapitulurekin osatutako doako ikastaroa argitaratu du, astelehenean, Youtuben duen *Triggerprototxelo* kanalean

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARETXABALETA

Abuztuan atsedena hartuta, erronkaz beteriko ikasturtea hasi du. Arizmendi ikastolan musika irakaslea izango da eta horrez gainera, *online* irakasle rolean ere jardungo du irailaren 11n estreinatuko du-eta sortu duen *Harizko instrumentuak musika modernoan murgiltzeko* izeneko *online* ikastaroa.

Iruneko Udalak iaz argitaratu zuen Iñigo Muguruza bekaren laguntzarekin egindako lana da. Ze sentsazio duzu *online* ikastaro hori argitaratzeko bezperatan?

Perspektiba apur batekin ikusita, pozik nago. Lan txukuna eta mardula geratu da eta bertako musikariei teknika eta lengoaia berri baten formatzeko aukera emango diela esango nuke.

Beharrezkoak dira diru-laguntzak halako proiektuak gauzatzeko?

Behar-beharrezkoak. Sari ekonomikoari dagokionez, esango nuke, Euskal Herriko handienetako bat dela Irungoa eta, gainera, aipagarria da musika ikerketara dagoelako zuzenduta. **Youtuben duzun *Triggerprototxelo* kanalean izango da ikastaroa dohainik eskuragarri; ze helburu du?**

Bada denbora bat tematuta nagoela bertako instrumentistak



Eñaut Zubizarreta *Trigger* musikaria, estudioan lanean. JON ANDER ALBERDI

"EUSKAL HERRIKO INSTRUMENTISTAK AHALDUNTZEN LAGUNTZEKO HELBURUA DU"

ahaldundu guran; izan ere, musika klasikoaz gain, harizko instrumentuekin beste musika batzuk interpretatu daitezkeela uste dut. Hori da euskarri nagusia eta Euskal Herriko musika garaikidearekin lotu dut hori.

Azken 50 urteetan egin diren abestiak hartu ditut eredutzat -80ko hamarkadatik hasi eta gaur egunekoak ere bai- eta abesti bakoitza teknika jakin baten kokatu dut, transkripzio batzuk lagun, abesti horiek erabili teknika horiek lantzeko. **Adibide moduan ipiniko ditugu RIP eta Anari aukeratu dituzunen artean.** Euskal musikagintza aberatsa dela erakutsi gura nuen eta belaunaldiak aldatzearekin musika ere aldatu egin dela nahiz eta elkarren arteko zubiak izan. RIPen *No hay futuro* da zaha-

rrenetarikoa, eta berrienen artean, Odei musikariaren bat; eta tartean daude, Anari, Raimundo Canastero, Liher, SA.... Aukeraketa zabala egin dut estiloari eta garaiari begiratuta. **60 kapitulu dira; zein da egitura?**

Lehenengo hurbilpen teoriko bat egiten dut, ariketa generikoak azaltzen ditut ondoren, beharrezkoa den idazketaren atala sartu dut gero, eta buru belarri errekurtsio teknikoetan sartu naiz, horietarako kantuak erabili, laugarrenean. Euskaraz da ikastaroa, gaztelerazko eta ingelesezko azpitituluekin.

Ikastaroa argitaratu ondoren jarraipenik egingo diozu?

Hala espero dut; kapitulu bakoitzean barruko youtuber-sena ateratu dut zalantzarik izanez gero, bertan dagoen helbide elektronikora idazteko proposatuta; izan ere, tutorialak pilulak dira eta hortik zuzenean ikastea oso zaila da bestelako laguntza barik.

Zelan izan da egiteko prozesua?

Lan handiena kapituluaren egituraketa izan da eta ondoren kapitulu bakoitzeko gidoiak idaztea, eta, grabatzerako orduan, *telepronterra* ezinbestekoa izan da! Lengoaia formal baten egin da, ez da-eta inprobisazioa bateragarria.

Denak batera eskegiko dituzu?

Bai, denak batera izango dira irailaren 11n hasita ikusgai, horrela erabiltzaile bakoitzak izango du bere erritmoa aukeratzeko bidea.

Aurrez aurreko irakasle ere bazara; hori ere erronka berria?

Bai; hezkuntza formalean estreinako jardungo dut urte osorako ikastola baten; beste mundu edo arlo bat ezagutzen ari naiz, ea, bada, hezkuntza espezifikoa geroekin bateratzea lortzen dudana.

Neomak taldea urrian Asia Mendebaldean izango da

Bizkaiko Sua taldearekin batera bost kontzertu eskainiko dituzte Hego Korean eta Japonian

A. Aranburuzabala ARRASATE

Arrasateko musikariak kide dituen Neomak musika taldeak uda emankorra izan du iazko martxoan argitaratutako diskoa askotariko txokoetan "arrakastaz" aurkezteko aukera izan du-eta. Udazkenari ere indartsu ekingo diete, horren erakusle, urriko lehen hamabostaldian Hego Koreako eta Japoniako musika jaialdi "ezagunetan" parte hartuko dutela.

Bost kontzertu

Seulen, Hego Koreako hiriburuan, egiten duten *Zaindari festa* ezagunetan ekingo diete birari. "Showcase erako kontzertu bana eskainiko dute Asiako eta mundu osoko programatzailen eta musika arloko langileen aurrean, eta, ondoren, hango Musinsa Garage areto mitikoan *Basque Night* edo *Euskal Gaualdia* izeneko ekimenaren baitan izango dira. *Fight for rights* jaialdian borobilduko dute Hego Koreako bira", azaldu dute Mauka Musikagintzatik.

Japoniara joango dira ondoren eta bina emanaldi eskainiko dituzte euskal ordezkaritza zabala izango duen beste bi jaialditan Euskal Herrirako bidea hartu aurretik.

LEINTZ GATZAGAKO ANDRAMAIXAK

GOIENA TELEBISTAN, JAIK SAIOA

MARTITZENEAN, IRAILAREN 12AN, 19:30/21:30/23:30



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Sara Azurza Donostiako musikariaren emanaldia bihar, zapatua, izango da Oreixa Akustikoak zikloaren baitan. MARKEL ARRAYAGO

Emakumeek gidatutako askotariko kontzertuak

Euskal Herriko Olaia Inziarte eta Sara Azurza musikari gazteak, eta Madrilgo Emilia y Pablo bikotea izango dira Oreixe Akustikoak musika zikloaren lehen asteburuan protagonista; 'Arrasate.eus' atarian daude, bost eurotan, sarrerak eskuragarri

A. A. J. ARRASATE

Izen berriarekin –Oreixe Akustikoak– eta toki eta ordu aldaketarekin –Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean, 19:30ean–, baina aurreko hamalau aldietako izaera berarekin, hau da, "formatu txikiko musika formazioak eta eskualdean ez-ohiko musika eskaintza aberasteko helburuarekin" abiatuko du Arrasateko Udaleko Kultura sailak gaur, egubakoitza, bi asteburutan banatuta, eskainiko duten sei kontzerturekin osatutako sorta.

Nafarroako Oronoz herriko Olaia Inziartek zabalduko du hamabosgarren musika zikloaren egitaraua. "Modu baten definitzearen, pop iluna egiten du nahiz eta askotariko estiloen nahasketa ere baduen. Gaztea bada ere, eskarmentua du musika arloan, hainbat taldetan ibili izan da aurrez, eta iazko Durango Azokan aurkeztu zuen berak sinatutako estreinakoa. Hirukote akustiko forma-

tuari dator. Zaleen artean jakin-mina sortu du, horren erakusle sarreraren aurre salmenta oso ondo doala. Emanaldi guztietarako sarrerak bost eurotan daude *Arrasate.eus* atarian eskuragarri eta guztiak agortu ezean, kontzertuen egunetan, aretoan", azaldu du Arrasateko Udaleko Kultura teknikari Karmelo Alberdik, asteon, Arrasate Irratian.

Sara Azurzaren laukotea, bihar 17 urte zituela eta Lauroba anaiak lagun, igo zen oholtza gainera estreinakoz bihar JAMEko auditoriumean lekukoa hartuko duen Sara Azurza donostiarrak. Uztailean Oñatiko Santana antzokian eskaini zuen kontzertu-

OLAIA INZIARTE HIRUKOTEA, SARA AZURZA LAUKOTEA ETA EMILIA Y PABLO BIKOTEA ASTEBURUAN

ko oroitzapen goxoekin "gogotsu" dator urtarrilean argitaratu zuen *Hemen berriro* diskoa aurkezte- ra. Hala kontatu du Arrasate Irratian: "Asko gustatu zait eskaintza orokorrean; plazera da Olaia Inziarte eta Verde Prato moduko artista handiekin kartela partekatzea". Soul, funk, pop, elektronika eta bestelako doinuaren nahasketa eskainiko du laukote formatuan.

Domekan, bikote txiletarra "Formazio bitxiak" ezagutzera ematea du helburu Arrasateko Udalaren ziklo akustikoak eta oraingoan ere hala dela dio Alberdik etzi, domeka, izango diren Emilia y Pablo bikotea aurkeztekoan. "Txilekoak dira, baina Madrilen bizi diren eskarmentu handiko artistak dira. Antzerkigintza eta performance diziplinatik datoz eta musikari dagokionez, nahasketa bitxia eskaintzen dute, hau da, folklore latinoamerikarraren eta flamenkoaren nahasketa".

Goienakideen txokoa

IRAILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua

Kobo Nia e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzelehen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 10/10/2023 lehen ordea, jaiarazteko eguna zuzendutakoan Goiena Foruakoa Tebituaren Foruak atarian zuzendutakoan da. Zuzendutakoan haren helburu bakarra da irabazlearen izena zuzendutakoan. Ekitaldiaren ondoren zuzendutakoan, helburu bakarra da irabazlearen izena zuzendutakoan. goienakide@goiena.eus

Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek. Reale Arena futbol zelaiako premium guneak. Partida irailaren 24an, domeka, 14:00etan.



Parte hartzeko azken eguna: irailaren 17a

Irabazi bi lagunendako otordua

GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu partel! Parte hartzeko azken eguna: irailak 12



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jotetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 45€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate. Logela bakarrek apartamentu baten bila nabil. Lanpostu finkoa duen mutiko bakar eta arduratsua. Deitu telefono zenbaki honetara: 642 98 98 06

Oñati. Oñatin logela bat edo biko etxebizitza behar dut errentan hartzeko. Mutil arduratsua, lan finkoarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 659 50 57 09

105. ETXEA OSATU

Arrasate eta inguruak. Logela bila ari naiz. Oñatin lan egiten dudana 48 urteko emakume arduratsua naiz. Deitu 693 73 72 02 edo 648 48 82 74 telefono zenbakietara.

2. GARAJEAK

202. EROSI

Arrasate. Garaje itxia edo trastelekua erosiko nuke San Andresen edo Arimazubi inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 70 84 09

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Orduz aldetik prestasuna duen pertsona bat behar dugu umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 33 80 00

Arrasate. Bi pertsona nagusi etxean bertan bizi izaten zaintzeko pertsona bat behar dugu. Legezko agiriarekin eta soziosanitario titulazioarekin. Kontratua egongo zaio. 661 33 37 91 edo 678 37 32 43

Arrasate. Neska bat behar dugu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Titulazioa derrigorrezkoa. Deitu 669 11 28 94 telefono zenbakira. (Marisol)

402. ESKAERAK

Arrasate eta Aretxabaleta. Orduka edota gauetan lan egingo nuke. 18 urteko lan esperientziadun neska. Gida baimena, Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 677 14 64 29

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut Arrasate, Bergara edo Eskoriatzan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658 95 73 51

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei pasatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 73 87 95

Bergara edo Antzuola. Emakumea gertu arratsaldetan eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 613 58 64 68

Bergara edo Antzuola. Mutila arratsaldetan eta asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 613 58 65 93

Bergara. Neska gaztea, euskalduna, arduratsua eta konprometitua. Magisteritza ikasketekin, eta umeak zaintzeko prest. 943 76 71 97 edo 671 98 33 40.

Debagoiena. Arratsaldetan edota aste bukaeran lan egingo nuke. Soziosanitario titulua ateratzen ari naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 669 87 62 75

Debagoiena. Astebukeratan eta astean zehar orduka lan egingo nuke. Esperientzia eta soziosanitario titulua ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 604 88 27 26

Debagoiena. Astebukeratan eta astean zehar orduka lan egingo presta dagoen esperientziadun neska. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 677 14 64 29

Debagoiena. Emakume arduratsua, legezko agiriarekin eta soziosanitario ikasketekin, etxean bertan bizi izaten, gauetan zein asteburuetan zaintzak egiteko eta denetarioko garbiketarako egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 626 91 49 04

Debagoiena. Emakumea gertu egunean zehar garbiketarako, zaintza zein sukaldelana egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 34 57 13

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko langile moduan, garbiketarako edota nagusiak zaintzen lan egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 19 08 26

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Astean zehar orduka, asteburuetan edota gauetan, etxean zein ospitalean. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 80 15 38

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketarako lanerako zein haurrak edo nagusiak zaintzeko. Orduzko aukera guztiak. Deitu telefono zenbaki honetara: 624 70 34 83 (David)

Debagoiena. Mutila lan bila: nagusiak zaintzen, tabernari, margotzen,

Debagoiena. Etxeko lanak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea naiz. Soziosanitario titulua daukat eta lanean hasteko gertu nago. 662 02 45 80

Debagoiena. Etxeko langile eta zainzaile moduan aritzeko gertu nago orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. Soziosanitario titulazioarekin. Deitu 722.56.41.16 zenbakira.

Debagoiena. Garbiketarako edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, asteburuetan. Deitu: 612 56 12 39

Debagoiena. Gauetan eta goizetan zaintza lanak egiteko gertu nago. Legezko agiriak, soziosanitario titulazioa eta abar guztiak. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Gizonezkoa gertu garbiketarako zein haurrak edo nagusiak zaintzeko. Orduzko aukera guztiak. 624 70 34 83 (David)

Debagoiena. Mutila lan bila: nagusiak zaintzen, tabernari, margotzen,

garbitzen edo beste. Orduka edo asteburuetan ere bai. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 60 13 62

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta denetarioko garbiketarako egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 63 77 38

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario titulazioa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 30 33 27

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak edo umeak zaintzen eta garbiketarako aritzeko gertu. Prestasun osoa. 631 93 11 90

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak edo umeak zaintzen eta garbiketarako aritzeko gertu. Prestasun osoa. 602 34 13 00

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak edo umeak zaintzen eta garbiketarako aritzeko gertu. Prestasun osoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 41 02 49

Debagoiena. Orduka, garbiketarako lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo prest nago. Erizaintzako laguntzaile naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 620 23 58 15

Debagoiena. Soziosanitario ikasketak dituen mutila jardun osoz zaintzen, sukaldelana egiteko edota garbiketarako aritzeko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 87 65 07

Debagoiena. Soziosanitario ikasketak dituen neska lanerako gertu. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 34 22 25

Debagoiena. Soziosanitario ikasketak dituen neska umeak eta nagusiak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu. Prestasun osoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 64 25 54

Debagoiena. Zaintza lanak egiteko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan, gauak etxean zein ospitalean eta abar. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 80 15 38;

ZORION AGURRAK



BERGARA Haizea Iturrospe Arrendo 14an, 12 urte. Zorionak! Ondo ospatu zure eguna. Muxu bat danon partetik.



ARRASATE Izaro Etxeberria Uriarte 13an, 4 urte. Zorionak! Ederto ospatu zure eguna eta segi beti bezain alaitsu. Patxo!



ARRASATE Urtzi Ginart Velez de Mendizabal 12an. Zorionak! 9 urte eta gorantz! Muxu handi bat! Ondo ospatu!



ARRASATE Alain Fernandez Davila Abuztuaren 11an, 7 urte. Zorionak! Txeko guztien partetik. Baita Ken ere!



ELGETA Irati Gantxegi Barrios 10ean, 4 urte. Zorionak, potxola! Etxekoen partetik, oso ondo ospatu zure eguna.




OÑATI Ekhi Garcia Aranburu 10ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto pasauku familixan! Patxo bat.



ARRASATE Ane Garcia 10ean, 7 urte. Zorionak! Oso ondo pasa eta disfrutatu topera zure eguna! Patxo bat!



OÑATI Malen Lizarralde 10ean, 6 urte. Zorionak eta ondo pasau zure egunian. Patxo handi bat familixan partetik!



BERGARA Malen Lopez Usaola 9an, 2 urte. Zorionak! Ze haundi, maixia! Muxu bat Aner, Maddi, aitaxo eta amatxoren partetik.



BERGARA Xuban Igartua Madariaga Irailaren 9an, 2 urte. Zorionak, Xubantxo! Eguna on ona pasa.



ESKORIATZA Lander Kortazar Olabarria 8an, 6 urte. Zorionak! Jarraitu hain jator eta maitagarri. Muxuak!



BERGARA Oier Garitano Agirre 8an, 12 urte. Zorionak! Gozatu zure urtebetetze eguna. Patxo bat etxeko danon partetik!



BERGARA Nora Garitaoandia Igartua 8an. Zorionak! Aileau da eguna, urtetxo bat! Muxuak familiaren partetik.



OÑATI Mattin Sarriegi Derteano 8an. Zorionak! 9 urte dagoeneko. Merezki bezala ospatuko dogu! Muxuak!



ARRASATE Aiur Aranzabal Larrza 6an, 2 urte. Zorionak! Muxu Bergarako eta Eibarko familien eta bereziki Laiaren partetik!



ANTZUOLA Maddi Reboreda Zabalo 5ean, 5 urte. Zorionak, Maddi! Ze handi! Askomaite zaitugu! Muxu bat etxeko guztien partetik!



OÑATI Auritz Urzelai Aizpeolea 5ean, 10 urte. Zorionak etxeko txikiari! Jarraitu orain arte bezalako izaten... asko maite zaitugu!



OÑATI Hegoi Garitano Urzelai 2an, 6 urte. Zorionak, Hegoi! Muxu potolo bat etxeko bereziki, anaia Urkoren partetik!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Horrik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Garajea Saldu/Errentan.
- Lokala Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza eman.
- Motorra Saldu/Alokatu.
- Animaliak/Saldu.
- Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoko argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
- Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Korosti

inmobiliaria

Bergara: Lizaria, 79m², 3 logela, trastelekua, garaje itxia, bizitzera sartzeko
220.000€



Bergara: Burdiñate, 65m², 2 logela, igogailua, trastelekua, bizitzera sartzeko.
175.000€



Antzuola: Kalegoi, 126m², duplexa, 3 logela, garajea, bizitzera sartzeko
260.000€
PREZIO JEITSIERA



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio gehiago:



URTEURRENA

Arantxa Garay Jauregui

2022ko abuztuaren 31n hil zen, 81 urte zituela.

Gure bihotzaren erdian zaude, lehen, orain eta betirako.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko irailaren 8an



URTEURRENA



Martina Aranguren Urcelay

1933-08-26 / 2022-09-04

Eguren aldean sortu zinen hiru ahizpetan txikina Basarten familia erein ta baserritar nekaezina ezin eskertuko dugu gugan

izan duzun eragina betiko gordeko degu zure begien itsaso urdina besarkada handi ta bero bat maite zaitugu Martina.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko irailaren 8an.



ESKELA

Fermin Korkostegi Saizar

2023ko irailaren 6an hil zen, Donostian, 70 urte zituela.

Beno, Fermin badao, 'al espacio sideral', berak esaten zuen bezala. Lasai-lasai abiatu da. Pozik eta alai bizi izan da azken momentura arte!

Haren semea: Beñat. Anai-arrebak: Carmen eta Josep, Conchi eta Cosme, Mauda (+) eta Paco eta Mariajo, Iñigo eta Consuelo. Ilobak: Urdin, Iker, Oihana, Maitane, Eva, Ione, Manex, Jon.

Bergaran, 2023ko irailaren 8an.



ESKER ONA



Teresa Etxeberria Txintxurreta

2023ko abuztuaren 7an hil zen, 93 urte zituela.

Hileta elizkizunera etorritakoei eta samin agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aldi berean jakinarazten dizuegu zapatuan, irailaren 9an, 19:30ean, bere aldeko ondrea meza ospatuko dugula, Agustindarren elizan.

Oñatin, 2023ko irailaren 8an.




ESKER ONA

Marcelina Marculeta Arrazola

2023ko abuztuaren 31n hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2023ko irailaren 8an.



ESKER ONA



Ignacio Etxeberria Agiriano

Celestina Urkiolaren alarguna

2023ko abuztuaren 13an hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskerrak eman nahi dizkiegu baita ere Arrasateko eta bereziki, Eibarreko ospitaleko langileei gure aitta hain goxo eta maitasunez zaintzeagaitik.

Bergaran, 2023ko irailaren 8an.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 8 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Zapatua, 9 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

Domeka, 10 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

Astelehena, 11 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Martitzena, 12 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

Eguaztena, 13 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Eguena, 14 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 8 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Zapatua, 9 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Domeka, 10 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Astelehena, 11 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Martitzena, 12 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Eguaztena, 13 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Eguena, 14 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 8 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Zapatua, 9 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Domeka, 10 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Astelehena, 11 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Martitzena, 12 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Eguaztena, 13 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Eguena, 14 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte: SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

ESKER ONA

Rafael Romero Calderon

2023ko irailaren 4an hil zen, 68 urte zituela, gehien gustatzen zitzaiona egiten eta jaio zen herrian.


Familia guztiak eta lagunok maite zaitugu eta ez zaitugu inoiz ahaztuko. Zauden lekuan zaudela, segi korrika eta gozatzen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko irailaren 8an.



ESKER ONA




Jose Ramon Azkarraga Ugalde

2023ko irailaren 5ean hil zen, 68 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko irailaren 8an.



ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahizgo baduzue, jakinarazi zuten aragorri-konpainari gurekin nahi dituzela agurtu maite duzuenak.

Marioven, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuretzako, bihotza sendatzeko bala dute horietakoak. Guk baditugu gurela zuretzako, gure beharra duzenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**LEINTZ GATZAGATIK ZUZENEAN**

Andramaixen hasiera aitzakia hartuta egingo dute *Uda giroan* saioa. Otxandioarren bisita jasoko dute zuzenean.

'*Uda giroan*' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00

**II. IKAZKIN TRAIL**

Aretxabaletako lasterketak ematen duenaren kontakizuna egingo dute *Harmailatik* saioan, protagonisten adierazpenak barne.

'*Harmailatik*' Astelehena, 21:30 eta 23:30

**ANDRAMAIXEN LABURPENA**

Leintz Gatzagako jaiak eman dutenaren errepaso egingo dute: afaria, umeendako ekintzak, azoka, herri kirolak...

'*Jaiak*' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**ARAMAIOKO RALLYSPRINTAREN LABURPENA**

Uda giroan saioan egingo dute rallysprintaren errepaso, protagonisten adierazpena barne.

'*Uda giroan*' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**UNIBERTSITARIOAK**

Ikasturtea hasi dute unibertsitateetan, eta gaurko saioan hainbat lagunentzako testigantzak jasoko dituzte.

'*Uda giroan*' Eguena, 18:00, 20:00 eta 22:00.



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 8**ARETXABALETA Ixadebalde azoka**

Ordutegia: 10:00-13:30 eta 16:30-20:00.
Saltokietan.

ARETXABALETA Magia ikastaroa

Tor eta Txoborro magoekin bi saio: 10:30 eta 12:00.
Arkupen.

LEINTZ GATZAGA Andramaixak

Hitzordu guztiak 17. orrian.
Leintz Gatzagan.

ARRASATE Hauspo Eguna

17:00etan, 1-6 urte artekoendako jarduerak; 18:00etan, *Eskola plazara* ekimena; eta, 20:00etan, Xabi Solano Maizaren emanaldia Portaloian.
Arrasaten.

OÑATI Atzeko kaleko jaiak

17:30etan, etxafuego jaurtiketa eta zinta lasterketa; 19:30etan, txorimaloak; 20:00etan, tortilla pintxoak Hotz Oñatikoen eskutik; 22:30etan, Youth United eta Etxepe; eta ostean; DJ Pertxas & Sunset.
Atzeko kalen.

ESKORITATZA San Pedro eta Intxaurtxuetako jaiak

18:00etan, txupinazoa; 18:00etan, karro ibiltaria; 18:15ean, buruhandia; 19:00etan, Ad Libitum txaranga; eta, 23:00etan, DJ Moto.
Intxaurtxueta auzoan.

OÑATI Arantzazu auzoko jaiak

18:00etan, etxafuegoak; 19:00etan, patata tortilla lehiaketa eta, ostean, dastatzea; eta 22:00etan, mus txapelketa.
Arantzazuko auzo-etxean.

ARETXABALETA Magia emanaldia

Tor eta Txoborro magoen ikuskizuna.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE Olaia Inziarte

Oreixe Akustikoa zikloa. Sarrerak, bost euro.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30etan.

ARETXABALETA Agorreko Andramaixak

19:00etan, afari lekua prestatu; 20:00etan, Martin Kabarrixa pertsonaiari ongietorria eta tantaiaren altxatzea; eta, 20:30ean auzo-afaria eta dantzaldia.
Areantzan.

ZAPATUA 9**ESKORITATZA EskoXtrem martxa**

Bi ibilbide aukeran: 35 kilometrokoa eta 29koa.
Fernando Eskoriatza plaza, 09:00etan

BERGARA San Martin azoka

Egitarau osoa 21. orrialdean.
Bergaran.

ARETXABALETA Agorreko Andramaixak

09:30etan, diana etxerik etxe; 10:00etan, Ikazkin Trail lasterketakoak Kurtzebarrirantz; 11:30etan, kanpai-hotsak; 12:00etan, hildako auzotarren aldeko meza; 13:00etan, luntxa eta ginkana; eta, 17:45ean, Areantzako jolasak.
Areantza auzoan.

ESKORITATZA San Pedro eta Intxaurtxuetako jaiak

10:00etan, txistularien kalejira; 11:30etan, gimnasia erritmiko erakustaldia; 12:30etan, umeentzako jokoak; 12:30etan, Kaiña-Bi trikifarra; 14:30etan, herri bazkaria; 17:00etan, karaokea; 19:00etan, Tiki Taka Irratia eta parrillada.
Intxaurtxueta auzoan.

LEINTZ GATZAGA Andramaixak

Hitzordua guztiak 17. orrialdean.
Leintz Gatzagan.

ARETXABALETA Ixadebalde azoka

Ordutegia: 10:00-13:30 eta 16:30-20:00.
Saltokietan.

ARETXABALETA II. Ikazkin Trail lasterketa

Bigarrena egingo dute, UDAK antolatuta.
Durana kalean, 10:00etan.

OÑATI Gary Baños memoria

Gazte mailako txirindularitza proba.
Unibertsitate etorbidean, 10:00etan.

ARRASATE 'Arrasateko industria ondarea' bisita gidatua

Izena emateko: Arrasate.eus edo 943-25 20 00.
Biteri plazan, 11:00etan.

OÑATI Hotz-Oñatiren informazio puntua

Materiala erosteko aukera ere egongo da.
Foruen plazan, 11:00etan.

OÑATI Atzeko kaleko jaiak

13:00etan, auzokoen omenezko salda; 14:30ean, bazkaria; 19:00etan, garagardo dastatzea; 19:30ean, txorimaloak; 20:30ean, OstiKda! Elektro-txaranga; 00:00etan, piroteknia ikuskizuna eta zezen-suzkoa; eta ostean, Lizartxo taldea.
Atzeko kalen.

OÑATI Arantzazu auzoko jaiak

Auzo-bazkaria egingo dute bertsoari lagunduta.
Arantzazuko auzo-etxean, 14:00etan.

ARRASATE O Val Das Moura taldearen emanaldia

Pop eta folk doinuak, Hauspo Egunaren baitan.
Herriko Plazan, 19:30etan.

ARRASATE Sara Azurza

Oreixe Akustikoaren baitan. Sarrerak, bost euro.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30etan.

DOMEKA 10**LEINTZ GATZAGA Andramaixak**

Hitzordu guztiak 17. orrian.
Leintz Gatzagan.

ARRASATE Arrasate-Arantzazu erromes bidea

Larriño, Urkulu, Urrexola eta Arrikruz inguruak zeharkatuko dituzte PR-Gi 106 ibilbidea jarraituz, Arantzazura heltzeko. Antzina erromesek erabilitako bidea da.
Herriko Plazan, 09:00etan.



OLAIA INZIARTE

ARETXABALETA Tomatearen**Azoka**

10:00etan, azoka eta antzinako tomate barietateen erakusketa; 11:00etan, haziak ateratzea Marc Badall adituak gidatuta; 12:00etan, sukaldaritza tailerra Anne Otegiarekin; eta 13:30ean, lehiaketaren sari banaketa. *Durana kalean.*

ESKORIATZA San Pedro eta Intxaurtxuetako jaiak

10:00etan, txistularien kalejira eta artisau azoka; 12:00etan, txistorra eta txanpi pintxoak; 14:30ean, *Zuk ekarri, zuk jan* bazkaria; 16:00etan, bingo-drag; 19:00ean, askaria eta dantzaldia adinekoendako; eta 21:00etan, jai bukaerako traka. *Intxaurtxueta auzoan.*

ARETXABALETA Kurtzebarri Eguna

Mokadutxo eskainiko dute tontorrean. *Kurtzebarri mendian, 10:30ean.*

ARETXABALETA Agorreko Andramaixak

11:30ean, auzotarren argazkia Kurtzebarri; eta jaitsieraren ostean Martin Kabarrixa agurtu. *Areantza auzoan.*

OÑATI Arantzazu auzoko jaiak

Luntxa egingo dute, saldarekin eta txorizo pintxoekin. *Arantzazuko auzo-etxean, 13:00etan.*

OÑATI Atzeko kaleko jaiak

15:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, txorimaloak; 19:00etan, Gauargi taldea; eta 21:00etan, etxafuegoak jaiak bukatzeko. *Atzeko kalen.*

ARRASATE Emilia y Pablo

Oreixe Akustikoaren baitan. Sarrerak, bost euro. *Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30ean.*

ASTELEHENA 11**OÑATI** Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Olaia Inziarteren emanaldia

Oreixe Akustikoa zikloari hasiera emango dio Oronozeko musikariak. *Denak begira daudelaik* diskoa aurkeztuko du, akustikoan. Ez dira faltako *Lehenengo lepotik burua* diskoko kantu ezagunenak. *Gaur, egubakoitza, Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30ean.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

OÑATI Nagusien danborradako entsegua

Gerrikoa eraman behar da. *Eltzian, 20:00etan.*

MARTITZENA 12**ARETXABALETA** Ate irekiak Kuku Mikun

Potx magoaren ikuskizuna 3-6 urte artekoendako. Haurrak heldu baten laguntzarekin. *Kuku Mikuren egoitzan, 17:00etan.*

OÑATI Haurren danborradako entsegua

Gerrikoa eraman behar da. *Eltzian, 18:30ean.*

EGUAZTENA 13**BERGARA** Kafe Konpon

Etxetresna txikiak konpontzen ikasteko. *San Joxepe elkartearen, 16:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Garaiko produktuak erosteko. *Oxirondon, 18:00etan.*

BERGARA 'Las chicas estan bien' filma

Jatorrizko bertsioan eta azpigituluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

OÑATI Nagusien danborradako entsegua

Gerrikoa eraman behar da. *Eltzian, 20:00etan.*

EGUENA 14**OÑATI** Arantzazura eta

Argantzazura AKIZJABEAAXX
Lagun Lekuko erretiratuendako. *San Lorentzon, 11:00etan.*

ELGETA Oroimena Antzerki Taldea

ONCE Fundazioko kideen antzezlan. *Espaloian, 17:30ean.*

BERGARA 'Kale gorrian' antzezlan

Barsanti taldearen kale-antzerkia. Aiton-amona bikote bat etxe gabe geratzear dago. Polizia balkoiaren azpian dago, epailearen agindua betetzeko prest. *San Martin plazan, 18:00etan.*

OÑATI Haurren danborradako entsegua

Gerrikoa eraman behar da. *Eltzian, 18:30ean.*

ZINEMA**BERGARA****SEMINARIXOA****Vacaciones de verano**

Domeka eta astelehena: 19:30.

Superheroiaren familia

Domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****Abentura erraldoia**

Zapatua eta domeka: 12:00.

Alma Mahler: La pasion

Egubakoitzetik domekara: 19:45, 21:45. Astelehenetik eguenera: 19:45.

Barbie

Egubakoitza: 19:00, 21:30. Zapatua eta domeka: 11:45, 19:00, 21:30. Astelehenetik eguenera: 19:30.

Campeonex

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:30, 22:00. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:45. Martitzena: 17:00, 19:30.

Creature (jatorrizko bertsioan)

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 21:30. Astelehenetik eguenera: 17:15.

El valle de la esperanza

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 21:30. Astelehenetik eguenera: 17:00.

Isabel II: retrato de una reina

Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:15.

Zapatua eta domeka: 11:30, 17:15.

La guerra de los Lulus

Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

Las chicas estan bien

Egubakoitzetik eguenera: 19:15. **Las dos caras de la justicia** Egubakoitzetik domekara: 19:30, 21:45. Astelehenetik eguenera: 19:30.

Me he tragado un extraterrestre

Zapatua eta domeka: 12:00. **Ninja turtles** Egubakoitza, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

Oppenheimer

Egubakoitzetik domekara: 17:30. Zapatua eta domeka: 19:15.

Panda contra Aliens

Zapatua eta domeka: 12:00.

Passages

Egubakoitzetik eguenera: 19:30.

The equalizer 3

Egubakoitza: 21:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 21:00. Astelehenetik eguenera: 17:00.

Verano en rojo

Egunbakoitzetik domekara: 19:30, 21:30. Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:30. Martitzena: 17:00.

KRITIKA**Oppenheimer**

Zuz.: Christopher Nolan. **Herr.:** AEB (2023). **Aktoreak:** Cillian Murphy, Emily Blunt, Robert Downey Jr. **Iraupena:** 180 minutu. ★★★★★

Asmakizun gatazkatsua**ANTONIO ZABALA**

Christopher Nolanek, bomba atomikoa asmatu zuen Julius Robert Oppenheimer ikertzailearengana hurbiltzen gaitu. Filmak irauten duen hiru orduetan Oppenheimerren ikasle bizitza kontatzen zaigu. Europara joan beharra izan zuen bere ezagutzak zabaldu ahal izateko. Europa, Ameriketako Estatu Batuak baino aurreratuagoa zegoen ikasi nahi zuen arloetan. Gero, bomba sortzeko eta fabrikatzeko prozesu osoa, sortzen diren arazo eta zalantza guztiak ikusiko ditugu. Horren ondoren, Guda Hotzaren garaian, zientzialariak jasandako jazarpenaren – politikokoak ideia komunistetatik gertu zegoela uste zutelako– lekuko izango gara. Haren emaztea eta bikote

bat agertzen dira, baina arreta txikiarekin azaltzen ditu zuzendariak. Nolanek garrantzi handiagoko ematen dio prozesu zientifikoari eta filmaren pertsonaia protagonistak jasandako jazarpenari.

Nolanen filmek ez diote ikusleari arnasarik ematen, denborarekin jokatzeko du eta istorioa kontatzeko modua eta erabilitako estiloa nahasiak eta gehiegizkoak izaten dira. *Oppenheimer*-en zerbait antzekoa gertatzen da: datu, pertsonaia eta elkarte asko daude; badira ere denbora jauziak; eta musikak film osoan etengabe dihardu. Baina, *Origen*-ekin edo *Tenet*-ekin alderatuz, pelikula hau eskuragarriagoa eta interesgarriagoa da ikuslearendako.



AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

3,7ko esperientzia

Azken urteetan oso azkar hedatu den (beste) pandemia bat da gauza oro kalifikatzea. Aireportuetako zerbitzuak puntua ditzakezu aurpegi irribarretsu edo tristeekin, eta hondartza, jatetxe eta produktuak batetik bestera neurtzeko aukera dago izarren bidez.

Dena bihurtu da puntuagarri. Sarean aurki daitezkeen erreseinek bilatzen ari garenari buruzko *iritzi orokorra* eman diezagukete, eta konturatu orduko *JoseAntonio52*-k bost izarrekin baloratu duen hondartza bisitatzea zoaz. Ez daukat ezer Jose Antonioren kontra, baina aipagarria iruditzen zait ezezagunaren iritzia sinesteko garatzen dugun erraztasuna.

Hedatzen ari den pandemia esan dut, produktuekin hasitakoa pertsonengana heltzen hasi baita. Guztiok dugu barne-epaile bat; aurrean duguna edozer izanik ere, beste zerbaitekin konparatzeko ohitura intimoa dugu. Halere, horrek ez du esan nahi gure judizio oro publiko egin behar denik, eta are gutxiago pertsonekin, gizakiak ez baitira neurtu daitezkeen merkantziak.

Ea pertsonak izarren bidez neurtzeko pandemiari aurre hartzen diogun. Hori lortzeko dudana esperantza 5etik 3,7koa da.

BUKATZEKO

"Presio gehiago ez, ilusioa da daukaguna"

Nerea Agirrezabalen (Bergara, 1994) arraun talde Tolosaldeak ezustea eman zuen domekan, Kontxako Banderako lehen jardunaldia irabazita. Tarte oso txikia dute, baina oraingo domekarako faboritoen multzoan sartu dira Izaro Lestayoren neskak

Xabier Urzelai BERGARA

Aste berezia dabil izaten Tolosaldeako arraunlariendako, inoiz ez dutelako Kontxako Bandera horren gertu ikusi –Izaro Lestayo patroia da Kontxa irabazi duen ordezkari bakarra–. Eta, zer esanik ez Nerea Agirrezabalendako. "Pentsa, Ondarroako arraun taldean egin ditudan urteetan beti nahi izan dugu Kontxarako sailkatu, eta inoiz ez dugu lortu. Oso gertu geratu izan gara, baina beti hartzen nuen atsekabe handia. Orain Kontxara sailkatu bakarrik ez, lehen jardunaldia irabazi ere egin dugu. Benetan diot, oraindik ez dut sinisten egin duguna".

Domekan gutxik egin zuten Tolosaldeakoen alde apustu –eta horiek ondo bete zituzten poltsikoak– ez ziren inondik inora-eta faboritoak. Baina, lehengo luzean Donostiarrak-en eta Arraun Lagunak-en ondoan mantendu ziren, eta ziaboga ona eginda badiara bidean indarrek parean jarraitzen zuten. "Itzuleran nire erreferentzia Donostiarrak taldea zen, eta ikusten nuen gutxiagatik bazen ere aurretik ginela. Ez nuena uste da, atzean, Arraun Lagunak horren gertu geneukanik".



Nerea Agirrezabal, domekan estropada irabazi berriaren irudiak. IÑAKI BEITIA

Inoizko Kontxa parekatuena

Datuek erakusten dute domekako Tolosaldeak Kontxan inoiz egin duen estropada azkarrena izan zela (10.37.67), lehenagotik zeukaten marka zortzi segundotan ondu zuten-eta. Oso tarte

txikiagatik irabazi zioten Arraun Lagunaki –18 ehunen– eta bi segundo (1.98) atera zizkion Donostiarrak. Hala, domekan ohorezko tandan irtengo dira tolosarrak, eta aurretik aipatutako bi talde horiez gain –Do-

nostsiarrak eta Arraun Lagunak– Orio batuko zaie tanda horretara. Eta, lau traineru horien artean lau segundo pasatxoko (4.66) aldea baino dago.

"Gai garela ikusi dugu"

Aste barruan Bergarakoak atsedean hartzeko egun bakarra izan du. "Zentzu horretan aste normala egiten ari gara, maiatzean uretara sartu ginenetik horrela gabiltzalako, astean lautan entrenatzen gara Pasaian, eta asteburutan estropadak izan ditugu. Zentzu horretan ez dugu ezer aldatu".

Seguruenik, aldaketa arlo psikologikoan etorri da. Orain arte Euskotren Ligan ez dute garai-penik eskuratu, nahiz eta aurrealdeko postuetan ibili diren. "Denei irabazi diegu momenturen batean, baina inoiz ez gara denen aurretik geratu, orain arte. Eta, Agirrezabalek uste du domekako lorpena inflexio puntua izango dela. "Gure entrenatzaileak esaten digu horixe falta zaigula, gure buruan sinistea, eta arrazoi du. Domekan erakutsi dugu hor egon gaitezkeela, eta horrek konfiantza eman digu".

Ametsa, gertuago

Hala, bergararrak dio lehenengo jardunaldian irabazi izanak ez diela presioa areagotu. "Ez, orain arte ez dugu presiorik izan ez ginelako faboritoak eta ez dut uste orain presio gehiago dugunik. Nik ez dut halakorik sumatzen, behintzat. Bai daukaguna da sekulako ilusioa; izan ere, lehen Kontxako Bandera irabaztea ametsa baino ez zen, urrun ikusten genuen ametsa, baina orain ikusi dugu amets hori eskura daukagula".

IKAZKIN TRAIL MENDI LASTERKETA

GOIENA TELEBISTAN, HARMAILATIK SAIOA
ASTELEHENEAN, IRAILAREN 11N, 19:30/21:30/23:30



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

